

# ttipi-ttapa



Xabier MARITORENA ZUBIETA | Haurdunaldi subrogatuaren bidez guraso izan den arraioztarra

**«ORAIN AMERIKETAN BERTZE FAMILIA BAT DUGU»**

/ 8

## Pisua ibili gabe ordaintzen

Unibertsitateko aurrez aurre eskolak etenda, etxean daude ikasleak. Halere, aunitzek ikasle pisua ordaintzen segitzen dute. / 24

### SINADURAK



KORO  
IRATZOKI  
ARBURUA / 3



AITOR  
AROTZENA  
ALBIZU / 3



MIXEL  
GEREKA  
ZELAIA / 4



NEREA  
ZABALETA  
LASARTE / 4

 ttipi txartela

Josune Sorondo Ondoizola  
72073152-A  
2021.04  
372

### «Egoeraren larritasunaren ondorioz abiadura beldurgarria hartu du ikerketak»

COVID-19a garaitzeko borrokan, txerto eraginkorra sortzeko lanean ari da zientzia. Nerea Zabaleta Leitzako ikerlaria ere horretan dabil, Bostonen / 30



### Elizondoko zahar etxea da koronabirusaren fokuetako bat / 36

Irurita eta Urdazubiko bestak bertan behera gelditu dira / 38-40

# DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta  
aprobetxatu  
aukerak!



2019-2021

**Caser**  
RESIDENCIAL ANAKA

**%5** DESKONTUA  
Egonaldietan, erreabi-  
litazioan eta eguneko  
zentroan. Txartelduna  
eta bere 2. graduako senideak barne.

Anaka, 8 | IRUN  
T. 943 66 77 80

**ttipi-ttapa**

**%10** DESKONTUA  
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA  
T. 948 63 54 38

**TriSari**  
LAND

**%50** DESKONTUA  
sarreran

Irisarri, 1 | IGANTZI  
T. 948 92 89 22

**Semper**  
autonokoia

**%10** DESKONTUA  
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98  
LESAKA | 948 63 82 99

**Arduro**

**%5** DESKONTUA  
arropetan

Altzate, 30 | BERA  
T. 948 63 01 36

**bixkiak**  
KIROL ETA MODAKO  
orriko denda

**%5** DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 81 10

**KATEA**  
BIKE

**%5** DESKONTUA  
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 63 12 18

**Xulufraia**

**%5** DESKONTUA  
30€tik gorako  
dekorazio gaietan

Altzate, 18 | BERA  
T. 948 63 12 66

**GAELA**  
Bere ingulatsu zentrua

**%5** DESKONTUA  
kosmetikan  
**%5** DESKONTUA  
oparietan 50€tik gora.  
Promozioetan ezik.

Pio Baroja, 11 behe | Bera  
T. 666 42 61 96

**ALZURI**  
ELEKTRIZITATEA

**%5** DESKONTUA  
etxeresnetan  
promozioetan ezik

Bittiria, 33 | LESAKA  
T. 948 62 75 31

**KARLOS ALZUGARAY**  
OSTEOPATA Euz. Ost. D.O.

**%10** DESKONTUA  
hamar saioko  
bonoan

Itzea, 20 behe | BERA  
T. 607 85 32 08

**bortzirudi**

**DESKONTUA**  
**%15** Kamisetetan **%10** Inprenta  
lanetan  
**%5** kopia, erikuadernazio eta  
plastifikazioan 5€tik gotti  
\*Aurrekontutik kanpo

Ezegara, 26 esk. behe | BERA  
T. 948 63 15 21

**LESAKAKO**  
UDAL  
KIROLDEGIA

**%40** DESKONTUA  
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA  
T. 948 63 74 00

**Urdu Bera**  
Bere ingulatsu zentrua

**%20** DESKONTUA  
urteko abonarean  
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA  
T. 948 63 02 15

**AGARRA**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA  
kirol artikuluetan  
**%15** DESKONTUA  
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA  
T. 948 63 09 99

**ZK zela**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA  
erosketa  
guztietan

Altzate, 6 | BERA  
T. 948 63 05 98

**kattagorria**

**%10** DESKONTUA  
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA  
T. 948 62 75 14

**ZU** lorendena  
dekorazioa  
osagarriak

**%5** DESKONTUA  
lore moztuan  
30€tik gorako  
erosketetan

Altzate, 33 | BERA  
T. 948 62 57 86

**elika** Dietetika  
eta elikadura

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA  
T. 948 63 12 83

**oreKa**  
nutrizioa eta dietetika

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 73 73

**Intzuri**  
OPTIKA

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA  
T. 948 62 75 50

**Ostargi optika**

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA  
T. 948 63 07 53

**HKpodologia**  
NORA MAIZA

**5€** DESKONTUA  
ibilkeraren  
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA  
T. 688 878 177

**txinelka**

**%10** DESKONTUA  
erosketa  
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA  
T. 948 63 75 94



**NIRE TXANDA**

**KORO IRATZOKI ARBURUA**

## Egin dezagun!

Preso gauden egun hauetan, etorkizuna nola nahiko genukeen pentsatzen gabiltza. Ekonomia bidezko eta solidarioago bat nahi dugu, ilusionatzen ari gara planeta deskontaminatzen ari delakoan, osasun sistema hobetu behar dela ikusten ari gara, gure zahar etxeen gestioa aldatu beharra dela begi-bistan gelditu da, gure nekazariak daukaten garrantziaz konturatu gara. ... Inkontzienteki, hau guztia «goitikoez» konponduko dutela pentsatzen dugu, Administrazioaren lana dela, ekonomiako arlotik beharko duela izan. Eta gehienbat horrela beharko du, baina agian gure buruari «eta nik zerbait egin dezaket?» galdetzen badiogu? Gure kontsumo mota eta gure aisialdia nolakoak diren birplantatzeaz ari naiz. Kontsumatzaile kontziente eta kritikoa izateaz ari naiz. Gure dirua zeini ematen diogun konturatzeaz ari naiz. Kontsumatzaile bezala, sekulako boterea daukagu. Gure diru-poltsa ttikitatik hasiz, baina erabaki ausartak hartuz, ekonomia alda dezakegu. Oraintxe berean, koronabirus ttar horrek egiten ari duen bezala.

**«GURE DIRUA  
ZEINI EMATEN  
DIOGUN KONTURAT-  
TZEAZ ARI NAIZ»**



**EZPALA**

**AITOR AROTZENA ALBIZU**

## Estatistika egin nuen Getarian...

Gezurra errateko hiru modu omen daude: zuzenean gezurra erratea, egia erdizka erratea edo estatistikak egitea... Zu sosik gabe bazaude eta ni bi milioien jabe, banaz bertze milioi bana euro dugula erranen digu estatistikak. Krisi egoeran emandako hildako edo positibo kopuruetan argi ikusi dugu. Lehenago harrapatzen da estatistika maingua baino!

## NABARMENTZEKOAK



**JAIONE  
PERURENA**  
URDAZUBIKO GAZTEA



**ARITZ  
URRUTIA**  
IRURITAKO GAZTEA

Koronabirusak besterik gabe utzi ditu Iruritako eta Urdazubiko herritarrak. Hala ere, ez daude geldirik egoteko. Urdazubin, erraterako, besten antolakuntza taldean dabilen Jaione Perurenak azaldu du erabakia eta egoerak hobera egiten duenean «besten seinalea» egiteko asmoa dutela. Eta Aritz Urrutia Iruritako gazteak proposamen faltan ez daudela aitortu du: «ideia anitz plazaratu dira momentuz ospatu ezin ditugun beste buelta hartzeko».

## ATZERA BEGIRA



2010-04-29 · TTIPI-TTAPA · 517 zk.

## Nerea Erbiti Leitzako jazz abeslaria

Urtetan hainbat trikitixa taldetan ibili ondotik, bide hori alde batera utzi gabe, jazzaren mundura salto egin zuen Nerea Erbiti leitzarrak. Horixe aitzakiatzat hartuta elkarrizketatu zuen duela hamar urte TTIPI-TTAPAK. Lagun baten bitartez barneratu omen zuen jazz: «Askotan, Donostiako Jazzaldia ikustera joaten ginen, eta diskoak ere pasatzen zizkidan. Hortik hartu nuen zaletasuna». Horri tiraka, «jazza serioitasunez ikasten hastea» erabaki zuen, «Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan sarrera proba egin eta hartu ninduten». Aldi berean, «jazzeko letra guztiak ingelesez» izanda, «ni hitzak euskaraz asmatzen hasi» zela azaldu zuen eta gainerakoan, «Leitzan eta inguruan» jazz ez dela entzuten adierazi zuen.



**erran.**  
eus

**TOKIKOM**

### Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena

### Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

### Publizitatea

Amalia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

### Berriemalleak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,  
Maider Petrirena, Oihana  
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,  
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,  
Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,  
Marga Erdozain, Maitane  
Maritorea, Arantxa Iturralde,  
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,  
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,  
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,  
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier  
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione  
Mindegia, Olatz Mutuberria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea

### Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

### Administrazioa

Amalia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdi Akelarre elkartea

### 2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€



## KOLABORAZIOAK

MIXEL GEREKA ZELAIA

**B... Bertakoa**

Bertakoa, betikoa, betidanikoa, bizi-gutzizkoa. Ez dakizue zenbatetan, ilea urdintzen hasia dudan adina izanik ere, zenbatetan oroitarazten didaten jende batzuek ni bertakoa ez naizela. Bi kategoria ezarri, bertakoak direnak, «gu» direnak, eta bertakoak ez garenok eta beraz, «zuek» garenok beraien-tzat, kanpotarrok.

Gehienetan ez didate modu txarrean oroitarazten, baizik eta nigan atxikia daraman ezaugarri anekdotiko bat izango balitz bezala. Horrela da. Gutxi batzuetan berriz modu ez hain onean egiten dute, eta nik, ez entzunarena egin eta haize zakar ufada pasatzen uzten dut, ez baitu gehiagorik merezi, haizea besterik ez baita.

Gipuzkoako txantxikua naiz eta Oñatiko putzua dut sorterri. Han jaio, hazi eta hezi ninduten eta han ditut nire hildakoak. Gazte atera nintzen babes eta konfort-zonako putzutik eta mundu zabaleko beste erreka, putzu, ibai, aintzira eta zingira askotan igeri egin eta bidaideak aurkitu ditut. Denbora laburrekoak batzuk eta bizitza osoko bidai-deak beste gutxi batzuk. Lagunak. Nire altxorra. Toki guztietatik edan eta elikatu naiz, eta aspaldiko partez, urteak hamarkadaka kontatu ahal izateko pribilegiatua bainaiz, Malerrekako Ituren dut bizileku.

**«ARDI BAT EZ DA  
JAIOTZEN DEN  
TOKIKOA LARRATZEN  
DUEN TOKIKOA BAIZIK»**

pertsona bakoitza, gu geu, eta bestea nongoa kontsideratzen zaituzten zure ingurukoek.

Ni neu, ongi sentiarazten nauen tokikoa naiz, lagunak ditudan tokikoa– bestela beste putzu bat bilatuko nuke–, eta hainbat leku eta herrialdetan izan dut bizipen hori. Leku horietako bakoitzean bizi izandako esperientziek eta ezagututako pertsonen osatu naute. Hainbat zatitxo eraikia ikusten dut nire burua. Horrek egiten nau ni. Sentimendu hau norberarena da eta hor ez du tokirik besteek diotenak.

Urteak metatu dira sorterria utzi nuenetik, gaztetasuna ezaugarri iraunkortzat nuen garaitik, eta halere, herrira bisitan noan bakoitzean, bertakotzat naute. Nik zer sentitzen dudanez gain. Nire izaera osatzen duten zatitxo ginetik. Nire arbasoen bizitzen eta nire haurtzaroaren lekukoa. Ez naiz arrotza, ez kanpoko. Han norbaiten seme, biloba, iloba, anaia, osaba, lehengusu, koinatu, auzoko edo txikitako laguna naiz. Klan bateko kide bat naiz. Klan bat osatzeko baina urteak eta horiek estaltzen dituen gaineko lurra behar dira. Agian hildakoak ditugun lekuak bertakotzen gaitu.

Ardi bat ez da jaiotzen den tokikoa, larratzen duen tokikoa baizik.

Txantxiku bat ez da jaiotzen den putzuko, unean igerian egiten dueneko baizik.

Baina, noiz eta zein magiaren poderioz bihurtzen da kanpotar bat bertako? Nola egin trantsizio hori? Bi gauza desberdin gertatzen dira gai honetan: bata da nongoa kontsideratzen garen



NEREA ZABALETA LASARTE

**Aho-handien urrezko minutua**

Jendea itxialdian; mediku, zientzialari eta adituak ahal bezala lanean; eta aho-handiak sare sozialetan sueltu, urrezko minutuaren bila, beldurraren hazia lau haizeetara zabalduz. Egoera honetan, koronabirusaren gaia besterik ez dugu entzuten edota irakurtzen: berriak, bideo biralak, memeak eta teoria konspiratzaileak. Eta, ondorioz, askok jada sortua dugu gertatzen ari denaren inguruko iritzia; baina, pentsatu al dugu inoiz iritzi hori nondik datorren? Informazio iturri fidagarrietatik edo, aitzitik, norbaitek gertaera, kasualitate eta argumentu ahuletatik atera dituen konklusioetatik?

COVID-19a mundu guztian zehar zabaltzen hasi zenetik familia eta lagunak bidali dizkidaten bideoetako informazio asko gezurtatu ahal izan dut. Esate baterako, duela aste batzuk, sare sozialetan zabalduetako bideo batean, Harvard Unibertsitateko irakasle baten atxilotetaren inguruko berri bat ematen zuten ingelesez, eta bideoa argitaratu zuen aho-handiaren komentarioak zioen atxilotetaren arrazoiak koronabirusa sortu eta Txinara bidaltzea izan zela. Non nire sorpresa: jatorrizko bideoan ez zen koronabirusa behin ere aipatzen! Bideo hori ikusten baduzu, ingelesez ez badakizu eta komentario hori irakurtzen baduzu, zer pentsatuko

**«ERABILI ZUEN  
URREZKO MINUTUA  
EGIAREN HAZIA  
ZABALTZEKO»**

duzu? Pertsona hori ez dela aho-handi bat, ongi informatu dela bideoa zabaldu aurretik eta argitalpena ez dela morboak motibatutako zerbait. Aitzitik, kasu honetan betiere, gezurrak, argudio barregarriak eta

konklusio erradikalak besterik ez dira.

Biokimikari eta aditu bezala ziurtatzen dizuet ez dagoela adituen artean pertsona bakar bat ere gorrotoa, beldurra eta desinformazioa zabaldu nahi duenik. Alderantziz; osasungintzan eta ikerketan lan egiten dugun profesionalok indarrak bateratu ditugu krisi hau ahalik eta azkarren konpontzearen. Halere, aitortu behar dut, badudala halako arantza txiki bat: agian, egoera honetan, ez gara gai izan errealitatea zein den behar bezala komunikatzeko; akaso, gure errua ere izan daiteke beldurtuta dagoen gizartea ongi informatu ez izana; eta ondorioz, ziurrenik, aho-handiek bidea libre ikusi dute nahi dutena esateko.

Bukatzeko, hausnarketa bat, gomendio bat eta mezu bat eman nahiko nituzke. Hausnarketa: egoera honetan ideiak argi edukitzeak erakutsi dit oso garrantzitsua dela krisialdian adituei ahotsa ematea eta ez sinistea edozeinek esaten duena. Gomendia: egin kasu adituei eta laguntzeko intentzioa duten argudioei, eta pentsatu gehienetan azalpen sinpleena izaten dela egia. Mezua aho-handiei: hain adituak kontsideratzen baldin bazarete, utzi gezurrak eta gorrotoa ereiteari eta erabili zuen urrezko minutua egiaren hazia zabaltzeko.

## 11 GALDERA LABUR

FERMINTXO LARRALDE CORDOBA BRT-KO JOKALARIA

## «Gaupasarik ez egiteak galera ekonomiko handia eragin digu»

### Nor da Fermintxo Larralde?

23 urte dituen Elizondoko mutiko arrunt bat.

### Zer egiten duzu egunerokoan?

Historia ikasketak akituta, igeltsero lanetan ari naiz. Lanetik kanpo, errugbian, trinketean palaz eta tarteka bertso-eskolan (aurten guti) aritzen naiz. Asteburuetan, normalki, partiduak eta besta...

### Noiz hasi zinen errugbian jokatzeko?

Duela zortzi urte. Lehenbiziko egunetik arras gustura egon naiz. Niretako bigarren familia da, zentzu guztietan. Arront giro ona dugu eta urte luzez hala segituko dugula espero dut.

**Aurten BRT gaupasa bertan beherra utzi behar izan duzue. Zer ondorio eragin dizue horrek?**

Batetik, galera ekonomiko handia, hortik ateratzen baitugu urteko aurrekontua; eta bertzetik, talde bezala segitzeko zailtasunak handituko dira.

**Laguntza gisa, bazkidezte kanpaina abiatu duzue... Nola lagun dezakete herritarrek?**

Bazkide laguntzaileak 15 euro ordainduko ditu urtean. Bazkide babesleak, berriz, 30. Azken horrek gaupasako sarrera dohainik izanen du nahi izanez gero. Azkenik, haurrentzako bazkidezte dago urtean 5 euro ordaintzen dena. Bazkideak hirugarren denboretara joan ahalko dira eta horrez gain, taldeak ateratako materialean, deskontua izanen dute. Bazkidezteko taldekideren batekin kontaktuan jarri behar da.



### Gaupasa noiz egin pentsatu duzue?

Udazkenean egin gogo dugu, urrian edo azaroan. Baina ez dugu data finkatu.

### Denborealdia eten behar izan duzue...

Txapelketako bigarren fasean ginen, igoera lortzeko aukerarekin, berdinduta ginelakoz bigarren sailkatuarekin. Hala ere, oraindik lau partidu genituen aitzinetik, igoera-fasea jokatzeko gero bertze bi. Ez dakit txapelketa akituko dugun...

### Etxean entrenatzen duzue?

Ariketa fisikoa egiten jarraitzen dugu, entrenatzaileak etxean egiteko ariketak bidali zizkigun...

### Etxealdia bertsoan aritzeko aukera ez du ezeztatzen...

Ez naiz batere aritu bertsoan egun hauetan, etxea txukuntzeko aprobetxatu baitugu. Hemendik aitzinera ikusiko da.

### Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Ingurukoak ongi ikusteak.

### Amets bat?

Euskal Herri aske eta sozialista batean bizitzea.

**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**  
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**  
**Mantelak**  
**Kuxinak**  
**Edredoi nordikoak**  
**Ohe estalkiak**  
**Maindireak toailak**  
**Edredoi-azal nordikoak**

**Ohe-estalkien bilduma berria eta ugaria**

## IRAKURLEAK MINTZO

**Mugen itxialdia Covid-19**

**EGOITZ BLAZQUEZ-ERRARTE** MUGAZ GAINDIKO  
LANGILE BAT | SENPERE

Salatzea nahiko nuke eskandalu bat kontsideratzen dudan Frantzia eta Espainia arteko muga pauso askoren ixtea.

Izan dira urteetan mugaz bi aldetara atentatuak, droga trafikatzeko, kontrabando, hilketa, denetariako delinkuentzia, Miarritzen izandako G7-a eta azken finean, autoritateek muga estu-estu zaintzea kontsideratu duten hainbat eta hainbat egoera. Baina muga pausoak, kontrolak gora behera, zabalik izan dira beti.

Oraingoan, mugaz bi aldetara Covid-19a dela eta, konfinamendua, kaleak inoiz baino bakartiago, edozein itzulgunetan polizien kontrolak eta errepideak sekula baino lasaiago. Hala ere, batzuk lanera joan beharra dugu. Ongi betetako enpresaren agiri eta Frantziako autoritateek ezarritakoekin beti ere. Egoera baketsu idilikoa irudi luke. Ba, ez dute aski.

Frantziako autoritateek (beraiek erabaki baitute), sekula izandako kriminal edo mehatxurik handiena kontsideratu omen gaituzte lanera joateko muga zeharkatu behar dugun langileak. Eta izandako mehatxu guztiei aplikatu ez dietena, guri aplikatu digute. Lanera joateko behar ditugun muga pausua itxi eta hor konpon!

Ez dute itxi Senperetik Baionara doan errepidea edo Hazparnetik Kanbora doana. Hor ez dute arriskurik ikusi. Hori bai, Saratik, Senperetik, Urdazubi edo Zugarramurditik, Bera edo Lesakara edo alde-rantziz lanera joateko beharra egunero baduzu, hori beste zerbait da! Lizuniagako pausoa itxi eta munduari itzulua egiteko presta zaitetz!

Gu ez gara turistak. Ez gaude oporretan!

Erabaki justifikaezina, totalitarioa, aurrekari arriskutsua ezartzen duena eta auzapez, alkate eta lehendakariak salatu beharko luketena.

**Adinekoak ahaztuak**

**JUAN JOSE PELLEJERO GOÑI**

Berriki Kataluniako Generalitateak Covid-19ak jotako adineko jendeari ospitale-

ratzeko irizpide mugatzaileak ezarri ditu. Egun batzuk lehenago Italian antzeko jarraibideak iragarri ziren, eta Erresuma Batuan, pandemia sortu orduko azalpen bertsua egin dute Osasun Sistema Nazionaleko (NHS) arduradunek. Hasierako nire jarrera harridura eta mesfidantzaren artekoa izan da, baina baita abandonatze eta traizioaren sentsazioa ere.

Gehienok baditugu adineko familiakoak: gurasoak, aitona-amonak edo izeba-osabak. Garai latzak bizitako eta lan gogorra egindako jendea, eta sistemari dirutza emandakoa ere bai. Eta orain, urtetan egoera hoberena bizitzen ari garelarik, osasun sisteman baliabide falta direla eta, agintariak sakelatik ateratzen dute Rockwood irizpidea eta erraten digute laurogei urtetik goitiko jendea hobe dela ez ospitaleratzea, Covid-19ak eskatzen duen artatze gogorra garaituko ez dutelakoan. Rockwood irizpidea egon bazegoen, baina ez zuen adin zehatzik adierazten.

Eriaren hauskortasunaren sailkatze bat da, adinari begiratu gabe, eta maila bakoitzean artatze egokiena azaltzen da. Rockwood irizpidea erabiltzearen giblean sistemaren murrizpena eta politikoen etika falta ezkututzen dira herritarrik hauskorrenak osasun sistemaz kanpo uzteko xedearrekin.

**Zaborrak**

**ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

Munduko arazo handienetakoa bat sortzen ditugun zaborrak dira. Lurraren neurriak berak dira gaur eta milaka urte lehenago. Baina, bitartean, biztanleak milioika gehitu dira. 2020an, 7.000 miloi baino gehiago gara, eta datozen urteetan 10.000 milioira edo 15.000 milioira helduko garela esaten dute gai honetan adituak direnek. Zifra horiek beraiekin dakartzaten zabor kopuruak kezkarriak dira. Garai guztietan, baita munduan 200.000 biztanle inguru zituenean ere, batzuk arduratuta agertzen ziren. Baina ez sortzen zuten zaborragatik. Beraien kezka bestelakoa zen: nahiko ondasun izango otezen hainbeste jende elikatzeke. Honelako ardurak gaur ere agertzen dira komu-

nikabideetan, eta ez da harritzekoa. Nola ez hainbeste biztanle izanda, eta jakinez, munduko herrialde askotan gosez hiltzen ari direla.

Baina zaborrek ez dute inoiz inolako kezkarik sortu orain arte. Eta gaur egun ere, gutxiengo batek dauka ardura hori. Gehiengoak ez dauka kezka hori, eta zaborra, edozein bazterre botatzen jarraitzen dute. Herrialde askotan, ulertzekoa da beren bizi-baldintzak nolakoak diren ezagututa. Baina beste egoera askotan, arduragabekeriagatik, portaera desegokiak izaten jarraitzen dute. Erreka bazterrak dira aukeratuenak askorentzat.

Munduaren neurriak mugagabeak eta nolabait zabor guztiak suntsitzeko gai denaren ustea dago jokabide honen funtsean. Gaur egun, Euskal Herrian, jabetu gara gai honetaz, baina gure jokabideak ez dira oraindik beti zuzenak. Bakoitzaren ohiturak aldatu beharrean gaude. Gazte, zahar eta heldu, oraindik, jende askok ez du arazorik lurrera botatzeko esku artean traban dituen huskeriak. Gai honetaz hitz egitean, hizlari batek gomendatzen zuen ikasleei irakatsi behar zaiela nola zaindu garbitasuna, baina ahaztu egin zitzaion gogoratzea haurrak ikusten dutena egiten dutela, eta beharbada, helduekin hasi beharko litzatekeela.

Dena den, arazo larriena ez da gure jolastokietan, plazetan eta kaleetan daukagun zikinkeria, enpresak sortzen dutena baizik. Euskal Herria hedaduraz txikia izanez, industria asko duen lurraldea da, eta zabor kopuru handia sortzen du. Beren trataerak, irtenbideak, buruko min asko ematen die agintariei. Inork ez du nahi zabortegirik bere herri ondoan.

Zer egin, nola tratatu, nora eraman, honelako galdera asko daude tartean eta ez da irtenbide samurrik aurkitzen. Beste aldetik, material arriskutsuak izaten dira eta horrek zailtasunak gehitzen ditu. Garbi dago, gaur egun zaborrei buruz daukagun ezagutzarekin, onartezinak direla orain arteko jokabide batzuk, gehienak ezkutuan eginak. Munduan gertatzen direnekin, badakigu gu ez garela okerrekin izango, baina eredu izateko ere asko falta zaigu.

**IRAKURLEAK MINTZO**

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

## Covid-ak loratu gaitzala

JOSEBA ALEMAN IRIGOIEN

Apirilak 16, TTIPI-TTAPAREN ale berria iritsi da etxera. 62 urte beteko lituzke amak gaur, baina duela bi urte galdu genuen, gaixotasunez. Gaixotasuna, gaixotasuna eta berriz ere gaixotasuna, ez da bertzerik aditzen, maskaraz betetako ale honen azalena bezala. Amaren heriotzari atera genion alde ona, eta oraingo pandemiari ere atera ahal zaio gizartearen gehien-goia kontrakoa egiten tematu bada ere.

Covid 19-ak aspaldi abiatu zuen bere bidea eta atzera bueltarik ez dago, lehena ez genuen bizi garen sistemaren arrailduretan pentsatu nahi (ekonomia garrantzitsuegia da pertsonari tartea eskaintzeko) eta orain beranduegi da.

Komunikabide gehienek dezepzionatu egin naute bertze behin. Orduz ordu datuak berritzen dabilta gu informatuta edukitzeko, baina informazioak zerbaitetarako baliatzen ez badugu ez du inongo baliorik, eta zer nahi duzue erratea, bezperan baino 10 hildako, 58 gaixo eta 3 alta gehiago daudela jakiteak niri ez dit deus ere aportatzen, eguneroko ogia dira azken hilabeteen.

TTIPI-TTAPA ireki dut beraz, eta lehen orrietako iritzi artikulua irakurri ditut. Hemen bai, informazioa aurkitu dut, milesker «ttipi-kolaboratzailei». Mainer lantzik oparitu digun ipuin indiarrak nire arreta erakarri du. Irakurri gabe pasatu bazitzaizuen hura berreskuratzera animatzen zaituztet, ederra baita irakaspena eta hemen dakarten hausnarketak horixe baitu mintzagai, idazleak helburu zuen bezala. Hurrengo orrian Maitane Maritorea eta Eñaut Iparragirrenen artikulua datoz, aberasgarriak hauek ere.

Aipatu bezala gizartearen gehien-goia Covid-ak ekarritako arraildurei so dago, baina hauei ordu eta egunetan beha egoteak ez du deus ere konponduko. Hori bai, Maitanek eta Eñautek egin bezala pitzadura zerk sortu duen aztertzeak etorkizunerako irakatsi ahal digu zerbait. Bertze aukera Mainerrek proposatutakoa

da, kalteari zerbait ona ateratzen saiatzea, alegia. Ez naiz ni *la alegría de la huerta* erraten dena, baina bigarren aukera honi eustea erabaki dut.

Aipatu komunikabideek eta bertze hainbat gremiok egin ez duten bezala irakasleok ahal dugun neurrian gure lana egorara moldatu dugu, eskolako martxa jarraitzeko bide berriak irekiz, irudimena eta sormena askatuz. Baten batek (aukera duen aldirio gure oporraldi luzeak aurpegiratzen dizkigun horrek seguru aski) pentsatuko du handinahikeriaz solas egiten nabilela, hor konpon, entzun eta ikusi nahi ez duena bainoitsu eta gorragorik ez dago. Egonen dira kontrakoak ere, etxean gure lana hurbilagotik ikusteko aukera izanik gehiago baloratuko dutenak. Nire irakasle taldean behinik behin azken hilabeteen burua hautsi dugu umeen ikasketari jarraipena emateko eta batez ere beraien ongizate emozionalean pentsatuz proposamen dibertigarri eta entretenigarriak prestatu eta bideratzeko, etxeko itzalera eguzki-izpi batzuk bidali eta irri bat ateratzeko intentzioz, telebisitak egiten duen bezala pandemiak ekarritako oinazea uneoro gogorarazi ordez. Ez ote dugu nahikoa etxean sartuta egon behar honekin!

Gainerako denborari ere etekin positiboa ateratzen saiatzen nabil, eguneroko bizi-erritmoak eskaintzen ez digun denbora gitarrarekin eta irakurketarekin gozatuz, edo ikusten duzuen bezala bizitzan lehenengoz nire hausnarketa bat aldizkari honetan plazaratuz.

Beraz, *puta mierda* hau konpondu ezin dugunez, utz diezaiogun kalteak behin eta berriz zerrendatu eta komentatzeari eta lantzik ekarritako ipuinak erakutsi bezala aprobetxa dezagun eta loratu gaitezen.

## Eskertza

JUAN KARLOS GOROSTERRAZU ELIZALDEREN FAMILIA

Juan Karlos Gorosterrazu Elizalde apirilaren 9an hil zen, 58 urte zituela. Bere familiakoek, jaso ditugun WhatsApp-ak, bideoak, deiak eta mezuak eskertu nahi ditugu baita une gogor hauetan gurekin egon zareten guztiei ere eta min handia tikitzen lagundu gaituzuen horiei, bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu.

## Ezkurako Asun Zestau Juantorena gogoan

LAIENE ETXEBARRIA ABIÑA

BILBOKO ULIBARRI EUSKALTEGIKO IKASLEEN IZENEAN

Hainbat ikasle euskaldunok daramagu zure ahotsa buruan oihartzun,

Zalantzak non, Asun beti han!

Askok euskara ama hizkuntza bezala dute, beste askok, berriz, zu izan zaitugu.

Zorigaitzez, euskara zaintzaile aparta galdu du herri honek, eta

Zure berriak izanda denok sentitu gara umezurtz.

Zorionez, zuk osatutako familia sendoa da oso, eta

Prest gaude ordezkapena hartzeko.

Euskal Herriko irakaskuntza publikoaren goiburuak hauxe esaten du: *Eman eta zabal zazu*, eta zuk

hori egin zenuen hain zuzen ere, beti eskuzabaltasunez, hurbiltasunez eta alaitasunez.

Mila esker euskarari hegoak emateagatik,

ezagutu zaitugun guztiok nekez ahaztuko zaitugu.

Goian bego, Asun.

Hainbat maite zaitugun ikasle horiek.



## Trabak traba guraso izateko nahia errealitate

Joan den azaroan, haurdunaldi subrogatuaren bidez guraso izan ziren Xabier Maritoren eta bere bikotekidea. Hiru urte iraun duen prozesuaren nondik norakoak kontatu dizkio arraioztarrak TTIPI-TTAPARI eta bide batez, «bertze familia baten trataera» izateko duen ametsa ere aitortu digu

### G. PIKABEA ARRAIOZ

«Noizbait bertze familia baten trataera izanen duen familia». Hitzez hitz, horixe bera erranez aurkeztu digu Xabier Maritoren eta Zubieta (Arraioz, 1985) bere familia. Aitzolez, bere bikotekideaz, eta joan den azaroan sortu ziren Intza eta Aiuri alabez ari da. Harro mintzo da osatu duten familiaz, aita izatea «esperientzia ederra» izaten ari delako beretako, eta «libertate falta» sumatu arren, «Aitzolengandik eta nire eta Aitzolen familiengandik» jasozten dituen «laguntza eta inplikazio ikaragarria» nabarmendu nahi izan ditu. Argi dio «atseden uneak, lan handia, frustrazioak, irriak eta kezak» tartekatzen dituen honetan, «ez genukeela deusengandik aldatuko».

Dena, ordea, ez da berak desio lukeen bezalakoa. Horregatik erabaki du haurdunaldi subrogatuaren bidez guraso izateko bidean eta ondorengo topatu dituzten oztopoez solastatzea, garbi eta patxadaz, ahoan bilorik gabe.

### Aita izatea amets

Maritoren eta bere bikotekideak garbi omen zuten guraso izan nahi zutela: «Aitzol eta ni ez ginen 20 urterekin ezagutu. 30 urteren bueltan ginen eta ordurako, bai berak baita nik ere burua asentatua genuen eta bertze gauza anitzen artean, bagenekien nolabait aita izanen ginela».

Amets horri tiraka, «ongi informatuz» eman zuten haurdunaldi subrogatuaren aldeko pausoa. Informazioa jasotze-

ko lehendabiziko urratsa «gure prozesua bezalakoa egin zuten batekin egotea» izan zen; «Xabier Madariagarekin egon ginen, Bilbon». Lehendabiziko azalpen horiek aditu ondotik, agentzia batzuetara jo zuten, «horietako bat Bartzelonan. Kataluniako erreferendumaren asteburua ederki aprobetxatu genuen», gaineratu du Maritorenak.

Horien gainera, «Madrilen egindako kongresu bat» izan omen zen «gakoa»: «alde batetik, hainbat herrialdetako egoera esplikatuz hamarnaka agentzia zeuden, baina bertetik, eta denetan inportantea, hainbat hitzaldi eskaini zituzten». Guztien artean, arraioztarrak *Son nuestros hijos* (Gure seme-alabak dira) gestazio subrogatu bidezko

familien elkarteko bozeramailaren solasaldia eta «gestazio subrogatua egin zuten emakumeen testigantzak» oroimean geldituak ditu: «emakume horien bizi-esperientzia izan zen erabaki irmo bat hartzera bulkatu gintuena».

### 'Familia osatzeko bermea'

Adopzioa, harrera familiak... Guraso izateko izan zitzaketen aukeren artean «haurdunaldi subrogatuaren aukera zen familia osatzeko bermea eskaintzen zigun bakarra», azaldu du Maritorenak. «Lagun batzuek hamar urte bazituzten adopzioan izena emana zutela, eta oraindik ez dute familia osatu. Guk gazterik izan nahi genuen guraso eta familia bat osatuko genuenaren segurtasuna izan nahi genuen».



Whitney, Intza eta Aiuri besoetan, bere alaba ondoan duela. UTZITAKO ARGAZKIAK

«HAU ZEN FAMILIA OSATZEKO BERMEA ESKAINTZEN ZIGUN BIDE BAKARRA»

«HASERREA SORTZEN DIDATE APROBETXATZEN GARELA DIOTENEK»

### AEBra begira

Bidea aukeratua zutelarik, ekin zitoten hiru urte iraun duen prozesuari. «Gure aukerak bi herrialdetara mugatuta zeuden. Alde batetik, emakumeen eskubideak bermatzen ez dituzten herrialdeen inguruan ez ginen informazio bila hasi ere egin, gure alaba edo semea ez zelako haurdun geldituko zen emakume hori baino balioetsuagoa. Eta bertetik, herrialde batzuk bikote heterosexuak bakarrik onartzen dituzte. Gizon ezkongabeek ere ez dute aukerarik horrelako prozesu bat egiteko». Hala, Ipar Ameriketara jotzea erabaki zuten. «AEBko erregulazioa 80ko hamarkadan diseinatu zuten eta detailerik ttikiena ere finki analizatua dago».

Berak dioen bezala, «laburki» azaldu digu AEBn nola arautua dagoen haurdunaldi subrogatuaren afera: «emakume ezin daiteke edozein izan. Aitzinetik bere haurra izan behar du, erditze prozesu baten esperientzia ezagutu behar du. Bere egoera ekonomikoak ona izan behar du eta ezin du prozesu hau diru premiagatik egin. Obuluak ezin du berea izan, lotura genetikorik ez izateko. Psikologoekin hitzorduak izaten dituzte bere egoera emozionala aztertze eta azkenik, emakumeak bere mediku historialaren berri eman behar du, osasuntsu dagoela frogatzeko».

Prozesuaren kostu ekonomikoari dagokionez, berriz, «AEBn eta Washingtoneko estatuan 100.000 euroren bueltan» ibiltzen dela aipatu digu: «%60a ospitalearendako da, enbrioia sortzea, transferentzia egitea... Gero hango agentzia eta abokatuen gastuak daude eta bertetik, haurdunak ia urtebetez egindako esfortzua-rengandik konpentsazio bat hartzen du».

### Whitney ate joka

Arraioztarrak kontatu digunez, «Ipar Ameriketako estatu gehienetan, emakumeek bertze





Xabier Maritorea eskuinean eta Aitzol bikotekidea ezkerrean alabak besoetan, Whitneyekin eta haren familiarekin AEBn.

pertsona batendako haurrak izateko eskubidea aitortuta dute». Hala, Maritorenaren eta bere bikotekidearen kasuan haurduna izan zen ate joka joan zitzaiena: «gure haurdunak, Whitneyk, horrelako prozesu batean parte hartu nahi zuen. Bere familia erabat osatuta zuela argi zuen baina baita familia bat izatea munduko gauzarik ederrenetarikoa bat dela ere. Bere medioz familia bat osatu ezin zuen per-

sona edo bikote batendako haurra edukitzea erabaki zuen, berak bere larruan bizitako emozioa eta zirrara sentitzeko aukera eman nahi zion bertze bati». Horregatik jo zuen agentzia batera: «Gure profila Ameriketako agentzia horretan zegoen eta gure berri irakurri zuenean berehala erabaki zuen guretako haurra sabelean haziko zuela».

Bi aitek Skype bidez ezagutu omen zuten amerikarra eta

«berehalako konexioa sortu zen. Ez dakizu zenbateko antza dugun».

Geroztik berarekin izan duten lotura «goxoa» izan dela aitortu digu arraioztarrak: «asteen pare bat aldiz Whatsappez mezu luze bat idazten diogu elkarri. Gure alaben eta gure argazki eta bideoak elkarbanatzen ditugu, berak bere seme-alabenak, lagunak eta lantokikoak bidaltzen dizkigu. Beraien azkena senarrak eta

lagun batek egindako karaokea izan zen. Irri eginarazi zigun...».

### Gaia sakonki ikertzeko beharra

Lehen urrutiko kontua zena, gaur egun gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da, eta Euskal Herrian gero eta gehiago dira haurdunaldi subrogatuaren bidez sortutako haurrak. Hori bai, atzerrian jaiotako haurrak dira, hemen legez kanpokoak delako: Euskal Herrian, estatu espainiarrean eta estatu frantsesean debekatua dago. Herrialde gutti batzuetan baino ez da legezkoa. Horren harira, gaiaren inguruko «eztabaida sakonak behar direla» uste du arraioztarrak: «grazia egiten dit emakumearen pobrezia justifikatuz haurdunaldi subrogatuaren kontrako iritzia duen pertsona batek. Eta haserrea sortzen dit emakumeaz aprobetxatzen garela erraten duten horiek ere». Argi eta garbi dio: «haurdunaldi subrogatuak mundu mailan mila aurpegi ditu. Ados nago herrialde batzuetan praktika hau abolitzearekin, baina bertze estatu anitzetan bermeak daude». Hortik abiatuta «informazioa guztia batu eta solas egiteko» deia luzatu du: «benetako informazioa esku tartean dugunean erabaki dezagun gure herrialderako nahi dugun edo ez».

Zer egina badagoela sinetsita dago Arraiozko aita. «Gaiaren inguruko ustelkeria transmititzen duten albiste anitz aditzen direla» ere kontatu zuen bere garaian ТІПІ-ТТАПАН eta horixe bera berretsi du orain ere: «komunikabideek morboa sortzen duten gaien inguruan aritzeko behar ikaragarria dute. Albistegi osoa ikus dezakegu bortxaketa, hilketa, lapurreta, istripu eta halakoez bakarrik solastatzen. *Salvame* bezalako zaborretatik jendeak informazioa barneratzen du edo ezkertiarrek (edo eskuindarrak) diren medioek ere mezu populistak zabaltzen dituzte haurdunaldi subrogatuaren inguruan mintzatzen →

—> direnean». Bere irudiko, «horiek denek, izan haurdunaldi subrogatua edo izan bertze gairen baten inguruan, alderik makurrena erakusten dute eta hortik, nola ez, iritzi ezin txarragoak gara ditzake jendarteak».

**Gaizki-ulertuak hemen**

Gizartean eta bereziki gure eskualdean ere «gaia ez dela erabat ongi ulertu» uste du arraioztarrak. Aitortu digunez, «belarrian min» egiten dio «sabel-alokairua» aditzen duenean: «Guk ez genuen emakume bat alokatu, ezta gutiago ere. Whitneyk ez zuen gorputza alokatu eta ez dut onartzen berari buruz horrela solastatzea». Gaineratu duenez, «horregatik erabaki nuen el-karrizketa honetan parte hartzea, nire ekarpena egin nahi nuen». Bere hitzetan, «pertsona bakoitza librea da nahi duena pentsatzeko. Nik nire esperientzia plazaratu dut gaiaren inguruan bakoitzak izan dezakeen iritzian nire aletxoa emateko».

**Eta legezkoa ez izatea ezin ulertu han**

Hemen gaia normalizatua ez badago ere, AEBn bertzelakoa da egoera eta horren berri ere eman nahi izan du: «AEBko egonaldian Whitneyren lagunek, barrideek, medikuek eta erizainek Whitneyrenganako miresmena adierazten zuten, guri familia izaten lagunduz zerbait ikaragarria egiten ari zela pentsatzen dutelako». Gehiago ere aitortu digu: «estatu espainiarrean zergatik ez genuen egin galdegiten zigutenean eta guk legez kanpokoa zelako erantzuten genienean, pentsakor gelditzen ziren. Ez zuten ulertzen nola zen posible legezkoa ez izatea. Gu izaten ginen zergatia esplikatzeko saiatzen ginenak baina, hala ere, ez zuten ulertzen».

**Oztopoak nonahi**

Gaia ulertu edo ez ulertzetik haratago, bertzelako oztopoe-



Intza eta Aiuri joan den azaroan sortu ziren AEBn. UTZITAKO ARGAZKIAK

kin ere topo egiten dute haurdunaldi subrogatua aukeratzen dutenek. Gurasotasun baime-na, prestazioak... Hor ere paretarekin parez pare. «Adopzioaren kasuan atzerriko herrialdera joateko ordaindutako hilabete baimena duzu. Espainian haurdunaldi subrogatua legez kanpokoa denez, eskubide hori ez duzu aitortua. Pentsa, haurrak sortzeaz eta zu milaka eta milaka kilometrotara».

Hezkuntza Departamentuan ere ibili zen: «nire borroka hasi nuen. Ate anitz jo nituen baina denak itxi zizkidaten, gutun bat jaso nuen arte saiatu nintzen. Gutunean bide administratiboa erabat itxi zidaten, nire eskaria albo batera gelditu zela adieraziz». Hori aski ez, eta «orain gizarte segurantzarekin bueltaka» dabiltzala kontatu digu: «badira borts hilabete haurrak sortu zirela eta oraindik ez dugu baimenik kobratu. Ordainduko dute, bai baina traba trabaren gainean aurkitzen dugu».

**«BELARRIAN MIN EGITEN DIT SABEL-ALOKAIRUA ADITZEAN»**

**Politikoei mezua**

Ordezkaririk politikoei ere kexu dira. Hori izan omen da haurdunaldi subrogatuaren bidez seme-alabak izan dituzten familia gehiagorekin harremanetan jartzeko arrazoia. Maritorenak dioenez, «zoritarrez» hartu dute bide hori. Izan ere, «aitzineko batean Nafarroako Parlamentuko kide diren ia gehienek astakeria itzelak erran zituzten gure familia ereduaren inguruan. Okerrenak PSN-ko Nuria Medinaren solasak izan ziren, haurdunaldi subrogatuaren bitartez gu bezalako gurasoei puteroei bezalako jazarpena egin beharko litzai-gukeela erran zuen, seinatuak izan beharko genukeela». Halako adierazpenen ondotik erabaki zuten antolatzea: «bertze guraso batzuekin elkartzen hasi ginen eta parlamenturako bidea hartu genuen».

**Familia bat baino gehiago**

Oztopoak oztopo aitzinera begiratzen du Maritorenak eta

**«GURASO IZATEA BIZITZAKO ERABAKI GARRANTZITSUENA IZAN DA»**

«guraso izatea gure bizitzako erabakirik garrantzitsuenak» izan delako, «gozatu» egin nahi du: «disfrutatu, haserretu, maitatu...», hitz bakarrean, «bizi». Momentu politiko oroi-menean iltzatuak ditu eta horiek betirako gordeko ditu. Ez du ahantzia, erraterako, «alabak mundura etorri zireneko lehenbiziko negarra». Onartu digunez, «oraindik ere begiak malkoz betetzen zaizkit. Orduan baneratu nuen aita naizela».

Eta gehiago ere bai. Prozesu honek guztiak gehiago ere eman die: «Intza eta Aiuri azaroan sortu ziren. Eguberriak Ameriketara pasatu genituen burokrasia pila bati aitzin egin behar izan geniolako. Whitneyk Eguberrietako afaria berarekin batera ospatzeko gonbidapena egin zigun eta guk, nola ez, onartu. Gure Ameriketako etxera bueltatu aitzinetik opari bat egin ziguten, erreportaje honetan erabilitako argazkiekin batera, eskuz egindako koadro bat, mezu batekin. Orain familia gara zioen mezua eta hori da gu beraien-dako garena eta hori da beraiek guretzako direna. Bi alabekin bueltatu ginen eta hortaz aparte, orain Ameriketara bertze familia bat dugu».

# Zaindu maite duzun hori...



## Kalko ustelak

\* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### AUTOBUS BERDINEAN ETORRI ZIREN ala AUTOBUS BEREAN ETORRI ZIREN

Ez dira gauza bera autobus berdinean etorri ziren eta autobus berean etorri ziren. **Berdin** izenlagunak elkarren antza duten gauza bi edo gehiago adierazten du; **ber(a)** erakusleak, berriz, gauza bakar beraz ari dela.

-Zure amak eta nireak auto **berdina** erosi dute badiogu, auto igualak erosi dituztela diogu; bi auto daude aipamenean, bakoitzak berea erosi du eta.

-Zure ama eta nirea auto **berean** etorri dira erraten badugu, aldiz, auto bat bertzerik ez dago.

Hona hemen bertze adibide batzuk:

- \*Egun berdinean joan ziren oporretara.  
> Egun berean joan ziren oporretara.
- \*Eskola berdineko ikasleak gara > Eskola bereko ikasleak gara.
- \*Atzoko mutil berdina etorri da ate joka.  
> Atzoko mutil bera etorri da ate joka.
- \*Nereak eta Eneritzek arropa bera daramate.  
> Nereak eta Eneritzek arropa berdina daramate.

## Solas-zopa

### Nola erraten duzue 'bukatu' zuen herrietan?

Bilatu hemen: **AKITU** | **BUKATU** | **AKABATU** | **AMAITU** | **AHITU** | **FINITU**

R	G	F	I	M	Q	W	O	Z	J	S	S	G	B	U	K	A	T	U	B	L	U
D	N	I	E	A	A	M	A	I	T	U	R	I	F	H	K	L	J	Q	C	A	P
C	U	N	Y	A	I	P	Z	I	Q	T	Q	A	K	I	T	U	K	J	A	K	I
M	M	I	D	L	Q	D	H	S	M	W	R	H	A	E	F	Y	C	T	A	A	Y
K	V	T	E	L	Z	Z	Z	H	V	P	F	I	R	L	U	G	D	I	P	B	D
I	O	U	F	Z	L	Z	K	Y	E	I	O	S	G	I	O	Y	B	Y	Z	A	Y
I	Z	S	U	U	L	P	M	H	B	G	I	E	E	B	J	P	U	I	L	T	C
L	T	T	A	H	I	T	U	K	M	B	K	F	V	D	F	A	B	Z	K	U	C
W	T	M	V	J	H	D	G	S	K	W	K	D	Y	C	O	F	Y	L	R	G	C

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

[info@ttipi.eu](mailto:info@ttipi.eu)

744 48 43 61

## Bi euroren gaztainak ala bi euroko gaztainak?

Euskaltzaindiak ez du berariazko araurik **-ko** eta **-en** izenlagunen inguruan. **NON-GO** eta **NOREN** galdetzaileen erreferentzia kontuan hartzea beharrezkoa dela dio **-ko** edo **-en** atzikia erabili behar den jakiteko, baina kasu aunitzetan biak zilegi dira eta errealitatea konplexuagoa da.

Oro har, **-ko** izenlagunak kokapena adierazten du. Eta **NONGO** galderari erantzunez, denbora, jatorria, baita helburua adierazteko balio du: herriko karririk, ikasturteko ateraldiak, matematikako zailtasunak, Etxalarko Udala, laneko tresna, buruko mina...

**-en**, berriz, jabetza eta **NOREN** galderari erantzuteko erabiltzen da: amaren autoa, liburuaren itzulpena, atorraren mahuka, animaliaaren luzera, aitaren argazkia...

Bertze batzuetan biak zilegi dira baina erranahia diferentea da:

**Euskal Herriko historia:** Euskal Herriari gertatutako historia da / **Euskal Herriaren historia:** Euskal Herria subjektu duen historia da.

**Elizako isiltasuna** (eliza eraikinean dauden isiltasunaz ari da) / **Elizaren isiltasuna** (eliza erakundearen isiltasuna)

**Hogeita hamar euroren gasolina:** hogeita hamar euroren truke ematen dutena.

**1,12 euroko gasolina:** litroak 1,12 balio du.

**Bi euroren gaztainak:** bi euroren truke ematen dituzten gaztainak.

**Hamalau euroko sagardoa:** botilak edo dena delako unitateak 14 euro balio du.

## Baztan-Bidasoko XXXIII. Bertsopaper lehiaketa abian

Lanak maiatzaren 4tik 15era arte aurkezten ahal dira eta, bizi dugun egoeraren ondorioz, zenbait aldaketa izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso Eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Baztan-Bidasoaldeko 33. Bertsopaper Lehiaketa antolatu dute, Baztan-Bidasoa inguruan bizi direnentzat. Konfinamendu garai hau ahalik eta hobekien eramateko asmoz aldaketa ttiki batzuk egin dituzte eta lanak bakar-bakarrik e-mailez bidaltzen ahal dira maiatzaren 4tik 15era, [kultura@bera.eus](mailto:kultura@bera.eus) helbidera.

Euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dira bakarrik. Ohi bezala, parte hartzaileak lau mailatan banatu dituzte: A maila: 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi kopla osatu beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 50 euro (lehenengoak) eta trofeoa eta 30 euro (bigarrenak). B maila: (11-14 urte) Bi bertso edo lau kopla egin behar dituzte guttienez. Saria: trofeoa eta 100 euro irabazleak eta trofeoa eta 70 euro bigarrenak. C maila:

(15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte guttienez. Saria: trofeoa eta 150 euro lehenengoak eta trofeoa eta 120 euro bigarrenak. D maila: 18 urtetik goiti. Guttienez 8 bertso egin beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 200 euro garaileak eta trofeoa eta 150 euro bigarrenak.

### Lanak e-mailez bakarrik eta PDF formatuan

Bertsoak PDF formatuko artxibo batean erantsita bidali beharko dira. Gaietan, *Baztan-Bidasoko XXXIII. Bertsopaper Lehiaketa* paratu beharko da eta mezuaren gorputzean ondoko datu hauek paratu beharko dira: izen-abizenak, maila, adina, bertsoaren izenburua eta telefonoa. PDF artxiboan, bakar-bakarrik izenburua, maila eta bertsoak agertu beharko dute, ezin izanen dute izen-abizenak agertu.

Epaimahaia Bortzirietako Bertso Eskolak izendatuko du. Sariak egoerak baimentzen duenean entregatuko dira eta horren berri emanen dute antolatzaileek.



Joan den urtean ferratze-erakustaldia eskaini zuten ferian. ARTXIBOKOA

## Azienda feria eta hilabeteroko bertako ekoizleen merkatua bertan behera

### TTIPI-TTAPA

Koronabirusa dela eta, sortu den egoerak eraginda, lehenbiziko sektorearekin lotuak dauden ekitaldiak bertan behera gelditu dira Beran. Hala nola, apirileko azienda feria eta hilabeteroko bertako ekoizleen merkatua.

Azienda feriarik dagokionez aurten, apirilaren 25ean bosgarren ekitaldia antolatzeko prestaketak hasiak baziren ere, bertan behera uztea bertze erremediorik ez dela izan jakinarazi dute Udaletik. «Aurtengoan ez da feriarik izanen eta datorren urterako utziko da. Pena da egun hagitz polita izaten delako herriko eta inguruko azienda ikusteko aukerarekin eta bertako produktuak erosteko modua izanik», diote oharrean.

Hilabeteroko merkatuari dagokionez, momentuz ez

egitea erabaki dute, segurtasun neurriak betetzea ez delako erraza eta jendearen joan-etorria ere ez delako ohikoa.

Egoera hobetu ahala berriz ere merkatua martxan jarriko dute eta bitartean «bertako produktuak eskuratu nahi izanez gero inguruko baserri-tar eta ekoizleekin zuzenean harremanetan jartzea da modua, etxetik zuzenean egiteko salerosketa. Herriko dendetan ere topatu daitezke elikadura osasuntsu bat eramateko bertako produktu ekologikoak».

Orain inoiz baina gehiago beharrezkoa ikusten dute produktu osasuntsu, ekologiko eta bertakoak kontsumitzea. «Gure osasunean eragin zuzena du jaten dugunak eta horrelako gaitzen aitzinean indartsu egoten laguntzen digute produktu hauek», dio udalaren oharra.

Astelehenetik ortziratera: 07:15etik aitzinera  
**LABE ZAR**  
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA

**ANTZUZELAI**  
S.L.  
BERA • T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com  
www.antzuzelai.com

HARGINTZA  
FATXADAK  
TXIMINIAK  
ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK  
OBRAK

**Auzoa GO!**  
Etxez etxeko zerbitzua  
BERAn eta LESAKAN  
ESKAERAK:  
www.auzoago.com • T. 948 631 509

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**FRANCOIS VARELLOTTA**  
**FRANCOIS VARELLOTTA, S.L.**  
FRANCOIS VARELLOTTA  
BILTEGIA: 948 630 102  
SAKELAKOA: 633 480 563  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

## Pertsona nagusien artean solasteko doako telefonoa


Zilarrezko Haria zerbitzua eskaintzen du NagusilaneK, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Elkarriazekin

### TTIPI-TTAPA

Koronabirusaren ondorioz bizi dugun egoeraren aurrean, NagusilaneK bakardadean aurkitzen diren adineko pertsonen laguntzeko doako telefonoa indartu du. 900 713 771 telefonoa doakoa da, eta bakardadean dauden adineko pertsona guztiek erabil dezakete, hitz egin eta entzunak izan nahi badute. Izena eta telefonoa erantzungailuan utzi ahal izanen dituzte, eta elkarte boluntarioek ahalik eta lasterren deituko diete. Nagusilan elkarteak bi urte

daramatza Bortzirietako Gizarte Zerbitzuekin eta Elkarriazekin Laguntza Emaile Taldearekin elkarlanean eta hortaz, bortziritarrek ere erabil dezakete zerbitzu hau doan. Horrez gain, 688 741 451 telefonora deitu dezakete 10:30etik 14:30era, edo Whatsapp-mezu bat bidali.

Pertsona adinduak identifikatuta dituzten edozein arlotako profesionaleri ere zuzendu die deialdia: hitz egiteko beharra duten adineko pertsonak ezagutzen badituzte gure boluntarioekin harrema-



Bakardadean dauden adineko pertsona guzietan zuzendua da zerbitzua. ARTXIBOKOIA

### «ENTZUTEKO ETA LAGUNTZEKO PRESTAKUNTZA JASO DUTE»

netan jartzera animatzen diegu. Zerbitzua [hilodeplata@nagusilan.org](mailto:hilodeplata@nagusilan.org) helbide elektronikoaren bidez eska dezakete.

Helburuak emozionalki laguntzea eta konfinamendu-orduetan solasaldi atsegina izatea dira. Akonpainamendu guztiak NagusilaneK boluntarioek egiten dituzte; izan ere, urteak daramatzate bakardadean dauden pertsonen laguntzen, eta entzuteko eta laguntzeko prestakuntza jaso dute. Zerbitzua erabat doakoa da, eta dagoeneko martxan dago.

### Etxealdia nerabeekin: aholkuak

Nerabeek (12-18 urte inguruko neska mutikoek) berezkoak dituzte lagunekin egoteko beharra: hauek lehenestea familiaren aitzinetik. Gurasoetatik desberdintzeko garaia dute, konfrontazioa erabiliz aunitzetan. Teknologia berriek berezko presentzia dute beraien egunerokotasunean. Orain derrigorrez dena gelditu zaigun honetan familia giroan eta etxean gaude. Eta berez, nerabe batekin elkarbizitza erraza ez bada, elkarbizitza derrigortua denean, helduona izaten segituko du familia egoeraren ardura, eta helduok jakin behar dugu edo saiatu bederen, elkarbizitza baketsu bat mantenduarazteko giroa sortzen eta aukerak eskaintzen. Horretarako oinarritzko aspektu batzuk aintzat hartzeko:

- Ordu-tegi/ohitura bat izatea ongizatea da, eta batez ere gauak atsedenerako erabiltzen badira. Hortaz, lo aintzineko momentuetan teknologia berriekin logelan ez aritzearen garrantzia oroitarazi nahi dute.
- Sasoi honetan gorputzek eta umoreak berezko aldaketak izan ohi dituzte; hortaz elikadura orekatua eta gorputzaren mugimendua mantentzea ere lagungarri izanen dira.
- Ikasketen alorrean irakaslegoarekin komunikazio hurbila mantentzen saiatu, denentzat egoera berria izaki dudak eta ezinak edozeini suertarazten ahal baitzaizkio.
- Teknologia berriak, erabileraren arabera onura edo arriskuak sorraraziko ditu. Baina argi izan behar dugu, garen egoeran, harremanak eta komunikazioa mantendu eta aberasteko tresna baliagarriak izaten ari zaizkigula.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
 SUMINISTROS CARROCEROS

[www.ibargoyen.net](http://www.ibargoyen.net)    **943 616 587**  
**Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN**

## Tasa eta zerbitzuen kobraketa aldatuko du Udalak

Haur eskola eta igerilekuko kuotak ez dira kobratuko apirilaren 1etik ireki arte, bai, ordea, musika eskolakoa

### AITOR AROTZENA

Udalak bando bidez jakinarazi duenez, COVID-19 koronabirusaren egoeraren ondorioz, hainbat jarduera eta zerbitzu publiko itxita daude martxoaren 13az geroztik. Ondorioz, bizilagun eta erabiltzaileek ezin izan dituzte instalazioak erabili eta Udalak zerbitzu publikoa emateari utzi dio. Honela, jakinarazi duenez, tasa eta prezio publikoak kobratu eta itzuliko dira kasuaren arabera.

Haur eskolari eta igerilekuen instalazioei dagokienez, 2020ko apirilaren 1etik, eta zerbitzua hasi eta ireki arte, ez da kobratuko. Martxoko tasaren zatia konpentsatuko da.

Musika eskolari dagokionez, aldiz, martxoko eta ondorengo hilabetetako tasa osorik kobratuko da, zerbitzua ematen ari direlako, nahiz eskola itxita egon. Terrazei dagokionez, urte bukaeran tasa biratuko da, COVID-19aren eraginez ostatuak itxita egon diren denbora kenduta.

Udalak diru kopururen bat itzuli behar badu, interesdunak

Udalarekin zorrik ote duen ikusiko da, eta hala balitz, hau konpentsatuko da.

### Zirkulazio zerga

2020ko zirkulazioaren gaineko zerga ordaintzeko epea otsailaren 14an hasi zen. Borondatezko ordainketa egiteko azken eguna martxoaren 31 zen berez, baina jasaten ari garen egoera dela eta, zirkulazio zerga ordaintzeko epea, ekainaren 30a arte luzatu da. Data horretatik aitzinera, eta Agentzia Exekutibora bidali arte, %5eko errekaraguarekin kobratuko da.

COVID19aren ondorioz, arropa bilketaren zerbitzua ez dagoela martxan eta egun hauetan zerbitzu hori ez dela emanen ere jakinarazi du Udalak. Horregatik, etxeetan sobera duzuen arropa momentuz etxean gordetzeko eskatu du.

Garai honetan egin beharreko zenbait ekitaldi (Tanti-rudantza, Txistulari Gazteen Topaketa, Salva Yanci Memoriala...) bertan behera gelditu direla ere jakinarazi dute.



UTZITAKOIA

## Desfibriladore berriak paratu dituzte

«Denon osasuna delako garrantzitsuena», desfibriladore berriak paratu ditu udalak herriko zenbait puntutan. Zehazki, Mastegi futbol-zelaiaren kanpoko aldean, udal kiroldegian, udal pilotalekuaren kanpoko aldean eta albinteen autoan. Ea ez den erabiltzeko beharrik.

## Bestetako kartel eta programaren azal eta kontrazal lehiaketak deitu dituzte

### TTIPI-TTAPA

2020ko Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea maiatzaren 8ko 13:00etan bukatuko da, lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz. Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 250 euroko bonua eramanen dute, ostatu, denda eta zerbitzuetan gastatzeko.

Bertze aldetik, gibeledako azala aukeratzeko, Lesakako ikastetxeetan ikasten ari diren 6

urteko 12ra bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. Hauen lanak ere maiatzaren 8rako aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Irabazlearentako saria, eskolako materiala erosteko 100 euroko balioa duen taloia izan da, eta irudia programaren gibeledako azalean argitaratzea, noski.

Lanen erakusketa maiatzean egingen da. Bestak noiz izanen diren oraindik ez da segurua, baina sariak emanen direla ziurtatu du Udalak.

**IRU-BIDE**  
OSTATU • JATETXEA  
Arratzubi Kalea 3  
31770 LESAKA  
T. 948 63 71 27

DenakBat  
Hemen erabili  
**kattagorria**  
LESAKA  
948 627 514  
www.kattagorria.com

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
T. 948 637 826

744 484 361  
**ttipi-ttapa**

**Jauriena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantenu lanak

Etzetresnen salmenta, instalazioa  
eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

# «Gehiago kezkatzen nau ingurukoak eritzeak»


**IÑIGO ALZUGARAI LEGAZKUE** BAZTAN-BIDASOA ANBULANTZIAK-EKO LANGILEA

Koronabirusa kutsatzeko aukeratik «hurbil» daudela jakitun, ambulanzietan ere segurtasun neurriak zorroztu behar izan dituzte. Ohiko harat-honataz alde batera utzita ari dira lanean.

## G. PIKABEA

Hutsik daude karrikak, hutsik errepedeak. Iñigo Alzugarai Legazkue lesakarrak, ordea, lanean segitzen du, premiazkoa baita bere egitekoa, ambulanziarekin ibiltzea. Lanean bai, baina ezohiko egoeran ari da. Alde batetik, «higienea zaintzeko neurriak gogortu» behar izan dituzte, «ambulanzian edozein ibiltzen dela ere, desinfektatu egiten dugu», eta bertetik, eguneroko martxa «aldatu» zaie.

Bi lantalde dituzte Baztan-Bidasoa Anbulantziak-en: larrialdietan aritzen direnak batetik, eta egunerokoan errehabilitazioetara, kontsultetara edota tratamenduetara joan behar izaten duten pazienteen harat-honatez arduratzen direnak bertetik. Bigarren horretan aritzen da lesakarra, 2011z geroztik, eta ezaguna du lanbidea. Kontatu digunez, koronabirusaren era-



2011z geroztik ambulanzietan ibiltzen da Iñigo Alzugarai lesakarra.

ginez, ezohiko egoeran ari dira: «errehabilitazioak eta kontsultak bertan behera utzi dituztenez, halako bidaiak jaitzi egin dira, baina pazienteak bereizita eramaten ditugunez lan

faltarik ez dugu». Honela kontatu digu: «lehen zahar etxetatik eta etxe partikularretatik ospitaletara joaten ziren pazienteak elkarrekin eramaten genituen ambulanzian, baina

orain bereizita eramaten ditugu, bi ambulanzietan». Hori guztia segurtasuna bermatzeko. Bide horretan, «Iruñea aldean, espresuki koronabirus kasu posibleekin ibiltzeko ambulantziak paratu dituztela» azaldu digu.

Hortik aparte, «lehen ez bezala, bai pazienteak baita gu ere maskarekin eta eskularruekin» ibiltzen omen dira. Oraingoan, koronabirusen positibo eman dutenekin lan egitea ez zaio tokatu. Hala ere, «hala balute bezala jokatzeko» dutela aitortu digu, neurriak hartuz. Arriskutik urruti ez dagoela ere badaki: «hor gauden, arriskutik hurbil», dio. «Gainera, normalean ez dugu jakiten pazienteak kutsatuta dagoen edo ez. Horregatik hartu ditugu neurriak, nahiz eta batzuetan denak eskas izaten ahal diren». Edozein moduz, bere buruari baino gehiago begiratzen die ingurukoak: «gurasoak eta familiakoak, lagunak... Neure burua kutsatzeko baino gehiago kezkatzen nau ingurukoak eritzeak».

Gainerakoan, «larrialdi kasuak beti» badirela azpimarratu duen arren, «jendeak medikura joaterakoan gehiago esperatzen» duelakoan dago, «medikuek ere hala diote». Bere ustez, «errepedeak eta herriak hutsik» izatearen seinale da «jendea egoeraren larritasunaz kontziente izatea. Ez nuke erranen jendea izutua dagoenik, baina koronabirusari errespetua diola uste dut».



**PRIM, c.b.**  
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN




*gaueko konfort-kuxina*




 Centro Prim  regina tolosaechepare



JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

*Andueza e Iriarte, SL*

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA  
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

# ETXALAR



Behekolanda inguruan paratu dute ekipamendua. UTZITAKOA

## Ariketa fisikoa egiteko tresnak Behekolandan

Atseden hartzeko aulki eta mahaiak zeuden eremuan dago ekipamendua

### IRUNE ELIZAGOIEN

Erreka bazterrean, besoekin eta hankekin ariketa fisikoa egiteko eremu bat prestatu dute Behekolandan. Ekipamendua Gizarte Zerbitzuak

FEDERen dirulaguntzarekin erosi du eta udalak paratu du Behekolandako eremu horretan. Konfinamendua bukatu zain daude herritarrek eremu berri hau probatzeko.

## Herriko Ostatuak etxez etxeko zerbitzua eskaintzen du

### TTIPI-TTAPA

Bizi dugun egoera dela eta, normaltasunez ostatua idekitzea ezinezkoa bada ere, Herriko Ostatuak etxez etxeko

banaketaren bidez zerbitzatu ditu herritarrek ortziralde, larunbat eta igande arratsetan, 19:00etatik 22:00etara. Txartelarekin kobratuko dute.



IRUNE ELIZAGOIEN

## Mozorroak, pintxo-potea eta oporrak

Landagain eskolako guraso elkarteak antolatutako hiru erronka gehiago burutu dituzte herritarrek: mozzorrotuta etxean, ortziraldeko pintxo-potea eta opor leku gustukuena irudikatzearena. Bildutako argazki guztiekin egindako bideoak Youtuben ikusgai daude.



BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

## Edukiontzi marroiak organikorako

Koronabirusak eragindako egoerak irauten duen bitartean, auzo-konpostaguneak itxita egonen dira baina edukiontzi marroiak jarri dira materia organikoa bereizten segitu ahal izateko herri sarrerako aparkalekuan, Antsolokueta auzoan, Andutzetako aparkalekuan eta Jauregieta karrikan.



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

· BOLETIN INDUSTRIA  
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA



**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
zubiondojatetxea.com



**Luis Ibarra**

GAUR EGUNERA  
EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK



**ZURGIN-LANAK OROKORREAN**  
**636 701 204**  
Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)  
ibarrazurgina@gmail.com





Hostoek Ekaitza aldean izan duten bilakaera ageri da. Erreparatu koloreari. J. R. AMOROS

## Natura miresteko eta babesteko modu bat

Youtubeko bere kanalean Arantzako naturaren eta faunaren irudi ederrak zintzilikatzen ditu Jose Ramon Amorosek

### NEREA ALZURI

Naturazalea da Jose Ramon Amoros Oskoz. Gaztetxotik hori du pasio eta herriko nahiz herritik kanpoko inguru eta faunak liluratzen dute. Azken urteetan Youtubeko kanala du eta hondar hilabeteetan, urrutira joan gabe, Arantzako naturari eta faunari loturiko irudi ederrak partekatu ditu erabiltzaileekin. Garaian-garaikoa erakutsiz ere bere lanekin: errate baterako, ardia umatzeko tenorean bildots baten jaiotza eta ondorengo minutuak, txetel, kuku eta erbiarekin batera. Berriki egindako bertze bideo batean, neguaren akabailarekin batera, orkatz arren adar berrien lekuko ere izan zen.

Ordu aunitzetako lana dago bideo interesgarri horien gibelean eta ikasgai ederra guztiontzat bertako faunari buruz. Bejondeizula, Jose Ramon!

Bertzalde, Ekaitza mendia-  
ren panoramika ikusgarri hauek ere atera ditu Jose Ramonek. Pagoen hostoak ateratzen hasi zirenetik, egunetik egunera, behetik goiti hostoek izan duten hedapena eta bi-



Amorosen Youtubeko irudi batzuk.

lakaera ikusten da. Berak adierazi bezala, lehenbiziko argazkitik (apirilaren 10ean ateratakoa) laugarren irudira (apirilaren 18an egina), zortzi egun bertzerik ez dira pasatu eta paisaia aldaketa nabarmena izan da. Gaineratu duenez, aurtengo eguraldi epelarengatik bi aste aitzineratu da. Normalean, apirilaren azken astean jauntzen baitira berdez mila metroko altitudetan dauden goieneko pagoak.

## ESKUTITZA

SALVADOR MADARIAGA, SECUNDINA BERGARA  
ETA EGUZKIALDEKO SIMONENBORDAKO FAMILIA GUZTIA

### Eskerrak aunitz, bihotzez

Hiru hilabete eskas pasatu dira baserria erre zitzaigunetik. Ez dugu atzendua urtarrilaren 3a, ezta aise atzenduko ere, ustekabeko suak baserria erre baitzigu. Baina aste hauetan, poliki-poliki, berritze lanetan ari gara. Baserria berriz altxatzeko ilusioa gurekin dugu eta ilusio horrek eta hartu dugun laguntza ikaragarriak horretan laguntzen digu. Hitzak ez ditugu aski hartu dugun elkartasun guztia eskertzeko. Hortaz, lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bertzerera lagundu diguzuen guztiei. Bizilagunei eta herritarrei, baita Bortziritako eta bertze txokoetatik ekonomikoki, babesa erakutsiz edo auzolanean lagundu diguzuen guztiei ere, bihotz-bihotzez eskerrik beroenak. Hunkituta gaude hartu dugun animo eta laguntzarekin. Bide batez, baserria erre zen egunean hurbildu ziren herri-  
tar, suhiltzaile, mediku eta erizainei ere eskertu nahi diegu.




ARANTZAKO HERRI ESKOLA

### Eskolako lagunen animoak

Aste batzuk pasatu ditugu, etxean eta egun hauetan etxeko ttikikienek arnas pixka bat hartzeko aukera izanzen dute kanpoan. Eskolako ikasle eta irakasleek *Dena ongi aterako da* leloarekin egindako bideoan, itxaropenez beteriko hainbat argazki, irudi eta mezu daude. Aupa zuek!

### Edukiontzi marroiak paratu dituzte

Alarma egoeran auzo-konpostaren zerbitzua bertan behera gelditua denez, materia organikoa bereizten segitu ahal izateko, edukiontzi marroiak paratuak dituzte herriko lau tokitan.





Isabel Errandoneak etxez etxeko banaketa zerbitzuaren bidez ari da lanean. UTZITAKOIA

## Balkoietako edertasuna loratuz

Etxealdian atariak eta balkoiak apain-apain izateko etxez etxeko zerbitzua abiatu dute Lesakako Beko Landareak loradendan

### N. BAZTERRIKA | LESAKA

Balkoizaleak ez zirenak ere balkoizale bihurtu ditu koronabirusak. Musika entzuteko, barridearekin solas egiteko, inguruan proposatutako erronka, jolas edo esker oneko txalo zaparradetan parte hartzeko... herritarrek gero eta denbora gehiago pasatzen dute balkoietan. Inoiz baino erabiliagoak eta ikusiagoak diren honetan, toki atsegina eta eder bihurtzeko badu bere garrantzia. Herriko karrketan lorarik eta kolorerik falta ez dadin, buru-belarri lanean ari da Beko loradenda-ko Isabel Errandonea.

### Eskaera kopuruak goiti

Birusak «dena» aldatu badio ere, hasierako hamabortz egunetako etenaren ondotik, egoerara egokituz ari da lanean: «lehendabiziko bi asteetan landareak zaintzen bakarrik aritu ginen eta bezeroei saldu gabe aritu ginen lanean. Holandatik eskaera larunbatean jaso genuen eta egun horretan bertan ixte agindua jaso genuenez, loradendetara saltzen genuena ezin atera gelditu zitzaigun. Landare loreduen batzuk hondatu zitzaizkigun...». Horri, hein batean bederen, irtenbidea emateko aukera

izan bazutela jakin zutenean, «deiak hartu eta etxetara eramaten» hasi ginen.

Lehenago ere banaketa gutti batzuk egiten zituzten arren, eskaerak ezohikoak ziren: «bakarren bat izaten zen, etorri ezin zuelako edo... eta eramaten genion». Orain, berri, hori dasalmentarako bidea. Are gehiago, «apiril hasieran» abiatu zuten etxez etxeko zerbitzuari esker «arrant» aldatu zaie egoera: «hasieran goizetan eskaera batzuk izaten genituen, orain egun guztian horrekin ari gara... gure buruari mugak paratzen dizkiogu, bi gara eta lan bikoitza du eta ezin dugu dena egun berean banatu».

### Lan gehiago, irabazi guttiago

Zalantzarik gabe, honek ez die aitzineko urteetan izan dituzten salmentak orekatzeko bide eman: «jendeak ezagutzen duena bakarrik eskatzen du eta ez da gauza bera hona eto-

rri, ikusi eta eramatea...». Etxera eramateak lan eta denbora gehiago eskatzen die saltzaileei, eta irabaziak ez dira inondik inora lehengoak. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era telefonoz jasotzen dituzte eskaerak eta ordena hori errespetatuz egiten dute banaketa: «bezeroei banaketa eguna ez diet zehazten, ahal dugun bezala egiten dugu... Kamioiak ere ez dira lehengo maiztasunaz etortzen eta horrek ere baldintzatzen du».

### Haziak eraiten

Loreen artean «geranioak, huntzak, sesamoak...» dira salduenak: «negu gogorra egin ez duenez, ez nuen huntz aunitzik salduko genuenik uste, baina aurkakoa gertatu da». Dena den, landareek loreek baino arrakasta handiagoa izan dute. Tomatea, erraterako, tenore bete-betean harrapatu du baina baratzekeo eskaerak «orain artean bezalatsu» saltzen ari dira: «berriki arte ez ziguten ekartzen eta ezin genuen saldu baina hasi zirenetik ongi ari gara...».

### Aldaketara bidea

Egoera luzatuz gero, errotiko aldaketa beharko dutela uste du Errandoneak: «telefonoz eta Internetez online saltzen hasi beharko gara».

Birtualki saldu daitekeen arren, etxeak birtualki apaindu ezin direnez, seguru harrapatuko dutela aitzinera egiteko modua.



**XAGU**  
**LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



## ATERA TTIPI TXARTELA

**eta erabili**  
pegatina hau ikusten  
duzun denda eta  
zerbitzuetan



Josune Sorondo Odrizola  
72813152-A  
2021/04  
no. 372

Aprobeltxatu aukera!




## Aste Santua eta gero berriz ere eskolara telematikoki

Eskolak aurten martxan paratu duen web-orrian baliabide digital ugari eta irakasleen bideoa ere ikusgai daude

### MAIDER PETRIRENA

Aste Santuko oporraldien ondoren haurrek berriz ere eskolarekin harreman telematikoa hasi dute. Aipatzekoa da aurten eskolak web orria martxan jarri duela. Egun hauetan teknologia berrietako arduraduna iristen zaizkigun baliabide digital ugari bertan sartzen ari da, jokoak, web-orriak...

Hau da helbidea:

<https://sunbillakoeskola.educacion.navarra.es/web/>

Oporraldia hasi baino lehen ikasleen familiek, irakasleen

eskutik bideo eder bat jaso zuten. Bideo hori ere web orrian dago ikusgai. Bideo horretan jasotako hitzak eskertu nahi ditugu, hau guztientzat gogorra izaten ari baita.

Hainbat emanaldi antolatuak zituzten apirilko hilabeterako eta hauek ere bertan beharra gelditu dira: Malerrekako eskola ttikiek urtero ospatzen duten Joko Topaketa, Yolanda Arrieta Malasetxebarria idazlearen bisita ere izan behar zuten apirilaren 20an eta horretarako bere liburu bat irakurri beharra zuten.



Ospitaletik bueltan ongietorria eskaini zitzaion Jaliskori. MAIDER PETRIRENA

### Ongietorria eta bideoa Jaliskori ospitaletik bueltan

Aitor Ibarra *Jalisko* urtarrilaren 12tik apirilaren 7ra ospitalean egon zen. Etxera bueltatu zenean, bizilagunek ongietorri hunkigarria egin zioten *Volver, volver* kanta jarritz. Nieves Biurarenaren ekimenez, herriarren mezuak bideo batean bildu ditu Ixabel Maiak.

### 1918ko gripean 31 sunbildar hil ziren hilabete batean

1918urteko gripe-pandemia edo espainiar gripearekin Sunbillan irailean 31 lagun hil ziren. Orduan 1.050 bat biztanle zituen. Orain zabaldu den koronabirusa baino larriagoa zela diote, baina denbora haietan ez zuten oraingo neurriak hartzerik izan.



## PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



## AUKERA BIKAINA Sunbillan!

### 9 ETXEBIZITZA:

115m<sup>2</sup> arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak, sukaldea, egongela, 2 bainu, trastelekuak eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak



EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak



✓ Zure beharren araberako finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Saltokietatik kanpo lerroan esperatzeko ohitura ongi barneratua dago herrian. PATXI IRIARTE (FOTO ZALDUA)

## Egoera berrira egokitzen ari dira arlo guztietan

Modu batera edo bertzer lanean ari dira osasun eta udal zerbitzuak, baita hezkuntza komunitatea ere

### MARGA ERDOZAIN

Apirilaren bukaeran gure herriari egiten ahal zaion argazkian hainbat nabardura eta zehaztapen ematen ahal ditugu, hona hemen sorta bat.

### Osasungintza

Osasun zentroko protokoloek jarraitzen dute eta une honetan testak ere egiten direla aipatzen ahal da. Gizarte zerbitzuetako programa guztiak ere martxan daude. Horiek guztiak erabiltzeko ohiko telefonoetara deitu behar da.

### Udal kontuak

Udal bulegoak itxita badaude ere, Herriko Etxeko jarduera martxan dela erran daiteke. Gobernuarekin elkarlana estua

da, ezarritako protokoloak eta aginduak jarraitzeko: karririk eta egoitzen garbiketa, umeen kaleratzearen ardurak, musukoak, subentzioak... Tasa eta prezio publikoei dagokionez, itzultzea eta kobratzea erabaki du Udalak. Askin Haur eskolako tasak martxokoa erdia kobratu da eta zerbitzua martxan jarri arte ez da kobratuko; kiroldegi eta terrazen tasak, berriz, zerbitzuak erabiliko ez diren hilabeteak ez dira kobratuko.

### Hezkuntza komunitatea

San Miguel ikastetxean eta Mendaur Institutuko ikasle eta irakasleek apirilaren 20tik ikasturteko azken txanpari ekin diote era telematikoan.

Momentuz, ofizialki eta Departamentutik ezarritako balizko aldaketen zain daude familiak eta hezitzaileak. Azpimarratu behar da zer ahalegin handia egiten ari den ikasleen jarraipena eta motibazioa ziurtatzeko. Bertako zentroetatik familiei erraztasunak eman nahi izan zaizkio gailu informatikoak etxe guztietara ailegatzeko eta arrakala digitalik ez izateko.

Agorreta musika eskolan ere jarduera telematikoki jarraitzen ari da eta horrela segituko dute bertze agindurik ailegatu ezean.

Askin haur eskolako txikiak dira "telelana" egiterik ez du-

tenak. Bertako langileak formakuntza eta zentroan hainbat hobekuntza eta moldaketak egiteko aprobeztatzen ari dira.

Euskaltegiko ikasleak ere autoikaskuntzaren bitartez ekin diote azkeneko txanpari.

### Kirol jarduerak

Erreka kirol elkartearen barrenean dauden kirol jarduerak guztiak geldirik daude eta ofizialki ez dago jakinarazpenik martxan diren lehiak eta jardunaldiak nola akituko duten. Bitartean, eta kirola egiteko baimena luzatu arte, gure kirolariak ahal duten moduan gorputzaren tonua mantentzen ari dira.

Futbol taldeei dagokionez, aipatu behar da jarduera honetan bai berrikuntza badela. Dagoeneko maila guztietako denboraldiak bertan behera gelditu dira. Beraz heldu den irailera arte botak altxatzeko beharra eta heldu den denboraldiarekin ametsak egiten hasteko garaia heldu da.

### Bertan behera edo sarean

Aurtengo udaberriko feria, maiatzaren hasieran ospatu beharrekoa, bertan behera gelditu da. Liburuaren Eguna eta Ipuin Txokoa Eguna sare sozialen bitartez ospatu dira.

## Etiket Mundura uzta emankorra

Udaberri berezi honek eta berrogeialdi bitxi hau alaitzeko gurean uzta emankorra izan dugula aipatzen ahal da. Mendi abesbatzak eta Doneztebe futbol taldeak egindako oparitxoaz gain, oraingoan honako hauek gehitu behar dira: udalkide eta langileen ekarpena, Erreka familiarena, San Miguel ikastetxeko langileek egindakoa eta Errekako dantzariena. Gozatu dugu, mila esker gure pantailatako baloiak haize "freskoa" zabaltzeagatik.

**ola**  
SAGARDOTEGIA  
www.olasagardotegia.eus  
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARAJA IREKIA**

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**  
Jarrai gaitzazu!



**facebook**  
www.facebook.com/ttapi.ttapa

## 'Ezagutu gaitzazu' kanpaina abiatu du Baztan-Bidasoa Turismoa Elkarteak

Elkarteko kideak konfinamendu garaian egiten dituzten lanen bideoak zintzilikatzen ari dira sare sozialetan



Itxita egon arren, etxe barnean hainbat lan egiten ari dira kideak. UTZITAKOIA

### TTIPI-TTAPA

*Ezagutu gaitzazu!* Horixe da Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak derrigorrezko etxeratzetxe honetan abian jarri duen kanpaina.

«Zu ezin zara gu bisitatzera etorri, baina gu zure etxean sar gaitzezke. Sare sozialak baliatuko ditugu gure kideak nortzuk diren eta konfinamendu egoera hau nola jasaten ari diren ezagutu dezazun. Zure baimenarekin... zure etxean sartuko gara!», diote oharrean.

Landetxeak, hotelak, kanpinak, jatetxeak, aktibitate eta zerbitzu enpresak... Denak itxita daude. Itxita bai baina ez geldirik, dagoeneko webgunean eta sare sozialen bidez hedatu dituzten bideoetan ikus daitekeenez. Egunero bideo txo bat zintzilikatuko dute beraien sare sozialetan. «Leihotik begiratzerakoan mundua gelditu dela iduri badu ere, gure kideak lanean dabil-tza buru-belarri itzulera prestatzen», diote Baztan-Bidasoa Turismoa Elkartetik eta horren erakusgarri dira kideek prestatu dituzten bideoak. Eskualdeak eskaintzen dituen aukera ugariak ezagutzeko bertzeko modu bat da, etxe barneko lana plazaratuz.

Beraien aktibitatea ezagutzeko sare sozialetan jarraitzeko aukera zabaldu dute eta elkartearen eta eskualdeko albisteak etxean jaso nahi izanez gero, eman izena beraien webguneko Newsletter-ean eta bi astetik behin beraien berri izanen duzu.



**Xabier IRIARTE**, Doneztebe >

### «Eginez ikasten dugu»

**Xabier Iriarte (Doneztebe, 19 urte) Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 2. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.**



#### Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu zaletasunik?

Orain arteko ikasketak Donezteben eta Lekarozen egin ditut, Aretxabaletara mugitu arte. Urpekaritza asko gustatzen zait, itsasoan gurasoek egindako ibilbidea jarraitzea ametsa bihurtu da. Horretaz gain lagunekin eta inguruko jendearekin denbora pasatzea maite dut, festa egitea ere bai.

#### Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Aitaren eragina oso handia izan da, argazkilaria baita. Txikitatik kamera eta argazki artean ibiltzeak arrastoa utzi baitu. Pixkanaka mundu horretan gero eta gusturago ibiltzen hasi nintzen eta zaletasuna bihurtu arte. Horretaz gain, Mondragon Unibertsitateko hezkuntza ereduak asko erakarri ninduen, unibertsitatara heldu arte ez nintzen oso ikasle ona, eta eredu honek ikasteko gogoak piztu zizkidan berriz ere.

#### Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Unibertsitateko esperientzia oso polita da, jende berria ezagutu, etxetik kanpo bizi eta ostegunetako poteoa ez dago gaizki. Aniztasun gehiago, aukera gehiago eta esperientzia berriak. Baina benetan ilusioa eta poztasuna eragin zidan Euskal Herriko alde guztietako euskalki desberdinak entzutea izan zen,

oso polita iruditzen zait euskarak duen aberastasun hau.

#### Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologiak benetan maiteminduta nauela, praktikan bitartez askoz hobe moldatzen naiz ikasketetan. Teoria oso ongi dago eta beharrezkoa dela uste dut, baina ikasle "txarrak" garenontzat praktikak ikasteko gogoak pizten ditu. Akademikoki ez ditut emaitza oso onak lortu unibertsitatara heldu arte, eta unibertsitatean aurkitu dut ikasteko motibazioa eta gogoak.

#### Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Eginez ikasten da, eta gure fakultateak aukerak ematen dizkigu lan munduko zenbait erronkei aurre egiteko. Baina sormenari ematen zaion askatasuna gehien gustatzen zaidana da. Gure proiektuetan sormena oso garrantzitsua da, eta hau asko lantzen dugu.

#### Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Ikus-entzunezko munduan lanbide desberdinak probatzea gustatuko litzaidake, oraindik ez dakidalako argi zer egin nahi dudana. Naturarekin zerikusia duten dokumentalek momentuz interes handien sortzen nauten gaia dira, eta urpekaritzarekin bat egingo balute ametsatiko lana izango litzateke.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



Oraingoz mendi-irteerak ere ezin dituzte egin.

## Udako irteerei begira daude elkarteko kideak

Orain artean hiru ateraldi egin dituzte aurten eta hurrengo, ahal bada, uztail bukaeran egingen dute

### PABLO IRASTORTZA

Aurten, orain artean, ezin izan dira hiru ateraldi bertzerik egin: batetik, otsailaren 6an, sagardotegian bertso-bazkaria (urtarrilaren 30an, greba zela medio aste bat gibelatu zena) egin zuten; bertzetik, otsailaren 20an Donostiara egun-pasa joan ziren; eta martxoaren 10an Xabierera txangoa egin zuten. Eguraldi zoragarri lagunduak izan ziren hirurak.

### Zortzi irteera bertan beheiti

Martxoko eta apirilko aitzineko TTPI-TTAPA zenbakietan adierazi bezala, eta denbora luzetxoan, ezin denez bidaia-tu, 2020ko ekainaren 4ko iragarria zegoen, eta urtero estimazio handia izaten duen Lurdeseko egun-pasa ere, ezin izanen da egin. Covid-19 malapartatua dela eta, badira (Lurdeskoa barne) zortzi bidaia nahi eta nahi ez bertan beheira utzi behar izan direnak.

### Andaluziako eta Fiordoetako bidaia gibelatuak

Horrekin batera, gogorarazi behar da, Andaluziara bidaia eta Fiordoetako itsas-bidaia,

justu urte bat gibelatuak izan direla.

### Udako irteerak kolokan

Hurrengoak, ahal izanez gero, uztailaren 27an Aralarra, abuztuaren 31an Arantzazura eta irailaren 14an Lezora izanen lirake. Ea irteera gosez daudenek zorzea lagun duten!

### Mendizaleak ere zain

Oraingoz martxoan Leitza eta apirilean Etxalarren eta hilabetero hirugarren astearrean (jai eguna edo egun berezia ez bada) egiten diren irteerak ere, ezin izan dira egin. Itxura bera dakar maiatzaren 19rako prestatua dagoen Baztango mendi-bueltak: «lasai mendizale, garrantzitsuena osasuna zaintzea denez, etorririko dira zangoak eta gorputzak astintzeko garaiak, mendiak zain izanen ditugu!»

## HURRENGO IRTEERA AHAL BADA UZTAIL BUKAERAN EGINEN DUTE

## Iparraldean elkartasun sare bat osatzen ari da Slow Food-Bizi Ona elkarte

### PIERRE BASTRES | SENPERE

Euskal Herrian ere abarrak dauzka Slow-Food («Janari urria») mugimenduak, eta Iparraldean «Bizi-Ona» deitzen den elkarte da haren ordezkaria. Slow Food 1986 sortu zen Italian, eta gerotik mundu osoan hedatu da. Herri eta eskualdetako usaiazko moztakinak, sukaldaritzak, eta lotutako bizi moldeak eta ekosistemen begiratzea dira helburu nagusiak. Honenbertzez, Covid-19an krisialdia hasi orduko, hemengo laborari eta ekoizleen geroaz axolatzen hasi dira berehala. Elkarteko bulegoko kidea da Maider Laduche azkaindarra, era argi dauka: «Erronka handieratu egin behar diete laborari eta ekoizleek, ezin asmatuzkoak. Urrun mugitu ezinean dira bezeroak ere, eta ez nahi bezainbatetan gainerat. Hori ikusita, gure sareko laborariak deitu ditugu, logistikaren lana errazteko orenen buru: haiek eta bezeroen artean, «bitartekariak» izanen gara gu, elkarteko kideak: laborariak beren itzuliak murrizteko, eskualde bateko bezeroen manuak bateratuko dituzte, guri utziko, eta bezeroak etorririko zaizkigu beren erosketen bilat. Gure artean ostalari eta tabernari aunitz baitira hozkailu eta behar dena badugu, jatekoa behar bezala atxikitzeko. Gisa horretan, guttiago mugitzen da jendea.»



Bertako produktuak saskian.

Erran gabe doa urrik lan egingen dutela: «Erosketak ekoizle eta bezeroen artean zuzenean iragaiten dira, honetaz ez gara bat ere axolatzen. Gure usaia jarduna da hemengo sukaldari, kontsumitzaile eta laborarien artean lotura azkartzea, izan dadin elkarretaratze edo ateraldiak egingez. Honetakoan ere lotura hau begiratzen dugu, ahal dugun heinean.»

### 24 hornitzaile, 16 bitartekari

Catherine Marchand ere elkarteko bulegokoa da, eta gisa berean elkartasunaren beharra azpimarratu du: «24 hornitzaile eta 16 bitartekari gara egundaino, Iparralde osoan. Senperen L'Auberger Basque (Bastid Agerrea) eta La Ferme du piment (Laputxa Garaia) bitartekari ditugu. Bakoitzaren beharrak betetzeko asmoz ari gara, adibidez oharrak zabalitzen ditugu, laborari batek soberakinak badituenean... Gure webgunean xehetasunak atzemanen ditu nahi duenak: <http://slowfood-biziona.fr/>».



Iparraldean 24 hornitzaile eta 16 bitartekari ditu elkarteak. PIERRE BASTRES



Juan Mari Lopez (ezkerretik hasita lehendabizikoa) eta Jesus Angel Garcia (hirugarrena), Nafarroako sagardogileekin. ARTXIBOKOA

## Kupelak beteta eta atepak itxita

Denboraldi bete-betean kupelak ixteak eragindako ondorioez solastatu dira Lekarozko Larraldea sagardotegiko Jesus Angel Garcia eta Lesakako Lindurrenbordako Juan Mari Lopez

### N. BAZTERRIKA

Urtarrilaren erdialdean hasi zen sagardotegi denboraldiak ezohiko iraupena izan du aurtentzen. Bi hilabete eskasen buruan itxi behar izan dituzte kupelak, lan egiteko gogotsu egonagatik, alarma egoerak halaxe egitera behartu zituelako.

Lekarozko Larraldea sagardotegiko Jesus Angel Garciak adierazi duenez, «zetorrenaren berri izan bezain agudo» itxi zituen atepak: «maiatzaren 1ean akitzekoa zen denboraldia, baina martxoaren 13an itxigenuen sagardotegia». Egun horretan itxi zuten Lesakakoa ere: «ostiralean irekita genuen eta larunbatetik aurrera itxita» argitu du Juan Mari Lopezek.

Jarduera eteteak ondorio nabarmenak izan ditu sagardotegikoengan. Batetik, Garciak argitu bezala, «denboraldia delako lan gehien egiten dugun tenorea», eta bertetik, Lopezek adierazi duenez, «sagardo guztia hemen gelditu zaigulako».

### Hozkailuak gainezka

Asteburua ate joka eta hozkailuak beteta zituztela, ezus-

tean harrapatu zituen ixte-aginduak Garcia eta Lopez. Lesakan asteazkenean jasoa zuten haragia eta bakailaoa eta hozkailuak bete-beteak zituztela itxi behar izan zituzten atepak: «bueltatzen saiatu nintzen baina ez zidaten hartu. Dena izozkailuan sartu behar izan dut». Lopezek ez bezala, kooperatibak haragia bueltatzeko aukera eman zion Garciari: «bila etortzeko egunen bat behar izan zuen arren, kooperatibak erositakoa bueltan eraman zigun». Zentzu horretan galerarik izan ez dutela argitu du: «asteaztekoa ekartzen dugu eta aste horretakoa eraman zigun».

Sagardoari dagokionez, «25.000 sagardo litro inguru» dituzte Lindurrenbordan orain. Modu batera edo bertzera egindako lana aprobeztatzeko «botiletan sartzen» aritu dira egunotan.

## 3.000 BAT LAGUNEN ERRESERBAK UTZI DITUZTE BI SAGARDOTEGIEK

Ildo beretik, Larraldeakoak sagardoaren salmentetan izandako galerak ageriko egin ditu, «ikaragarri jaitsi» direla nabarmenduz: «botila bidez banatu behar da, biltegiak itxita daude, salmentak ere ez dira berak... Bereziki denda txiketara saltzen dugu, orain denda handiak pixka bat eskatzen hasi diren arren». Oraindik ez daki zer den berreskuratzen ahalko dutena: «udan ikusiko dugu zer ateratzen den, baina guztiari buelta ematea ezinezkoa izanen da».

Guztira «1.000 bat lagunengatik» dira Garciari bertan behera gelditu zaizkionak, bertze «2.000 inguru» Lesakan eskatuak zituztenak. Horren ondorioz, bai Lekarozko sagardotegian ari ziren bi langileak eta nagusia, baita Lesakan ari diren seiak ere irabazirik gabe gelditu dira.

### Etorkizuna airean

Oraindik zer etorriko den aurreikusteko «goizegi» dela uste du Garciak baina ez du berehalakoan akituko denik uste: «ez dakigu noiz irekitzen ahalko dugun... Urtea horrelaxe akituko dugulakoan nago». Lopezek ere urruti bota du begirada: «asko luzatzen bada ez dakit zer egingen dugun...».

Kezkak agerikoak dira bienengan. Iraila uste baino lehena go ailegatuko zaie eta horren beldur da Garcia: «irailean sagardoa egiten hasi beharko dugu zer heldu den jakin gabe».

## Mendizaletasuna eta musika uztartuko ditu Urmuga ekimenak

### TTIPI-TTAPA

Urmuga ekimenak mendizaletasuna eta musika uztartu nahi ditu eta hauen baloreen bitartez Euskal Herri osoa bustitzeko asmoa du uztailaren 14tik abuztuaren 1a arte.

Urmuga ertzak Euskal Herri osoa zeharkatzen du mendebaleko Angulo Bortutik Hiru Erregeen Mahaiaren gailurre-raino, mendatez mendate, gailurrik gailur, basoz baso. Urmuga ertzatik iparrera isurtzen diren urak Kantaurira doaz, Mediterraneora berriz hegoalderuntz doazenak.

Urmugak ekimen kulturala izan nahi du, eta Urmugaren bi aldeetako landa eremuko herriak biziberritu, musika, multura eta turismoaren bitartez. Mendizale eta musikarrien artean 50 bat persona ibiliko dira eta ibilbidean zazpi mendi-kontzertu gauzatu dituzte gure mendietako toki esanguratsuetan eta bertze zazpi herri-kontzertu landa eremuko herrixketan. Tartean, gure eskualdeko herri eta mendietan ere eskainiko dituzte emanaldiak.

### Mendietako 7 kontzertuak

- Tologorri gailurrean (07-14)
- Anboto-Alluitz (07-17)
- Aitzkorriko ertzean (07-20)
- Balerdi gailurrean (07-22)
- Hilerrita-Okabe (07-28)
- Orhi gainean (07-30)
- Hiru Erregeen Mahaia (08-1)

### Herrietako 7 kontzertuak

- Audio (Amurrio, Arrigorriaga, 07-15)
- Otxandio (07-17)
- Oñati (Zegama, 07-20)
- Baztan (Almandoz, Irurita, Erratzu, 07-25)
- Lapurdi (Sara, Kanbo, 07-24/25)
- Baigorri (Banka, 07-27)
- Larraine (Maule, 07-30)

## Alokairuaren zama ikasleengan

Unibertsitateetan aurrez aurreko saioak eten dituztenez, ikasle pisua utzi eta etxera itzuli dira ikasle anitz. Etxean dauden arren, alokatua zuten ikasle pisuaren errentak ordaintzen ari dira Uxo Gamio, Aitana Etxetxipia eta Nahia Elizagoien

### N. BAZTERRIKA

Konfinamendua familian pasatzea erabaki dute Uxo Gamiok (Berroeta, 1998), Aitana Etxetxipiak (Sunbilla, 1999) eta Nahia Elizagoienek (Bera, 2000).

Martxo erdialdean, alarma egoera martxan paratzearekin batera, egin zuten etxera buelta, unibertsitateek aurrez aurreko saioak eten zituztelako. Hilabete eta erdi pasatu da ordutik eta bertze bi dituzte aitzinetik. Hiru hilabeteotan, erabiltzen ari ez diren pisuaren alokairua ordaintzen segitzen dute.

### Kontratua akitu

Iratxe kontsumitzaileen elkar-tearen arabera, ikasleek «kontratua akitu» nahi dute. Elkarteak ikasturteka alokatzen diren etxebizitzek «bertzelako erabilera bat dutela eta ikasle zein jabeen artean adostutakoaren arabera arautzen direla» gaineratu du.

### KONTRATUAREN EBAZPENA EDO MERKATZEA NEGOZIA DEZAKETE IKASLEEK

### Uko egiteko baldintzak

Halako egoeran daudenei, hasiteko, alokairu-kontratuari uko egiteko klausularik dagoen eta baldintzak zein diren begiratzeko aholkatu diete. Adostutakoaz harago, alokairu legeak ez du jasotzen maizterrak ordaintze-ari utz diezaiokeenik.

### ALOKAIRU LEGEAK EZ DU MAIZTERRAK ORDAINTEA ETEN DEZAKEENIK ERRATEN

### Merkatzeako aukera

Iratxek jakitera eman duenez, *Rebus Sic Stantibus* delako printzipio jurisprudenzialak, bat-batean gertatutako aldaketengatik kontratua aldatu, ebatzi edo bertan beheiti uzteko aukera ematen du. Horretarako, testuinguru-aldaketa horrek hitzarmenaren oreka urratu behar du, aldeetako batentzat hori betetzea ezinezkoa edo zail izateraino.

Elkartetik argitu dutenez, printzipio horrek ikasleei kontratuaren ebazpena, edo gutxienez, hori merkatzea negoziatzeko bide ematen die.

### Komenigarriena «adostasuna»

Edozein modutan, maizterrak eta nagusiak erdibideko zerbait adosteko modua bilatzea da aholkatzen dutena, «batzuek dagoeneko egin duten modu berean».

Hala izan ezean, maizter eta jabeek auzitegiatar jo beharko lukete eta azken hitza haien esku geldituko litzateke.



Gizarte Hezkuntza ikasten ari da Uxo Gamio.

### «Agentziaren bidez alokairuaren prezioa merkatzea lortu dugu»

#### UXOA GAMIO EKIOIZ (BERROETA)

Gizarte Hezkuntzan graduatzeko atarian, koronabirusa tarteko, etxera itzuli behar izan du Uxo Gamiok (1998). Donostiako pisua utzita Berroetatik akituko ditu ikasketak: «praktikak eta Gradu Amaierako Lana falta ditut. Praktikak bertan behera gelditu zaizkigu eta, momentuz, memoria egiten

eta GRALari denbora eskaintzen ari naiz».

#### Praktikak kezka nagusi

Ikasketa arloan «praktikak» dira kezka handiena eragiten diotenak: «ez dakit noiz hasiko naizen, galdutako orduak udan edo heldu den urtean erreku-peratu beharko ditudan...».

«Ezjakintasunaren menpe» geratu den honetan «egoera

honetatik ikasteko aukera» ikusi du Gamiok: «aunitzetan geure buruari gehiegizko zama paratzen diogu... egoera hau geure buruari entzuteko eta zentratzeko baliagarria da».

#### Matrikulak eta alokairuak «merkatu»

«Dauden errealitate anitzei begiratzuz gero», berroetar gaztearen irudiko, egoera honek ez dio «bertze ikasle batzuei bezainbertze kaltetu». Dena den, ikasketak «ez dira batere merkeak» eta «zoritzarrez» hori ordaintzen segitu behar du berak ere: «argia eta bertzelako gastuak barne, hau hasi arte lau pisukideok 300na euro ordaintzen genuen pisuaren alokairua». Bere kasuan, «asteburu batzuetan lan eginez eta gurasoen laguntzaz» aurre egin du orain arte.

Bere izerdiz irabazitakoa erabiliko ez duen baliabideetara bideratzen segitu beharko du

### «PRAKTIKAK NOIZ HASIKO DITUGUN EZ DAKIGU ETA HORREK KEZKATZEN NAU»

oraindik orain. Hori jakinda ere, etxera itzultzea erabaki zuen: «bertzela ere astebururo etortzen naiz etxera, eta egoera honetan ez nuen zalantzarik izan, bi aldiz pentsatu gabe itzuli nintzen. Etxe batean bizi naiz, askatasun handiagoa dut...».

Gamiok kontatu digunez, saiatuaren saiatuz, eurek alokairua «pixka bat» merkatzea lortu dute: «albistegietan alokairuaren prezioak jaitsiko zirela aditu genuen eta nagusiari aipatu genion. Hasieran ezetz erran bazigun ere, gero, agentziaren bidez, hilabeteko prezioa pixka bat jaistea lortu dugu».



## «Normalean alokairua ordaindu ezinik dabiltzanak zer erranik ez orain»

**AITANA ETXETXIPIA**  
**MARIZKURRENA** (SUNBILLA)


Urruti joateko nahia eta hizkuntzekiko duen maitasuna uztartuz, Madrilén Lenguas Modernas y sus Literaturas gradua ikasten ari da Aitana Etxetxipia (Sunbilla, 1999). Bigarren ikasturtea du aurten goa; iaz hasiera izateagatik eta aurten aldaketagatik, urte bereziak izan ditu.

**Maizterrak nagusien menpe**  
Etxetik kanpo bizitzea ez da merkea, are gutxiago ikasle garaian. Ongi daki hori Etxetxipiak. Bere kasuan «gurasoei esker» horretarako aukera izan du: «pisuaren alokairua ordaintzeko behar dudana baino gehiago ematen didate, ikasketak aitzinera ateratzeko

adina. Gainerakoa udan lan eginez irabazitakoarekin moldatzen naiz».

Ez dira zenbaki txikiak; eta gurasoek egiten duten eginahala ez da inolako huskeria: «pisuan bi gara eta nik logela txikia dudanez gutxiago ordaintzen dut, 360 euro. Horrez gain, argia eta ura ere gure sakelatik ordaintzen ditugu». Beharrik ez du legerik, ikasketak aitzinera eramateko ezinbertzeak zituen gastuak izan dira orain artean.

Koronabirusagatik unibertsitatea «itxi zutenetik», ordea, erabiltzen ez duen pisuaren alokairua, argia eta ura ordaintzen ari da: «pisua hutsik dago, nire pisukidea Ingalaterrakoa da eta aireportuak itxi aitzinetik bueltatzea erabaki zuen.



Aitana Etxetxipia.

Baina ordaintzen ari gara. Bertze erkidego batzuetan neurri bereziak hartu dituzten arren, gure kasuan jabearen esku dago».

**Egoera berezian aparteko neurriak**

Egoera berezi honetan «bertzela ere nahikoa ez diren» estatuko dirulaguntzak ugari-

## «PISUA HUTSIK EGON ARREN ALOKAIRUA ORDANTZEN ARI GARA»

tu beharko lituzketela uste du sunbildarrak: «egoera normalean alokairua ezin ordaindu dabilen jendea baldin badago, zer erranik ez egoera honetan... pertsona aunitz lanik gabe gelditu dira...».

**Gastu berak, ikas baldintza okerragoak**

Lehen go eta oraingo kostuen artean ez du alderik sumatu, erabili gabe ere ordaintzen ari baita. Dena den, ikas baldintzak aldatu zaizkiola argitu du: «ikasketak etxetik segitzea zailagoa da eta irakasleek etxean egoteagatik denbora gehiago dugula uste dute...».

## «Pisuaren jabea hagitz eskuzabala da eta laguntzen saiatu da»

**NAHIA ELIZAGOIEN LARRALDE**  
(BERA)

Etxetik kanpo, baina ez hagitz urruti. Halaxe egin nahi zituen Lehen Hezkuntza Graduko ikasketak Nahia Elizagoienek (Bera, 2000). «Haurrekin egotea eta horiei gauzak irakastea» maite duelako aukeratu zuen gradua eta etxetik ateratzeko aukera egokiena ikasketak Iruñean egitea zela iruditu zitzaion. «Etxetik kanpo bizitzeko esperientzia nolako zen jakin nahian, kuadrillako bertze hirurekin batera» alokatutako pisuan bizitu da berriki arte.

Martxoaren 12an «ortzeguenero bezala» etxera bueltatu zen: «ortziraletan ez dut klaserik izaten eta etxera etortzen naiz». Herrian, bere baserrian, harapatu zuen alarma egoerak

Elizagoien. Ordutik Beran daude bera eta bertze hiru lagunak.

**Jabearen «eskuzabaltasuna»**  
Pisua hutsik gelditu zaie, baina ordaintzen segitu beharko dute. Dena den, egoeraren aitzinean, «jabea hagitz eskuzabala» izan dela gaineratu du: «ezin gara kexatu, ahal duen guztian laguntzen saiatu da eta».

Jabeak eskainitako laguntzarekiko kontrastean, estatuak ematen dituen bekak «ez dira nahikoak» beratarrarentzat: «alderdi aunitz daude kontuan hartzeko...».

**Ebaluazio irizpideak egokitu**  
Estatuak laguntzak ugari eta unibertsiteak neurriak hartu. Horiek dira Elizagoienek egoerari aitzin egiteko ikusten dituen



Nahia Elizagoien.

behar-beharrezko bi alderdiak. Izan ere, «orain arte gure ikasketetan azterketek pisu handia izan dute eta egoera honetan azterketak modu egokian eta behar bezala egitea zaila dela iruditzen zait.

Horregatik, «egoera honetan bertze alderdi batzuk, eguneroko lana adibidez, kontuan hartzea garrantzitsua delakoan nago».

## «EGOERA HONETAN EGUNEROKO LANAK GEHIAGO BALIO BEHARKO LUKE»

**Baliabide ugari**

Klaseak telematikoki eskaintzeko «baliabide nahiko onak» dauden arren, bere irudiko, «klase presentzialek eta telematikoez ez dute zerikusirik». Mugak muga, irakasleen inplikazioan ere aldea sumatu du: «batzuk gehiago saiatzen dira».

Orain artean Nafarroako Unibertsitate Publikoaz solastatu da beratarrak, baina badu hemendik ateratzeko asmoa. Tokia utziko die ondokoei: «heldu den urtean hiru pisukidek Erasmusen joateko asmoa dugu. Ikasturte osorako edo bigarren seihilekorako pisu bila dabilenak guregana jo dezake».

## «Jende aunitzek etxean gainditu dugu koronabirusa»

**IOSUNE ETXEBESTE ARRETXEAK** KORONABIRUSAREN SINTOMAK IZAN DITUEN SUNBILDARRA

Koronabirus kasuak datu ofizialetatik haratago doazela uste du Etxebestek eta horren adierazle bere kasua aipatu du: «ez didate probarik egin eta etxean gainditu dut gaixotasuna»

**G. PIKABEA** | SUNBILLA

Fisikoki sukarra, nekea, apetitua falta, usaimenaren eta gustuaren galera, buruko mina, beherakoa, arnasteko arazoak eta eztula, eta psikologikoki tristura eta beldurra. Koronabirusa tarteko, horiexek sentitu eta sufritu ditu Iosune Etxebeste Arretxeak. Zorionez, ordea, hori guztia iragana bihurtu da. Sunbildarrak etxean gainditu du amesgaiztoa eta orain «betiko moduan» eta osasunez «hagitz ongi» dagoela dio.

Sortzez irundarra da Etxebeste. 25 urtez Sunbillan bizi izan zen eta duela lau urtetik Mutiloa du bizileku. Aurpegi ezaguna eskualdeko aunitzendako, bertzeak bertze, «hamar urtez trikitixa, pandereta eta euskal dantza klaseak ematen» aritu zelako Malerrekako eta Baztango hainbat herritan. Gaur egun, ofizioz etxekoandrea eta afizioz hainbertze zaletasuni lotuta bizi da: «antzerkia, dantza, musika, zinea, umorea, lagunekin eta familian egotea...». Hain zuzen, zaletasun horietako bati tiraka antzerki talde batean dihardu, elkar ezagutzen ez zuten amen antzerki tailer batean. *Toc-Toc* izan da euren azken lana.

Hara non, antzerki horren bueltan agertu ziren koronabirusaren lehenbiziko arrastoak. Kontatu digunez, «martxoaren 7an izan genuen azken emanaldia eta martxoaren 11n antzerkiko kideak sintomak

sumatzen hasi ginen, gehienok sukarra izan genuen».

### **Etxean isolaturik**

Egun horretan hasi zen Etxebesteren hamar eguneko kalbarioa. «38,5 °Cko sukarra, neke handia, goserik ez...». Gero etorri ziren gainerakoak: «sukarra egun bat eta erdiz izan nuen eta hirugarren egunean usaimena eta gustua

galdu nituen». Ez zuen halakorik espero. Aitortu digunez, «aunitz tristatu nintzen, betirako izanen zela uste nuen, oraindik ez bainuen aditua hori ere sintoma bat zenik». Ondoko egunetan, «beherakoa eta bi egunez buruko mina» ere sentitu zituen eta «azkeneko bi egunetan ez nuen beti bezala arnasten eta eztula ere banuen», azaldu digu.

Halako sintomekin, Nafarroako Gobernuak koronabirusa tarteko martxan paratua duen telefonora [948 29 02 90] deitzea erabaki zuen. «Lehenbiziko egunetik hasi nintzen deitzen baina ez zidaten telefonorik hartu». Internet bidez ikasi omen zuen sintoma horiekin zer egin behar den: «paracetamol miligramo bat hartu, nire logelan isolatuta egon eta nire mahai-tresnak, komuna eta dutxa nik bakarrik erabili». Halaxe egin zuen. Logelan bakarrik egoteaz gainera, «sofa nik bakarrik erabili nuen, komuna eta dutxa edota mahai-tresnak ez nituen konpartitu eta familiakoekin distantzia mantendu nuen». Aitortu digunez, etxe berean bai, baina familiarengandik aparte pasatu zituen egunak: «birusa nuela jakin nuenean familiakoak kasik ez nituen ikusten. Logelatik ateratzen banintzen, alaba berean gelditzen zen».

### **Hamabi urteko ibilbidea antzerkian**

«Segurtasuna, autoestimua, enpatia...». Kontent sentitzearekin batera, horiek lantzen ditu Etxebestek antzerkian, «bai entseguetan, baita publiko aitzinean ere». Duela 12 urte eman zuen pausoa, Sunbillan, Hoidek Produzioak antzerki tailerrarekin. «Ama batzuek gure haurrekin antzerkia egiten genuen». Donezteben ere ibili zen eta bide bertik segitu du Mutiloan, «antzerkia beharrezkoa» duelako.

Gaur egun, Plaza de la Cruz institutuko antzerki tailerlean dihardu. Duela bi urte hasi zen, bertze ama batzuekin topo egin zuenean. «2018an, institutuko antzerki tailerlean, 45 ikaslek Marilyn Monroeren musikala egin zuten, tartean nire alabak. Azkeneko emanaldian, ama batzuk sorpresa gisa, Marylinez beztitu eta kanta bat kantatu genuen».



*Toc Toc* antzezlana otsailaren 23an estreinatu zuten. UTZITAKO ARGAZKIA

Hura izan zen hasiera: «antolatzen ibili ginen amak eta zuzendaria afaltzera joan ginen eta guretako obra bat bazuela erran zigun. Zortzi emakumezkoak baietz erran genuen. Hortik datorkio taldeari izena: Elkar ezagutzen ez zuten amen antzerki espontaneoak.

2019an *Las Cuñadas* obrarekin arrakasta izugarria lortu zuten. Iazko erantzuna errepikatze gogotsu hasiak ziren

aurten *Toc Toc* obrarekin. «Lehenbiziko saioan aretoa bete» bazen ere, koronabirusa tarteko, ezin izan dute segitu: «heldu den urterako utzi beharko dugu». Aurtengoa hola tokatu bada ere, ez du antzerkia uzteko asmorik, maite duelako eta aunitz. Gainera, etxean du irakaslea, alaba: «antzerkia ikasten ari da eta laguntzen dit. Oxford School of Draman ere ibili da».

Arnas hartzeko arazoak agertu zitzaizkionean are gehiago kezkatu zen: «arnas falta sumatu nuenean, aunitz izutu nintzen eta berriz Nafarroako Gobernuko telefonora deitu nuen. Egunean zehar hartu zidaten». Bere sintomen berri eman zienean, «ordura arte egin nuena egiteko eta arnas arazoena antsietate-krisia izaten ahal zela erran zidaten. Okerrera eginez gero, berriz deitzeko aipatu zidaten».

Horrela pasatu zituen egunak, «parazetamol, salda, zukuak eta infusioak hartuz» eta farmazialariak aholkatu bezala, «C eta D bitaminak hartuz, sistema immunitarioa indartzen dutelako».

Egun gogorak izan ziren, eta «psikologikoki hagitz gaizki» pasatu zuela aitortu digu: «tristura, beldurra, negar aunitz... Ez nuen pentsatuko hainbertze negar egiten ahal zenik». Tarte horretan bi kilo galdu zituela dio. Baina berak dioen bezala, «halako batean» hobera egiten hasi zen: «indarra berreskuratzen eta psikologikoki hobeki sentitzen hasi nintzen». Koronabirusa gaindituta, orain «betiko moduan» sentitzen du bere burua, «hagitz ongi» dagoela baitio: «Indarra badut eta ilusioa, umorea, dantzatzeko eta kantatzeko gogoia berreskuratu ditut, eta garrantzitsuena, osasunez bikain nago». Gehiago ere bai: «koronabirusak ez dit inongo ondoriorik utzi».

#### Diotena baino gehiago

Ez zioten koronabirus probarik egin, «probak larri daudenei bakarrik egiten dizkiotelako», eta etxean gainditu zuen gaixotasuna. Bai berak baita «nire antzerkiko lagunek ere. Bederatzi gara eta zazpik nik bezala edo berdintsu pasatu dute eta ez digute inori probarik egin».

Horregatik uste du administrazioak argitaratzen dituen datu ofizialak «ez direla inondik inora errealak. Nik bezala, jende aunitzek etxean pasatu



losune Etxebestek «psikologikoki hagitz gaizki» pasatu duen arren, gaur egun osasuna eta ilusioa berreskuratu ditu.

du edo pasatzen ari da eta hori datuetan ez da ageri».

Edozein moduz, hedabideetan aditzen dituen datuekin «kezka, beldurra eta pena» sentitzen omen ditu, «batez ere hainbertze pertsona hiltzen ari direlako. Nire bizilagunari aita hil zaio eta ama arrunt larri du». Bere irudiko, «batzuk ez dute arazoa hain larria denik ikusten eta guri ez zaigula deus ere gertatuko sentitzen dute. Baina birusa toki guztietara ailegatu da eta denok hartu beharko genituzke neurriak, batez ere jende helduarekin». Berak argi du: «arazoa hagitz serioa da eta neurriekin hagitz zorrotzak izan behar dugu hainbertze maite ditugunei deus ez gertatzeko».

**«EZ NUEN PENTSATUKO HAINBERTZE NEGAR EGITEN AHAL ZENIK»**

#### Neurriekin zorrotz jokatzeko gomendioa

Alde horretatik, «batzuetan norbaitekin egoteko edo ama edo amaxi bisitatzeko gogoia» sentitu arren, «neurriak gure onerako direla» nabarmendu nahi izan du sunbildarrak eta baikor mintzatu da: «ez da itxaropenik galdu behar eta seguru nago dena hobetuko dela». Halako gaixotasun baten aitzinean, «psikologikoki ongi egotea hagitz garrantzitsu» delakoan dago, «eta horretarako emandako aholkuei» kasu egiteko gomendioa luzatu du: «gimnasia egin, ongi jan, bizilagunekin sozializatu, lagunekin sare sozialen bidez solas egin, irakurri, dantzatu, gauzak ikasi...».

**«ARAZOA HAGITZ SERIOA ETA ZORROTZ JOKATU BEHARRA DAGO»**

Agindutako neurriak bete zezaren eta norbere burua zaintzearen garrantziaz aritu da. Baina ez hori bakarrik. Hortik haratago, elkartasuna ere nabarmendu nahi izan du: «elkarri ahal den guztian lagundu beharko genioke, nahiz eta hori beti egin beharko genukeen». Bide horretan, bertze hausnarketa bat ere mahai-gaineratu du: «mundu mailan halako arazoa sortu denean, denok laguntza eskatzen hasi gara eta hau gertatzea ez dela posible erraten dugu. Baina kontuan hartu behar dugu hau gertatu baino lehenagotik, herrialde aunitzetan bertzelako arazoak dituztela: gose arazoak, pobrezia, injustiziak eta abar. Mundua hobetzeko horiek kontuan izatea ere garrantzitsu da». Horregatik, «hau dena pasatzean, denok solidarioagoak bihurtzea eta gehiago laguntzen hasiko gara espero dut». Halaxe nahi luke Etxebestek eta hala balitz hobe.



Gaur egun Donamariako komentuan 15 moja daude.

## 60 urte bete dituzte moja karmeldarrek Donamarian

Apirilaren 20an herritarrengandik jasotako erantzuna «hunkigarria eta zoragarria» izan zela diote

### TTIPI-TTAPA DONAMARIA

1960ko apirilaren 20an ailegatu ziren moja karmeldarrek Donamariara eta hortxe segitzen dute 60 urte beranduago. Duela 75 urte sortu zen karmeldarren komunitatea Hondarribian eta orduko bi erai-kinik «jendez gainezka egin zutenean» etxe bila hasi eta Donamariakoarekin egin zuten topo: «1718an egindako etxe hau erosi zuten». Gaur egun gustura osatua dute habia. Hala diote gaur egun dauden hamabortz mojek, eta herritarrekin ere «hagitz ongi moldatzen» direla adierazi du Olatz Garmendia mojak. Esker oneko hitzak dituzte herritarrendako eta horixe izan zen apirilaren 20an, 60. urteurrena gogoan, nabarmendu nahi izan zutena, baita orduan jaso zuten harreraren ondotik ere adierazi nahi izan dutena.

Konfinamendua tarteko ezin izan zuten duela 50. urteurrenaren harira egin zituzten lau eguneko ospakizunak errepikatu. Baina ez ziren eguna oroitu gabe gelditu. 17:00etan, 1960an mojak Donamariara ailegatu ziren orduan, balkoi-

ra atera eta kanpaiak jo eta kantak kantatu zituzten. Hala ere, horrengainetik «herritarrek emandako erantzun izugarria» azpimarratu du Garmendiak: «duela 60 urteko eta gaurko harreragatik eskerrak emanez herritarrendako mezua idatzi genuen eta 17:00etan balkoira atera eta herria txalotzea erabaki genuen. Herritarrek parrokiako kanpaiekin erantzun ziguten, Udalak altxaferoak bota zituen eta auzoetan kazeroladak eta txaloak jo zituzten». Ez hori bakarrik: «familia bakoitzaren mezuekin bideo bat osatu ziguten eta eguna apartekoa izan zen». Bi hitzetan «hunkigarria eta zoragarria» izan zela dio mojak.

Hortaz, «udazkenean edo aukera denean zerbait egiteko» aukera burutan dutela azaldu digu Garmendiak. Bitartean eguneroko martxarekin segituko dute, «otoitz eginez, kanporako joste eta bertze lan batzuk eginez, baratzean edota oilategian». Klausurako komentua izaki konfinamenduak ez dielako aunitzirik eragin, nahiz eta «ohi baino bisita guttiago» dituzten.



Eskola eraikitzeko lanak martxan dira. UTZITAKOA

## Pulunpa eskolako obrak aitzinera segitzen du Iturenen

### ARKAITZ MINDEGIA ITUREN

Eskola berria egiteko obrak aitzinera segitzen dute. Pixkanaka-pixkanaka itxura hartzen hasiko da eskola berria. Lehendabiziko deialdian inor aurkeztu ez bazen ere, bigarrenean Félix Oses enpresa aurkeztu zen eta buru-belarri ari dira lanean.

### Ameztiko bidea itxita

Aitzineko batean aipatu bezala, eskolako obrak egiten ari zirenean, Ameztira doan errepidea kaltetua izan zen. Mendia erortzen hasi zelarik, bidea ixtea adostu zuen Udalak segurtasuna izateko. Nafarroako Gobernuak inon egon ondotik, bertara etorri eta baserritarrekin egon ziren. Geologia enpresa bat lanean dabil pista konpotzen, eta bidea itxita egonagatik, ameztiarrak Oizetik ibiltzen dira.

### Hiruhilekoa martxan, lan telematikoaren bidez

Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleak hirugarren hilekoan ere lanean ari dira. Egoera honetan, bertze eskoletan bezala, Internetez bidaltzen dituzte lanak eta online ematen dituzte klaseak.

Egoera honek ekitaldi aunitz bertan behera gelditzea eragin du: Malerrekako eskola ttiekiek antolaturiko Joko Topaketa gustagarria, Liburuaren Egunaren harira apirilaren 21ean jasotzekoa zuten bisita... Sarri ikusiko da eskolako ikasleak hain gogotsu hartzen duten eskolako kanpaldira joaten ahalko diren!

Egoera hau ahal den heinean arintzeko eta beraien indar eta animorik haundiena bidaltzeko, Pulunpa eskolako irakasleek bideo hunkigarria bezain polita prestatu zuten.

## 'Inkiszio berriak' kanta plazaratu du Trikidantzek

'Inkiszio berriak' kanta aurkeztu du Trikidantz taldeak. Lokalean hasi zuten kanta etxean bukatu eta grabatu dute. Abestia bizi ditugun injustziak salatzen dituen Beñat Gaztelumendi bertsolariaren letrak jantzi du. Youtuben zintzilikatu dute. Egin klik eta gozatu!

## Konfinamenduan hiru bertso saio entzungai

Nafarroako Bertsozale Elkar- teak, 16 bertsozaleekin, hiru bertso saio antolatu ditu, herrialdeko zazpi Euskal irratiekin elkalan. Lehen saioa Xabier Terreros, Julio Soto, Saioa Alkaiza, Josu Sanjurjo, Xabat Ilarregi eta Alazne Untxalo bertsolariek eskaini zuten.

## Maskarak egiteko materiala eskuragarri jarri dute herritarrentzat

### TTIPI-TTAPA

Gero eta gehiago dira etxean bere maskara propioak egiten ari direnak; eta herritarrei lan hori errazteko, materiala jarri dute haien eskura herrian. Oihal berezi batzuk eta gomak eman dizkio herritar batek udalari, eta estankotan eskatu daitezke.

Etxe bakoitzeko, poltsa bana eskatu daiteke, eta bost oihal eta bi goma daude poltsa bakoitzaren barruan. «Baliteke gomarik gabeko poltsak ego-tea, hala ere, ez baitago oihal adina goma». Tissu berezi batekin egindako oihaltxoak dira herritar horrek emandakoak, biodegradagarriak eta hidrosolubleak.

Material horrekin, erraza da maskarak egitea. Nola egin erakusteko, bideoa jarri du udalak, bere web orrian.



Materiala herritarren esku utzi dute.

Maskara hauek erabiltzeko gomendioak ere eman ditu Udalak: leku itxietan edo 2 metroko tartea mantentzerik ez dagoen lekuetan erabili; garbitu eskuak erabili aurretik eta ondoren; ongi estali ahoa eta sudurra, maskara eta aurpegiaren artean tarterik utzi gabe; gomatik hasita kendu; aldatu heze dagoenean edo hondatzen denean; ez ukitu aurrealdea, eta ukituz gero, eskuak garbitu.



Pista txukunduta lanak egin ondotik.

## Haritz Haunditik Harri Haundira jaisteko bi pistak moldatu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Herri inguruko pistak moldatzen ari da udala azken asteetan. Apirilaren 18an egin zituzten lanak, Haritz Haunditik Harri Haundira jaisten diren bi pistetan; Artikutzara joateko bide zaharrean eta Amelaitzeko bueltan, hain justu. Herritarrei inguru ho-

rietan ibili behar badute, ordezeko pista batzuk erabiltzeko eskaera ere egin die udalak, pistak asentatu daitezten. Bi pistak zintarekin itxiko ditu udalak, goiko aldean zein behekoan. Oiarztungo Berdabio basogintza enpresa arduratu da bi pistetako moldaketa lanak egiteaz.

## Jangelarako dirulaguntza mantentzeko eskatu dute udalek

DBHko ikasleei dirulaguntza kentzea eta DBH eta Batxilergoko ikasleei ordutegi berbera jarri nahi izatea bidegabetzat jo dute

### TTIPI-TTAPA

Amazabal Institutuko zuzendaritza taldeak gutun bat bidali die duela gutxi inguruko herrietatik Leitzara ikastera joaten diren ikasleei. Bertan, jakinarazi die Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ez duela DBHko ikasleen jantoki zerbitzua diruz lagunduko eta DBHko eta Batxilergoko ikasleei ordutegi berbera jarri nahi diela (garraioa partekatuz ezaten).

Aldaketa horiek garraiatuak ez diren ikasleei ere eragiten dietela ikusita eta egoera larria dela iritzita, Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberriko alkateek beharrezkotzat jo dute argibide batzuk ematea. Hezkuntza Departamentua aspaldi samarretik jantokiko dirulaguntza hori kentzeko asmotan zela azaldu dute: «ez da kontu berria, eta legegintzaldi honen hasieran ere aipatu ziguten hango ordezkariak, baina alkate gisa ez dugu inongo jakinarazpenik jaso, eta erabakia hartu badute, guri ezer esan gabe egin dute». Arriskua hor zela ikusita, agitaldi hasieran bildu ziren gaia lantzeko Amazabal erreferentzia zentrotzat duten herrietako udal ordezkariak, «argi ikusi genuen defendatu egin behar dugula jantoki zerbitzuko dirulaguntza hori». Argudioak txosten batean bildu, eta harreman sorta bat hastea erabaki zuten.

### Irizpide ekonomikoak

Hezkuntza Departamentuaren erabakiaren atzean arrazoi ekonomikoak daudela salatu

dute udal ordezkariak: «66.000 euroko gastua omen da jantokia diruz laguntzea eta irregularra omen da egoera». Udal ordezkariak, ordea, dirulaguntza horrek eskualdeko ikasleek bizi duten egoera bereziari erantzuten diola argudiatu dute: «etxetik goiz mugitu beharra, distantzia, bidean ematen duten denbora...». Auzi honetan arlo ekonomikoa adinako garrantzia edo handiagoa duten kontuak badirela gaineratu dute: «nerabeen ongizatea, elikadura eta garapen egokia, osasun irizpideak, landa eremuan bizitzeak dakarren zerbitzu galera...».

Ordutegiak bateratzeak ere, arlo akademiko eta pedagogikoan ondorio nabarmenak izanen dituela azpimarratu dute: «D ereduko ikastetxe gehienetan, DBHkoek ordutegi bat dute (6 saio egunean) eta Batxilergokoek beste bat (7 saio). Ez da bidezkoa Hezkuntza Departamentuak ordutegia luzatzea DBHko ikasleei, eta Batxilergokoei murriztea, denek elkarrekin buka dezaten».

Hau guztiagatik, eskaera argia egin dute «jarrai dezatela dirulaguntza ematen». Eta ezinezkoa dela ikusten badute familiei laguntzeko beste aukera batzuk lantzeko ageritu dira.

## DBHKO IKASLE GARRAIATUEK JASOTZEN ZUTEN DIRULAGUNTZA

## «Gure helburua udarako pertsonak tratatzen hastea da»

NEREA ZABALETA LASARTE LEITZAKO IKERLARIA

Zientziaren indar guztiak ere COVID-19a garaitzeko borrokara bildu dira. Erlojuaren kontra ari dira txerto eraginkorra sortzeko lanean. Leitzako ikerlaria ere horretan ari da Bostonen, AEBn

G. PIKABEA | LEITZA

COVID-19aren kontrako borrokan buru-belarri ari da zientzia. Jo eta ke, presaka, presioaren zama gainean eta atsedetik hartu gabe. Koronabirusari aurre eginen liokeen txertoa dute proiektu asko helburu eta Nerea Zabaleta Lasarte Leitzako ikerlaria ere horretan ari da. Bostonetik (AEB) erantzun dizkio galderak TTIPI-TTAPARI eta «txerto genetiko bat garatzen» ari direla kontatu digu. Horrekin batera, «zientziara diru gehiago» bideratzearen garrantziaz aritu da: «lehenago izan diren koronabirusak ikertzeko diru gehiago eman izan balitz, oraingo koronabirusari buruz gehiago jakinen genuke».

**Koronabirusaren kontrako txertoa ikertzen ari zarete. Nolakoa izaten ari da borroka hori?**

Borroka zoragarria eta beldurgarria izaten ari da. Alde batetik, zoragarria da ikustea ikerketa munduan eman den aldaketa, krisi hau gainditzeko helburuz denok batera lan egiteko eta bata bestea laguntzeko bildu garelako. Gainera, zorioneko sentitzen naiz nire jakituria eta formakuntza hobe beharraren zerbitzura jarri izanagatik. Bestetik, beldurgarria da ikerketak egoeraren larritasunaren ondorioz hartu duen abiadura. Presio handia dugu guregan, azkar, efiziente eta seguru lan egin beharra dugu ahalik eta azkarren txertoa sortu eta karakterizatzeko.

Duela hilabete bat hasi ginen proiektuan eta deskantsurik gabe ari gara. Konkretuki, txerto genetiko bat garatzen ari gara eta helburua udarako pertsonak tratatzen hastea da. **Birus berria eta ezezaguna da COVID-19a. Zer azpimarratuko zenuke birusaren inguruan?**

Egia esan ez da hain ezezaguna. Koronabirusak birus komunak dira, adibidez, koronabirus mota batek katarroa eragiten du eta gizakien artean zirkulatzen du. Kontran, COVID-19 gaixotasuna sortzen duen koronabirusa animalietatik heldu da, eta ondorioz, koronabirus komunekiko oso desberdina da eta gizakiek ez

dugu immunitaterik birusaren aurka. Bi koronabirus epidemia izan dira munduan: 2002an SARS eta 2012an MERS, eta bi kasuetan COVID-19a baino hilkortasun handiagoa eta kutsadura tasa txikiagoa izan zen eta epidemiak geldiarazi ahal izan ziren. Bi agerraldi horiek eman zirenetik, iker-tzaileek laborategietan egin duten lana erabakigarria izan da gaur egungo egoeran zientzia mundua egiten ari den aurrerapenarako.

**Koronabirusaren aurkako txertoa sortzeko hainbat proiektu daude...**

Bai, proiektu askoren helburua da txerto bat garatzea. Hainbat txerto mota daude eta labora-

tegi bakoitza bere estrategia jarraitzen ari da. Txertoen helburua birusaren aurka immunitatea garatzea da eta horretarako birusa gorputzari iratsi behar zaio. Birusa hainbat modutan erakuts daiteke: birus ez-aktibatua, birusaren proteina bat edota birusaren DNA zati bat txertatuz. Kontua da erantzun immunologiko determinatu bat eman behar dela birus bakoitzaren aurka eta txerto mota bakoitzak ez du berdin erantzuten. Koronabirusaren kasuan, ez dakigu zein txertok eraginen duen erantzun egokia infekzioa ekiditeko, eta beraz, estrategia guztiak batera garatzea da hobena.

**Batzuk entsegu klinikoak egiten ere hasiak dira pertsonetan. Horrek zein arrisku izan ditzake?**

Bai, estrategia horietako batzuk jada entsegu kliniko fasean daude, hau da, pertsonetan probatzen ari dira. Entsegu kliniko guztiak dituzte arriskuak, baina txertoen kasuan segurtasuna oso baldintza garrantzitsua da entsegua onartua izan ahal izateko, pertsona osasuntsuetan egin behar baita entsegua. Momentu honetan agentzia erregulatzailerak erantzunak jartzen ari dira txertoen frogak ahalik eta azkarren egin ahal izateko, baina segurtasunaren inguruan ez dira malguak.

**Sare sozialetan entsegu horiek egiteko Afrikara jotzeko aukera hartu izana salatzen duten mezuak ugariak dira...**

Horrek ez du inongo zentzurik. Jendeak baieztapen horrekin esan nahi du frogatu nahi diren txertoak kaltegarriak direla eta horregatik afrikarretan probatu nahi direla. Arrazismoaren inguruan ez dut komentariorik egiten. Bestalde, beti egon da enpresa farmazeutikoaren kontrako aurreiritzi bat: ez dutela inongo inentzio onik. Hasteko, txerto bat garatzeko esfortzuetako asko laborategi akademikoetan egiten ari dira. Bigarrenik, helburua txerto bat komertzializ-

### Leitzatik AEBra

Biokimikako ikasketak bukatuta, hiperoxaluria sendatzeko tratamendu alternatiboaren inguruan tesia egiteari ekin zion Nerea Zabaleta leitzarrak. Doktoretza egin bitartean, Parisen eta New Yorken ere ibili zen. Ez hori bakarrik. Terapi genikoaren arloko ikertzaille gaztearen saria ere eman zioten. 2019ko urtarrilean, berriz, AEBra bidea hartu zuen, doktoretza ondoko ikasketak egiteko. Luk Vandenberghe ikerlariaren laborategian hasi zen lanean Alfonso Martin Escudero Fundazioaren dirulaguntzari esker. AEBn dago geroztik. Gaur egun, Bostoneko Mass Eye and Ear ospitalean egiten du lan.



Nerea Zabaleta.

zatzea da eta horretarako agentzia erregulatu baten onarpena behar da; beraz, entseguak legea eta agentziaren eskakizunak bete behar ditu. Hirugarrenik, entsegue-tan parte hartzen duten boluntarioek gutxi dute galtzeko, segurtasuna da garrantzitsua, eta asko irabazteko, birusaren aurkako immunitatea.

### **Txertoen garapena ez da erraza izanen, ezta? Zein da prozesua?**


Bizi errealean prozesu luze bat da. Lehenik, hipotesia sortzen da: karakteristika determinatu batzuk dituen txerto honek immunitatea sor dezake. Aldi berean, estrategia bat diseinatzen da hipotesia esperimentalki laborategian baieztatzeko. Ondoren, produktua sortu eta karakterizatzen da; adibidez, birusaren proteina laborategian produzitu eta karakterizatu. Gero, produktuaren efikazia baieztatzen da; hau da, immunitatea sortzen duen determinatzea. Datu horiek positiboak badira entsegu kliniko bat planteatzen hasten da, segurtasun frogak egin eta agentziarekin hitz egiten da jakiteko zein baldintza jartzen dituzten produktua klinikan probatzeko. Egoera honetan fase horiek guztiak aldi berean egiten ari gara, eta sinets ezazue, lan handia da.

### **Noizko lortuko ote da txerto eraginkorra?**

Nire ustez txertoak eraginkor-rrak diren edo ez, entseguak hasi eta sei-hamabi hilabete-tara jakinen da. Zaila da esatea txertoa noiz komertzializatu-ko den, batez ere egoeraren larritasuna ikusita. Egia da, zenbat eta txerto potentzial gehiago garatu, orduan eta entsegu gehiago eginen direla; eta ondorioz, pertsona gehiago immunizatuko ditugula. Horregatik oso komenigarria da entsegu asko egitea, nahiz eta azkenean txerto bakarra komertzializatu den.

### **Txertoak zertarako balioko luke?**

Infekzioak gelditzeko oso garrantzitsua da talde immunitatea, hau da, zure inguruko



Nerea Zabaleta leitzarrak Bostongo ospitale batean egiten du lan.

pertsonak immuneak badira zuk askoz ere aukera gutxiago dituzu kutsatzeko, nahiz eta immune ez izan. Gaur egun, birusak gutxiago zirkulatzea da behar duguna, eta hori lortzeko modu bat itxialdia da: pertsonen zirkulazio tikiagoa baldin bada, birusen zirkulazioa murriztu egiten da. Beste modu bat pertsona immuneak izatea da, eta hori sendatu diren pertsona asko edukiz (immuneak bilakatzen baitira) edota txerkoen bidez immunizatuz lortzen da. Etor-kizunean, populazioaren por-tzentaje handiak edota osoak txertoa jasotzen badu, gaixotasuna desagerraraziko da, beste hainbat infekzioekin egin den bezala.

**«ABIADURA  
BELDURGARRIA  
HARTU DU  
IKERKETAK»**

### **Txertoaz gain, COVID-19aren kontra zein bide landu daitezke?**

Proiektu askoren helburua gaixotasunaren sintomen larritasuna murriztea edota birusa aktiboki ezabatzea da. Dagoeneko komertzializatuak dauden botikak eta antibiralak probatzea oso estrategia ona da, dosia eta albo-efektuak ezagutzen baitira. Hala ere, ez da soluzio ideala eta ez du kutsadura saihesten.

### **COVID-19a sortu denetik, administrazioek gehiago bideratu al dute zientziara? Eta hala eginen dute etorkizunean?**

AEBn adibidez, NIHa (hemen-gosun sistema) dirulaguntza espezifikoa ematen ari da COVID-19aren inguruan iker-tzeko; eta beste hainbat he-

**«ESPERO DUT DIRU  
PUBLIKO GEHIAGO  
BIDERATZEA  
IKERKETARA»**

rrialdetan ere gauza bera ger-tatu da, adibidez, Espainian. Hala ere, gure proiektu gehien-bat donazio pribatuekin finan-tzatzen ari gara, dirulaguntza publikoak ez baitira nahikoak prozesu hau finantzatzeko; batez ere hain denbora gutxian egin nahi badugu.

### **Koronavirusak nola aldatuko du zientziaren mundua?**

Galdera bikaina eta segur aski ez dago erantzun errealistarak. Gutxienez, osasun sistema aldatu beharko litzateke, horrelako egoera bati aurre egi-teko prest egon dadin. Iker- ketara diru publiko gehiago bideratzea espero dut, horrelako egoera baten aurrean erreakzioa azkartzeko eta hobetzeko. Adibidez, lehenago izan ziren koronabirus epidemiak ikertzeko diru gehiago eman izan balitz, birus berri honen inguruko jakituria handiagoa izanen litzateke, eta ondorioz, tratamenduak eta txertoak azka-rrago lortu izanen liriateke.



Karrape Irratiak 27 urte daramatza uhinetan. UTZITAKO ARGAZKIA

## Karrape irratia Internetez entzuteko aukera dago

Astelehenetik ostiralera 10:30etik 14:00etara zuzeneko irratsaioa eta podcastak eskainiko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Karrape Irratiak 27 urte daramatza goizak informazio, elkarrizketa eta herritarren arteko elkartrukez betetzen; musika eta umorea ere ez da inoiz falta izan. Aurrerantzean, 107.8 frekuentzian aurkitzeaz gain, sarean ere entzuteko aukera izanen da, irratia sintonizatzeko zailtasun eta interferentzia guztien gainetik, eta munduko edozein txokotatik entzuteko moduan.

Astelehenetik ostiralera 10:30etatik 14:00etara zuzenean emititzen diren irratsaioak *leitza.eus* web orrial-

dean bertan entzuteko aukera eskainiko dute. Karrape Irratia emititzen ari den tarte horretan, botoi bakarra sakatu eta nonahitik entzun ahal izanen dugu, irratia sintonizatzerakoan bezalaxe.

### Podcastak

Goizeko ordu-tegi horretan irratia jartzetik ez dutenei begira, hiru ordu eta erdiko azken hamar irratsaioak podcast edo grabazio gisa edozein momentutan entzuteko modua egonen da. Aukera hau ere *leitza.eus* web orrian bertan eskainiko dute.

## Sortzaileen txokoan herritarren sormenari tokia egin diote

### TTIPI-TTAPA

Etiketari atera ezin askoren irudimena martxan jarri du eta argazki kamerak, boligrafoak, grabagailuak... hartu eta lan ederrak sortu dituzte. Ate-kabetxen dinamika egindako proposamena izan zen eta bilduma ederra osatu dute.

Erakusketa fisikorik egin ezinenez, erakusketa modu birtualean egiten ari dira. *atekabeltz.wixsite.com* helbidean ikus daitezke orain artean jaso dituzten lanak. Eta sormenak mugarik ez duenez, etorkizunean jasoko dituztenak ere bertan jarriko dituzte ikusgai.

## Kultur Arorik eta Sagardo Egunik ez da izanen aurten

### TTIPI-TTAPA

Altzadi Leitzako Kultur Elkar-teak apirilaren 20an jakinarazi zuen Covid-19ari aurre egiteko hartu diren neurriak tarteko, maiatz erdialdean hasi ohi den Kultur Aroa eta ekainean ospatzen duten Sagardo Eguna ez dituztela antolatzerik izanen.

1978az geroztik urtero antolatu du Kultur Aroa ALKEK, hainbat boluntariorekin elkarlanean. Maiatzean hasi eta lau bat astez hitzaldiak, musika, ikuskizunak, erakusketak, artisau azoka... izan ohi dira egitarauaren parte eta ekain erdialdean Sagardo Egunarekin borobiltzen dute. Uda ondotik, ohiko ekitaldiei eusteko gogoz direla gaineratu dute «zuen guztion ohiko laguntzarekin, ea udazken-neguko ekintzak egiteko moduan ga-



lazko Sagardo Eguna.

ren. Eskerrik asko eta eutsi goiari!».

### Euskal Herria Mendi Erronka ere bertan behera

Kirol hitzorduetan ere izanen du eragina egungo egoerak. Ekainaren 6an egitekoa zuten Euskal Herria Mendi Erronka ere ez dutela eginen jakinarazi dute antolatzaileek. Datorren urterako egin dute zita, 2021eko ekainaren 5ean dute korrikalariak hitzordua.



Kaxkabeltzaren kanpainarako bideoa bidalita lortu du saria Haizeak.

## Haizea Azpirozek irabazi du Kaxkabeltzak zozketatutako erosketa txartela

### TTIPI-TTAPA

Nik Leitza erosten dut... esaldia osatuz bideo bat grabatu eta bidaltzeko proposamena egin zieten herritarrei Kaxkabeltz Elkarteak. Parte hartzea handia izan da eta bildutako argudioak ere denetarikoa. Hogeita lau bideo jaso dituzte denera eta trukean

ehun euroko erosketa txartela zozketatu dute parte hartzaileen artean. Apirilaren 20an, eguerdian, Karrape irratian zuzenean egin zuten zozketa eta Haizea Azpiroz izan da irabazlea. Herriko komertzioetan erosketak egin ez sariaz gozatzeko aukera izanen du laster.



# 153 saski banatu dituzte 'Baserritik etxera' hiru astetan

Ostiralero azokak berriz ere baimentzekotan direnez apirilaren 24an egitekoa zuten azken banaketa

## TTIPI-TTAPA

Azokak antolatzeko baimena bertan behera egon den biartean, bertako baserritarren produktuei irteera emateko *Baserritik etxera* ekimena egin dute Leitzaldean. Herriko laguntza sareko boluntarioen bidez egin dituzte banaketak eta elkarlanaren erakusle bikaina bihurtu da.

Arrakasta handia izan du herritarren artean ere, astez aste eskaera asko bilduz. Datuak dira horren erakusle: hiru astetan (laugarren asteko banaketa egitekoa zegoen hau idazterakoan) 153 saski banatu dituzte: 37 lehenbiziko astean, 55 saski bigarrenetan eta 61 saski hirugarrenetan.

## Tokiko 900 tona elikagai

Elikagaiak tonetan ere neurtu dituzte eta tokiko ia 900 kilo elikagai izan dira etxeetara banatutakoak: «datua bikaina da». Gainera, antolatzaileek adierazi dute eskaerak egin dituen jende gehiena 45 urtetik beherakoa dela «eta hori oso pozgarria eta itxaropentsua dela».




Frontoian antolatu dituzte banaketak

Datozen asteetan badirudi, berriz ere, azokak irekitzeko baimena emanen dutela seguratsun protokolo batzuk segiz. Horregatik, apirilaren 24an azken banaketa egitekoa zuten *Baserritik etxera*. Dena den, apirilaren 24tik aurrera dinamika honen funtsari eta izaten ari den arrakastari eutsi asmoz, moduak aldatu behar badu ere, salmenta zuzenerako beste aukera batzuk aztertzen ari dira.

## «Herritar guztiek egiteko moduko ekintzak antolatzen saiatzen gara»

MAIA SARALEGI PERURENA ATEKABELTZeko KIDEA

Alarma egoera luzatuko zela ikusi zutenean, Ateka... etxen dinamika martxan jartzea erabaki zuten Atekaeltzeko gazteek: «herritarrek animatzeko helburuarekin eta gure jardura osotara ez gelditzeko hainbat ekimen antolatzen hasi ginen».



MAIA SARALEGI

Atekaeltzeko kidea den Maia Saralegik azaldu digunez, ahalik eta herritar gehienengana iristea dute helburu eta horregatik, «antolatzen ditugun ekimen guztiak edonork egiteko modukoak izan daitezten saiatzen gara». Eginahalak izan du ordaina eta «oraingoz antolatutako guztiak harrera ona eduki du herrian». Leitzako sortzaileen txokoak izan duen arrakasta azpimarratu nahi izan du: erakusketa birtuala izan da eta jende askok parte hartu du; oraindik herritarren lanak jasotzen jarraitzen dugu».

Antolatzeko, bideo-deiak egiten dituzte, «normalean ostiraletan». Irudimena dute lanabes eta besteek antolatzen dutenari zeharka begira ere ibiltzen direla aitortu du: «beste gaztetxe edo elkarte batzuk antolatutako ekimenetatik ere ideiak hartzen ditugu». Astero programazio berria osatu dute, «garrasi txapelketa, Argoitz DJa, argazki herrikoa, inauteriak balkoietan... Horretaz gain, ostiralero pintxo potea antolatzen dugu eta asanbladako kide batzuen artean egiten dugun Satellite irradian lehiaketa bat gehitu dugu jendeak parte har dezan». Horrekin nahiko ez eta «bi egunean behin erronkak luzatzen ditugu gure sare sozialetan». Aurrerantzean ere, asteroko ekimenak antolatzen segitzeko asmoa dute, «urtero maiatza inguruan antolatu ohi dugun film laburren txapelketa egitea ezinezkoa izanen denez, maiatzaren 8an bikoizketa txapelketa antolatu dugu». Eta izanen dira ekintza gehiago, «oraindik ez dugu guztia zehaztu, baina seguruenik berrogeialdia amaitu bitartean ekintzak antolatzen jarraituko dugu».



Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA  
 📞 T. 948 631 218  
 ✉️ joxemi@kateabike.com  
 🌐 www.kateabike.com

SCOTT  
ORBEA

GIANT  
BH

MERIDA BIKES  
CANDIA

inelsa  
ZENER  
ascensores  
igogailuak

Igogailuen instalazioak.

Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400  
 www.inelsazener.com

## «Zahar etxetik kanpo ez da bertze tokietan baino positibo gehiago izan»

**IÑAKI MARCOS ZORROZA** BAZTANGO OSASUN ZENTROKO ZUZENDARIA

TTIPI-TTAPAREN eremuko datuei erreparatu, badirudi Baztan bilakatu dela COVID-19aren foku nagusia. Iñaki Marcos medikuaren arabera, zahar etxeko positiboan ondorio da hori

**G. PIKABEA** | ELIZONDO

Azaroan berrartu zuen Iñaki Marcosek Baztango Osasun Zentroko zuzendari kargua. Ardura ez du ezezaguna, «lehen ere lau urtez egon nintzelako». Koronabirusa tarteko sortu den egoera, ordea, berria da beretako baita bere lankideendako ere. «Datuak, neurriak eta berriak egunero aldatzen» direla dio eta etengabe Osasunbidearekin harremanetan daudela baieztatu digu: «Astean behin bideo-konferentzia egiten dugu Lehen Mailako Arretako zuzendaritzarekin». Baztango errealtatearen lekuko zuzena denak eman digu bertako egoera zehatzaren berri. **Datu ofizialen arabera, eskualdean, Baztanen daude kasu gehien...**

Zahar etxeko datuen ondorio da. Baina zahar etxetik kanpo Baztanen ez da Nafarroako bertze eremuetan baino kasu positibo gehiago izan. Medikuntzaren kontsultategietan positibo batzuk izan ditugu, baina ez bertze eremuetan baino gehiago. Are gehiago, apiril hasieran zahar etxean positiboak agertzen hasi ziren arte, Baztanen koronabirusa dutenen kopurua ttikia zen, mila biztanleko bi edo. Zahar etxean kasuak agertzen hasi zirenean egin zuen kopuruak goiti. Aurreikuspenen arabera, zahar etxetan %70ak positibo emanen du.

**Osasunbidearen arabera apirilaren 20an, Baztanen 43 positibo ziren. Zahar etxean, ordea, 76 positibo baieztatu zituzten...**

Nafarroako Gobernuak oinarriko osasun eremuka ematen dituen datuak Osasunbidearen bitartez egindako PCR proban positibo eman dutenak dira. Elizondoko zahar etxeak, ordea, kudeaketa pribatua izanik, egin dituen probak bere aldeetik egin ditu, enpresa pribatu baten bitartez. Hori da datuak bat ez etortzearen arrazoia. Dena den, Baztanen 43 positibo horien artean zahar etxeko 25 kasu daude, Osasunbidearen bidez proba egin dutenak baitira. Horiei, bide pribatutik egindako probetan positibo eman dutenak gehitu behar zaizkie, zahar etxean guztira 76. Gobernuak jakinarazia du

ez duela PCR proba pribaturik onartuko, fidagarritasuna bermatzen ez dutela iritzita.

**Zein dira Baztanen positibo eman dutenen ezaugarriak?**

Gehienak 80 urtetik goitikoak dira, eta horien artean batez ere, lehendik patologiak dituztenak: hipertentsioa, bihotzeko edo giltzurruneko arazoak, arnasketa arazoak... Halakoe-tan errazagoa da gaixotzea.

**Nafarroan, koronabirusaren ondorioz hil direnen erdia baino gehiago zahar etxetan hil dira. Nolakoak dira datuak Baztanen?**

Egunero aldatzen dira. Baztanen 14 hildako izan dira, horietatik hamar zahar etxean eta zahar etxetik kanpo lau. Sei-


-zazpi dira ingresatuak eta tartean, hiru zahar etxeokak.


**Baztango kontsultategietan zein duzue egoera?**

Oraingoz lanean ongi ari gara. Martxoaren 13an konfinamendua indarrean sartu zenetik asteburuetako larrialdi kasuak artatzen zituen mediku bat gaixotu da. Bertze langileon artean ez da positiborik izan, bakoitzak bere lanpostuan segitzen dugu. Elizondoko osasun zentroan arnasketa arazoak dituztenendako eremu bat egokitu genuen eta ustezko koronabirus kasuak, ahal den neurrian, telefonoz artatzen ditugu, protokoloak agindu bezala. Egunero telefono bidez jarraipena egiten diegu eta desorekatuta duten sintomaren bat baldin badute etxera bisitan joaten gara. Hori bai, Norbera Babesteko Ekipamendua (NBE) eta bertzelako babes neurri guztiak hartuta. Egoeraren arabera, plakak egitera edo larrialdietara ere bidaltzen ditugu. Gainerakoan, egunero martxan, Urdazubi, Arizkun, Elizondo, Irurita eta Orozoko kontsultategiek ez dute gainezka egin eta kontsulta gehienak telefonoz egiten ari gara. Pazienteek nahiago dute osasun zentroa ez hurbildu, eta hobe horrela.

**Testak egiten dituzue?**

Hasieran osasun arloko profesionali testa egiteko agindu ziguten. Apirilaren 14an, berriz, test azkarrak bidaliko zizkigutela jakinarazi ziguten. Zahar etxeko egoiliar guztiei, osasun etxeko langile guztiei eta sintomak dituztenei eginen dizkiegu test azkarrak. Nafarroako Gobernuak 15.000 test azkar banatuko ditu lehen mailako arreta eskaintzen duten kontsultategietan. Test azkar horiek, ordea, muga bat dute: zazpigarren egunetik aitzine-ra ematen dute positibo, gorputzak defentsak sortzen dituenegatik. Test horrek antigorputzak neurtzen ditu eta ez du bereizten gaixotasuna pasatua duzun edo une horretan pasatzen ari zaren. Hala, positi-





Iñaki Marcosek joan den azaroan hartu zuen Baztango osasun zentroko zuzendari nagusiaren kargua.

bo eman dutenei gero PCR proba egin beharko zaie; positiboa bada gaixo asintomatikoa dela erran nahiko du, eta negatiboa bada dagoeneko pasatua duela eta babestua dagoela. Biztanleria sailkatzeko aukera eskainiko digu.

#### **Baliabide nahikoa baduzue?**

Orain bai. Hasieran, zalantzak eta esperientzia falta ziren nagusi. Maskarak, eskularruak, gela eta etxeetara joateko Norbera Babesteko Ekipamendua behar zirela bagenekien baina... Orain ailegatu dira eta nahikoa badugula erraten ahal dugu. Herritarrek etxean egindako maskarak bidali dizkigute, babeserako pantailak ere jaso ditugu eta albaitariak bertzelako materiala ere eman digute.

#### **Segurtasuna bermatua duzue?**

Herritarren %80k sintomarik ez duela diote eta ezin dugu guregana datorrenak koronabirusa duen ala ez jakin. Segurtasun neurriak betetzen ari gara eta guti goiti-beheiti seguru ari garela erran dezakegu.

#### **Baztango herritarren artean kezka sumatzen duzue?**

Adinekoen artean bai, baina hori Baztanen eta toki guztietan. Hasiera batean, komunikabideetatik informazio bonbardaketa jaso genuen; adinekoek eragiten ziela, ospitaleak gainezka zeudela... Horiek adituta adinekoengan beldurra sumatzen zen. Orain, ordea, jendea lasaiago dagoela ematen du. Hori bai, zahar etxean senitartekoren bat dutenak kezkatuta daude.

#### **Ondoko egunak eta asteak nolakoak espero dituzue?**

Zaila da jakitea. Osasun alderditik begiratu, gainerako patologiek beheiti egin dute. Ez dakigu jendea osasun etxera etortzeko beldurrez minari

etxean eusten ari delako ote den edo zergatik den. Gainerakoan, ez dakigu koronabirusak nolako bilakaera izanen duen. Puntu gorenera ailegatu dela eta beheitiko joera hartuko duela erraten dute, eta hala izatea espero dugu. Egun bat eta hamalau egun artean egon daiteke inkubatzeko gizaki baten gorputzean eta hala, gaixorik egonagatik handik hamalau egunetara ager daitezke sintomak. Horregatik hartu dira neurriak eta maskarak erabiltzea eta eskuak garbitzea garrantzitsua da.

#### **Konfinamenduak positibo kopurua kontrolatzen lagundu du?**

Orokorrean bai. Baina zahar etxeen eredia berrikusi beharko dela erraten hasiak dira.

**«BIDE PRIBATUTIK EGINDAKO PROBAK GOBERNUAK EZ DITU ZENBATZEN»**

**«GRIPEA EZ BEZALA, ESPERO DEZAGUN COVID-19A EZ MUTATZEA»**

Hau dena pasatzen denean, denetariko azterketak egingen direlakoan nago, langileriaren ratioak egokiak diren, zahar etxeek horrelakoak izan behar duten edo independentzia gehiago izan eta pisu tutelatuen gisakoak izan behar duten...

#### **Adinekoengan jarria da arreta, baina haur eta gazteen artean kezkatzeko gaia da?**

17 urtetik beheitikoetan kasuren bat edo bertze izan dela aditu dugu, baina kasu larriak izatea arraroa da. Normalean, gazte jendeak katarro arrunt bat bezala pasatzen du. Adinekoen artean %20k gaizki pasa dezake eta gazteetan bi milatik edo milatik batek. Adinekoengan jarria da arreta, gaixotasuna edozein dela ere, beraiek direlako ahulenak.

#### **Jendea jakitun da egoeraren larritasunaz?**

Karrikan ikusten dudaren arabera, orain bai. Norbera ongi izatea ez dela aski konturatzeko hasia da, birusa izan dezakeelako eta bere familiarri transmititu diezaiokelako.

#### **Zein aldaketa ekarriko ditu koronabirusak?**

Zaila da erantzutea. Orain hartu dugun kontzientziazioak irau bitartean, distantzia soziala mantendu eta eskuak garbitasunarekin segituko dugu. Noiz arte, ez dakigu. Lehen ere izan dira halako pandemiak, baina gure belaualdiak ez du halakorik eza gutu eta ez dakit nola erantzuten duen. Hala ere, nik uste koronabirusa gure oroimenean geldituko dela, batez ere gaizki pasatu dutenen eta senitartekoak galdu dituztenen oroimenean. Txerto eraginkorra lehenbailehen ateratzea da gakoa, hori izan baina hau geldiarazteko modua. Prebentzio neurri gisa funtzionatuko du, ez bada behintzat mututzen. Eta hori ere kezka-iturri da. Gripearren birusa urtero aldatzen da, eta aurten immuneak direnak heldu den urtean berriaz kutsa daitezke. Espero dezagun COVID-19arekin ez gauza bera gertatzea.

# «Zahar etxeko egoiliarrak inoiz baino zainduago daude»

**RAFAEL SANCHEZ-OSTIZ** ZAHAR ETXEA KUDEATZEN DUEN IDEA ENPRESAKO ZUZENDARIA

Elizondoko zahar etxean pandemiaren hedapena ezagutzeko proba diagnostikoak egin dituzte. Sanchez-Ostizen ustez, emaitzek «birusari aitzin hartzeko» bide eman diete

## TTIPI-TTAPA

Ez dira betiko garai onenak Elizondoko Francisco Joaquin zahar etxearentzat. «Bereziki hondarreko hilabete honetan» birusa izugarri hedatu da haien egoitzan. Martxo bukaeran «hiruzpalau positiborekin» hasi ziren eta apirilaren 8an egoiliar eta langile guztiei egindako probetan «76 egoiliarrek eta 13 langilek» positibo eman zuten. Emaitzak ikusita, «aparteko neurriak hartu eta beldurra baretzeko» lanean ari dira.

### Zertan eragin du koronabirusak zahar etxean?

Nagusiki hondarreko hilabetearen eragin du. Hamalau ohatzeko isolamendu gune bat prestatu genuen arren, kasuak agertu zirenez, egoiliar eta langile guztiei probak egiteko plan bat egin genuen.

### Lehendabiziko ondoez zantzuak noiz sumatu ziren zahar etxean?

Martxoaren hogeitik goiti. Gai-xoak ospitalera eraman genituen eta probak egin eta positibo eman zuten.

### Pixkanaka hedatuz joan zen...

Bertze zentroetan hedatu den bezala. Erakunde hauetan, ez dakit zergatik, segurtasuna ez da guztiz bermatzen, langileak sartu-atera ari dira. Dena den, badira eraginik izan ez duten zentroak. IDEAk Nafarroan kudeatzen dituen bertze hiru zentroetan ez dago kasu bakar bat ere... Guztietan protokoloa martxan paratu zen. Ziurrenik kanpoko batek sartuko zuen, ospitalean kutsatu zen bakarren



Zahar etxea kudeatzen duen IDEA enpresako zuzendaria da Rafael Sanchez-Ostiz.

batek edo jakizu! Ezinezkoa da birusaren jatorria zehaztea.

### Noiz erabaki zuten egoiliar eta langile guztiei probak egitea?

Egoitzetan probak egiteko eskatzen ari ginen, sektore guztian, baina ez zituzten egiten... 20 lagun inguru bakartuta eta bertze hiru positibo genituen. Egunean bizpahiru kasu agertzen ari ziren eta, hasieran behintzat sintoma arinak zituzten arren, areagotzen ari zirela ikusita horretan hasi ginen. Gizarte Zerbitzuen Departamentuari proiektu pilotua proposatu genion, birusaren garapenaren berri izangenezan. Horrek langileei eta egoiliarrei probak egiteko aukera eman zigun, bereziki sintomarik gabek zein ziren jakiteko.

### Noiz aurkeztu zuten proiektua?

Apirilaren 6an, astelehenean, mahaigaineratu genuen, asteartean onartu ziguten eta asteazkenerako probak egiten ari ginen. Apirilaren 10erako emaitzak eman zizkiguten eta banaketa egiten hasi ginen. Larunbatean Baztango Udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin bildu ginen eta igandean negatibo eman zutenak Lekarozera lekualdatzen aritu ginen. Arras agudo egin zen.

### Zenbati egin zitzaizkien probak eta zein izan ziren emaitzak?

148 egoiliarrei egin zitzaizkien eta 76k positibo eman zuten. Horietatik 47 sintomarik ez zutenak ziren. Langileei dagokienez, berriz, 82ri egin zitzaizkien eta 13 positibo izan ziren.

### Zer neurri hartu zutenen?

Zentroa guneka banatu genuen: negatibo eman zuten batzuk Lekarozera eraman genituen; bertze batzuk, negatibo eman zuten arren, ahul daudenez zentroan gelditu ziren, bakartuta; horietatik aparte dagoen solairu batean positibo eman zutenak baina sintomarik ez zutenak bakartu genituen; eta bertze batean sintomadunak. Lau egoiliar familiarekin etxera joan ziren eta horiei segimendua egiten ari gara.

### Nola jaso zenituzten emaitzak?

Sintomarik gabeko kasu positibo kopuru altu horrek harritu gintuen. Egiazki horiek izan dira arazoa, ez baitakite kutsatzeko aukera dutela. Horrek ez du erran nahi sintomarik gabeko guztiek kutsatzen dutela, duten birus-kargaren arabera da kutsakortasuna. Emaitzak ezagutzeak arazoa ezagutzeko bide eman digu. Probak egitearen alde positiboari erreparatu behar zaio: jendea salbatzeko aukera izan dugu, birusari aitzin hartu diogu.

### Zein egoeratan daude gaixoak?

Denetarik dago. Bada ahul dagoen jendea baita ongi daudenak ere. Dena den, ahul daudenak ez daude horrela birusarengatik... Egoiliarren batz bertzeko adina 83 urtetik goitikoa da. Patologia aunitz dituen jendea dago, egoera zailean daudenak... Langileak, orokorrean, ongi daude. Pare batek sintoma arinen bat izan du, baina gainerakoek ez dute sintomarik.

### Martxo hasieratik zenbat hil dira?

Zazpi egoiliar hil dira. Anitz diruditen arren, hemen dagoen biztanleriaren proportzio handia aztertuz gero, batz bertzekoaren azpitik gaude.

### Zein mezu helaraziko zenieke egoiliarren senitartekoei?

Egoiliarrak inoiz baino zainduago daude. Langile guztiek eginahalak egiten ari gara, komunikazioa indartu dugu... Guretzat garrantzitsuena konfinamenduan dauden adineko horiek dira eta beldurra baretzeko lanean ari gara.

# Zahar etxean «hartu beharreko neurrien falta» salatu du LABek

LABen ustez «76 erabiltzailek eta 16 langilek» positibo eman izanak «garbi uzten du enpresa kudeatzaileak ez dituela hartu beharreko neurriak hartu»

## TTIPI-TTAPA

Duela aste batzuk, LAB sindikatua IDEAk kudeatzen duen Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zahar etxeko funtzionamendua «arras eskasa» izaten ari zela salatu zuen. Horren aitzinean, enpresak «beraien gestio eredugarriaz» erantzun zion. Erantzun horretan «langileok gezurtizat» hartu izana salatu du LABek. Are gehiago, «berriki ezagutu ditugun emaitzek, tamalez, arrazoa ematen digutela» uste dute.

## Egoera «gogorra»

Egoera «gogorra» bizitzen ari direla gaineratu dute, batetik, «zama fisiko eta psikologikoaren ondorioz (lan ordu gehiago, heriotzak, presioak...), eta bertetik, «enpresak handikeriaz segitzen duelako jokatzeko eta erabiltzaileen eta gure ongizatea bortzaxola zaielako».

## «Dirulaguntzak ukatu»

Horren erakusle, IDEAko zuzendaria den Rafael Sanchez-Ostizek «kontratazio gehiago egin ahal izateko Baztango Udalak eskainitako dirulaguntzari hiru aldiz uko egin diola» salatu du: «gero euren burua nola txalotzen duten ikusi behar izateko, Covid-19a atzemateko probak egin dituen lehenbiziko zahar etxea dire-

la erranez, 148 erabiltzailetatik 76k eta 85 langiletatik 16k positibo eman dutenean eta emaitza horiek izanda ez dutenean inongo neurririk hartzen». Horrek guztiak «haserrea eta amorrua» eragiten diela azpimarratu nahi izan dute.

## Langileen jarrera «txalogarria»

Txalogarritzat jo dute langileen jarrera, «lan orduak eta egunak beharren arabera egokitzeko prest daudelako eta Norbera Babesteko Ekipamendu (NBE) berak behar baino gehiagotan erabiltzen dituztelako». Gehiegizko erabilera «zahar etxeko zuzendaritzak NBEak giltzapean gordetzearen eta gerra garaian bezala, gutxika-gutxika ematearen» ondorio dela adierazi dute. Horrek, halaber, «inongo lan osasun segurtasun logikarik ez duela» deritzote.

## Udalari eskerrak

Esker oneko hitzak dituzte Udalarentzat «patronatuak duen utzikeriaren gainetik, alkatetzak jarrera aktiboa eta eraikitzailea» izan duela argudiatuz: «kontratazioak egiteko laguntzaren bitartez hainbat organismoekin kudeaketak eginez eta aipatutako probetan negatibo eman zutenak Lekarozko aterpean bakartzea lortuz». Lekarozera garraiatzeko erabakia Udalarena izan

**«EKONOMIA LEHENETSI DUTE OSASUNAREN GAINETIK»**

**«NEURRIAK BERANDU ETA PRESAKA HARTU DITUZTE»**



UTZITAKOA

## Zerrikumeak zahar etxearendako

Navartxerri elkarteko abeltzainek hazitako zerrikumeak jaso dituzte Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean. Osasun-krisiari aurre egiteko asmoz, Nafarroa osoko zahar etxeetara 80 zerrikume bidali dituzte Navartxerri elkartekoek. Irurritako Luismi Arraztoak eraman ditu zerrikumeak Elizondoko zahar etxera.

## Adinekoak zaintzeko lan eskaintza

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxeko 36 egoiliar, koronabirusean negatibo eman zutenak, Lekarozko Aspaceren egoitzara lekualdatu zituzten apirilaren 12an. Hori horrela, hauek artatzeko eta zaintzeko langileak behar direla eta deialdia egin zuen Baztango Udalak. Interesa zutenei [baztan@baztan.eus](mailto:baztan@baztan.eus) helbide elektronikora izen-abizenak, kontaktua eta laneko esperientzia adieraziz idazteko eskatu zien eta informazio gehiagorako 948 58 00 06 telefonora deitzeko gomendioa eman zuen.

dela dio LABek: «azkeneko neurri hau berari [Baztango Udalar] esker lortu dela, etorkizunean, neurri hori bereganatuz, bertze inork bere burua txalotu ez dezan, gainera, zegokienean, erabaki hori hartu ez zutenak izan zirenean».

## «Inprobisazioa» oinarri

Neurriak «berandu, presaka, zehaztu gabe eta langileon gain utzita» hartu dituztela argitu dute: «ez da deus berria azken aste hauetan». Egoiliarrek aterpera eraman zituztenean «egun batetik bertzerera egindako aldaketa izanda, erabiltzaileak modu egokian egoteko eta osasuna bermatzeko beharrezko baliabideen»

eskasia sumatu zuten. «Inprobisazioa oinarri» izatea salatu dute: «Noiz arte izanen da inprobisazioa osasun krisi hau kudeatzeko oinarria?».

## Ekonomia osasunaren gainetik

«Lehentasun ekonomikoak osasunaren gainetik» paratu dituztela adierazi dute, «eta jarrera horrekin bizitza aunitz jokoan paratu dituzte. Denborak erranen du IDEAren handikeriak zenbat bizitza balio dituen, baina horren aitzinean norberak jakinen du zein eta zer txalotzen duen».

Eurek argi dute: «gu, gure zaharren, lankideen eta osasunaren alde egonen gara. Bertze batzuek ez dute hori erratan ahal».



Maiatzaren 23an egitekoa zuten mendi duatloia bertan behera utzi dute.

## Bestarik, eskola ttikien egunik eta mendi duatloirik ez

Eskola ttikien besta «osasun-larrialdia pasatzen denean» eginen dutela adierazi dute

### TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 17rako antolatzen ari ziren Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko eskola ttikien besta; 20tik 24ra ospatzekoak zituzten Salbatoreak eta hila-bete berean, 23an, egitekoa zuten Iruritako Mendi Duatloia bertan behera utzi dituzte Iruritan koronabirusagatik.

### Duatloia

Mendi duatloia hiru garren edizioa zuten aurten Iruritan eta bakarka zein erreboka parte hartzeko aukera eskainia zuten: 10,5 kilometroko luzera eta 450 metroko desnibela

duen ibilbidea lasterka eta 20 kilometroko luzera eta 800 metroko malda duen itzulua mendi bizikletan, banaka edo erreboka.

Bertan behera uzteko erabakia «penaz» hartu dute antolatzaileek. Halere, «hurren-go urtean, inoiz baino gogo handiagoakin itzuliko» direla nabarmendu dute.

### Eskola ttikien besta

Iruritako eskolako guraso elkarteak eskola ttikien besta gibelatzea erabaki duen arren, «osasun-larrialdia pasatzen denean» eginen dute.

## «Egindako lana eta ilusioa desegitea izan da zailena»

ARITZ URRUTIA IRURITAKO GAZTEA

### TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 20tik 24ra ospatzekoak zituzten Iruritako Salbatore bestak bertan behera utzi behar izan dituzte, baita astebete lehenago egitekoak zituzten Herri Ttikietako Eskolen Besta eta Mendi Duatloia ere. Erabakia «zentzuzkoena eta saihestezina» zela aipatu du Aritz Urrutia Iruritako gazteak, baina aitortu du: «ordurako egindako lana eta sortutako ilusioa desegitea» izan dela zailena.

### Ezohiko egoerak, ezohiko erabakia hartu beharra dakar...

Ez guk, ez jende anitzek ez luke pentsatu izanen halako kalapita sortuko zenik. Egoerak izan duen bilakabideak bultzatu gintuen erabakia hartzera; alkatea eta bere lan taldean, nahiz bestetako batzordea osatzen duten haien bat eragilerekin (herriko gazteak, guraso elkarteak...) batera hartu zen erabakia. Erabakizentzuzkoena eta aldi berean saihestezina izanen zela iruditu zitzaigun guztioi. Ordurako egindako lana eta sortutako ilusioa desegitea izan da zailena...

### Zein aukera dituzue burutan?

Proposamen faltan ez gaude zorionez! Ideia anitz plazartu dira momentuz ospatu ezin ditugun beste buelta hartzeko. Hasieran gehienoi data aldaketarena etorri zitzaigun burutara; indar gehien duen proposamena dela iduri du. Dena den, zaila dirudi momentu honetan bestak, bere horretan, berte data batzuetan finkatzea. Ikusiko da ze forma ematen diogun ospakizunari, baina ez dugu inorkanpoan utziko. Hori argi dugu!



Aritz Urrutia. UTZITAKOIA

### Zer galera dakar honek?

Hainbat arlotan izanen dira galerak. Oraindik ezin da jakin ekonomikoki suposatzen ahal duena herriarendako, baina nabaritu da dudarik gabe. Hala ere, dirua ez da dena. Bistan dago eskualdeko lehen-dabizikoetakoak direla, gogo handiarekin hartzen direnak direla eta ilusioa ere maila berean sortzen dutela, herrian eta inguruan. Urteak darrazkigu besta borobilak antolatzen, geroz eta ekitaldi anitzagokoekin, jendea erakartzen... aurten faltan botako ditugu denok egutegian gorri markatutako egun horiek.

### Hitzartutako ekitaldi eta musika taldeen kontzertuekin zer gertatuko da?

Momentu arte hitzartutakoak taldeak ziren. Guztiei jakinarazi zitzaie hartutako erabakia eta aldi berean, aukera izandakoan kontuan izanen genituela ere erran zitzaie. Bertzelako ekitaldiak, aldiz, ez zeuden hitzarturik.

### Besterik aipatu nahiko zenuke?

Eskerrak eman nahiko nizkie gelditu gabe dena ematen ari diren pertsona guztiei, herritar guztiei sasoa opa eta besarkada bat bidali. Beti aitzinera!

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak

**Dolarea**

**Eskualdean egindako sagardoa**

**Txotx denboraldiaren irekiera**

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212



Santiagoetako emanaldiak 1994an berrartu zituen Recreo musika bandak.

## Recreo musika bandaren urteurren ospakizuna eten da

Kontzertuak eta sorpresak ezeztatu dituzten arren, musika bandak lanean dihardu, aukera dutenean ospatu ahal izateko

### TTIPI-TTAPA

Urte berezia izaten ari da 2020a Elizondoko Recreo musika bandarentzat, Baztango karraketan eta inguruan emanaldiak modu jarraian ematen hasi zenetik, 25 urte bete baitira.

Nahiz eta Elizondoko Recreo musika bandaren lehendabi-

ziko lekukotasunak 1906koak diren, egungo taldea 1978an sortua da, Juan Eraso Olaetxeak taldea errekeratu zuenean.

Urte hauetan guztietan, Candido Albistur Iturriak, Alberto Beltzunegik, Antonio Olondrizek eta Feliciano Beibidek zuzendu izan dute Recreo musika banda.

1978an, Juan Eraso Olaetxeak musika akademia bat eratu zuen, 12 musikari inguru bilduta, Kalaxka fanfarrea sortzeko bide eman zuena. Ikasleak gehitzearekin batera, 1980 eta 1986 artean musika banda sortu zen eta mende hasierako bandaren izena hartu zuen.

### Musika eskolaren sorrera

1988an sortu zen Baztango musika eskolari esker, bandak herriko Santiago bestetako emanaldiak berrartu zituen 1994an. Bandaren etapa luzena da, hain zuzen, Recreo musika bandak oroitzen duena aurtengoan.

25 urteotan hiru zuzendarik gidatu dute taldea: 1995ean eta 1996an Javier Igoa Altzugarai izan zen zuzendaria; 1997tik 2005era Juan Carlos Moreiro Jimenez; eta 2006az goerotik Rosa Mari Santxex da zuzendaria.

### Ospakizun emanaldiak

Egoerak behartuta, urteurrena ospatzeko antolatuak zituzten kontzertuak eta sorpresak ezeztatu behar izan dituzte. Hala ere, musika bandak lanean dihardu, aukera dutenean «ilusioz» bizi dute urteurrena ospatzeko.

## Hizkuntza-paisaia euskaratzeko dirulaguntza emanen du Udalak

### TTIPI-TTAPA

Elkarteek, merkataritza zein ostalaritza establezimenduek edota enpresek hizkuntza paisaia euskaratzeko laguntzak eskainiko ditu Baztango Udalak.

Merkataritza errotuluak euskaraz paratzeko 2.000 euroko aurrekontua du eta honakoak dira lagunduko direnak: kanpoko errotuluak, toldoak (errotulu funtzioa egiten badute), erakuslehoetako errotulazioa, establezimendu barrenekoa...

Euskara hutsean idatziriko errotulazio elementuek gastuaren %50a bitarteko dirulaguntza jasoko dute (gehienez 500 euro); euskaraz eta erdaraz idatzitakoek (betiere euskarari lehenetasuna emanik) gastuaren %25a bitarteko dirulaguntza (gehienez 250 euro).

### Eskaerak irailaren 30era arte

Eskaerak 2020ko irailaren 30era arte (14:00 arte) aurkez daitezke Baztango Udaleko erregistroan.

MARMOLÉS  
SOULE

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK  
PANTEONAK  
KANPOSANTUAK  
HARRI LANAK  
ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE  
**abokatua**

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

BRIKO  
BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan  
dutaontzia jartzea

Pinturak  
Fatxadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es  
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Pasa den urtean Herri Haitadan parte hartu zuten herritarrak.

## Herriko bestak eta Herri Haitada bertan behera gelditu dira

### ARANTXA ETA IRAIA

Covid-19aren ondorioz sortu den egoerak gure eguneroko bizitzan izan duen eraginaz gain, herrian bertzelako eraginik ere izan du: ospatzear ziren herriko bestak bertan behera gelditu dira. Momentuz ospatzerik izanen ez badira ere, Urdazubiko Gazteriak adierazi du udan edo egoerak uzten duenean herriko besten seinale bat eginen dutela. Hori antolatzeko, herritarren proposamen eta iritziak jaso nahi dituzte; guztiak kontuan hartuko dituztela azpimarratu dute. Nahi duenak herriko

edozein gazteri proposamena bota diezaioke. Honela bada, Aurten Xalbatore bestarik eginen ez bada ere, hau bukatzean urdazubiarrek izanen dute hauek oroitzeko egunen bat! Eutsi gogor!

### Herria Haitada

Aurten Etxalarren maiatzaren 16an ospatzekoa zen Herri Haitada ere bertan behera gelditu da koronabirusaren ondorioz. Herritarrak penaturik agertu dira egun berezia izaten baita denentzat. Bertze edizio baten esperoan geldituko gara!



UTZITAKOIA

## Karriketan desinfekzio lanak

Inguruko bertze herrietan bezala, gure herrian ere, karrikak, kontsulta, etab. desinfektatzen ari dira Herriko Etxeko langileak. Birusa zabaltzea ekidin eta herritarrak babesteko egunero desinfektatzen dute Osasun Etxeko kontsulta eta kontenedoreak ere maiz ari dira garbitzen.

# «Ederki nabarituko dugu bestak ezin ospatu izana»

JAIONE PERURENA AZKARRAGA URDAZUBIKO GAZTEA

### TTIPI-TTAPA

Herriko bestak ate joka zituztela jaso zuten alarma egoeraren berria. Itxaropena galdu gabe, azken momentura arte saiatu dira ospakizunei eusten, baina ezin: «ez da erabaki erraza izan, baina ez dugu bertze aukerarik izan». Bestarako gogoia ez dute galdu eta egoerak hobera egiten duenerako zerbait antolatzeko asmoa dute: «ez dugu herria egun berezi hauek gabe utzi nahi eta hau dena pasatzean, posible izanez gero, besten seinaleren bat egin nahiko genuke».

### Ez zenuten pentsatuko halakorik gertatzerik izanen zenik...

Covid-19aren afera hau guztia hasi zenean, hasiera batean, esperantza genuen egoera lasaitu eta bestak ospatzeko aukera izanen genuela. Gero, ordea, egoerak okerrera egin eta panorama beltza zela konturatu ginen, hau luzerako izanen zela. Azken momentura arte itxaroten egon gara, egoerak hobera eginen zuelako esperantza izan dugu, baina azkenean Urdazubiko bestak bertan behera uzteko erabakia hartu dugu. Ez da erabaki erraza izan, baina ez dugu bertze aukerarik izan.

### Zer duzue burutan?

Herriko besten seinale bat egiteko asmoa dugu, aurrerago bada ere. Momentuz ez dakigu noiz arte iraungo duen egoera honek, beraz, data bat zehaztea ezinezkoa zaigu. Aurrerago zerbait egiteko aukera ez dugu baztertzeko. Bertzalde, proposamenik izanez gero, herritarrei haien ideiak guri jakinarazteko deia egin diegu. Azken finean, Salbato-



Jaione Perurena. UTZITAKO ARGAZKIA

re besten keinu bat egitea da asmoa, posible den heinean. **Zer galera dakar honek?**

Galera ekonomikoa eta soziala. Herriko gazteek jartzen dugun ostatua, boletoen salmenta eta antolatzen diren ekitaldiak diru-iturri dira guretzat; errentagarritasuna ona izaten da. Bestak antolatzerakoan sortutako gastuak estali eta urtean zehar bertze ekitaldi batzuk antolatzeko baliatzen dugu dirua. Galera soziala ere aipagarria da, izan ere, besten aitzakiarekin herri guziaz elkartzeko aukera izaten da, adin guzietako jendea hurreman da. Beraz, aurten, ederki nabarituko dugu Urdazubiko bestak ospatu ezin izana.

### Hitzartuta zenituzten ekitaldi eta musika taldeekin zer gertatuko da?

Jadanik hitzartua genuen guziaz deuseztatu behar izan dugu. Batzuk aurretik deitua ziguten egoera honen erruz ezinen zutela etorri erranez. Gainontzekoei egun hauetan ibili gara deika haien zerbitzuak ezetzatu beharko ditugula adierazteko. Denek arras ongi ulertu dute, badakite zein den egoera eta hainbatek hurrengo urteko bestetarako haiekin kontaktzeko eskatu digute.





Joxemari Indaburu zerri-hiltzailea eta Angel Etxenike pilotaria apirilaren hasieran hil ziren, 81 eta 95 urte zituztela, hurrenez hurren. MARIFA ETA KORO

## Bi herritar estimatu galdu dituzte hilabete hasieran

Apirilaren 4an hil zen Angel Etxenike eta apirilaren 5ean Jose Mari Indaburu

### MARIFA ETA KORO

Hilabete hasieran bi herritar berezi galdu genituen: Joxemari Indaburu eta Angel Etxenike. Haiei buruzko aipamen batzuk egitea poliki dela uste dugu.

### Joxemari Indaburu

Joxemari Indaburu gizon garrantzitsua izen zen herrian, garai batean hain beharrezkoak ziren bi lan egiten baitzituen: zerri-hiltzailea zen, baita arotza ere. Bere aita Jesus Indabururengandik ikasi zituen bi

ofizio horiek, baita ongi ikasi ere. Zerri hiltzen, Zugarramurdi gain, Urdazubin eta Ainhoan ere ibili zen. Bertze aldetik, arotz bezala, langile fina zen, eta lan handia egiten zuen Guantzeko aroztegian, garai batean aziendak ferra-

«INDABURU ZERRI HILTZAILE ETA AROTZ PREZIATUA IZAN DA»

tzeko lan aunitz izaten baitzen, batez ere astoekin, gau-lanarakoz arras preziatuak zirelako. Kontatzen da, etxe batean zazpi asto ere bazituztela lan horretarako.

### Angel Etxenike

Angel Etxenike, berriz, pilotaria izan zen. Baina, horretaz gain, ezagunak egin ziren bere anaia Juanitorekin jokatu zituen partida batzuk.

Horietatik handiena, 1951. urtean Zugarramurdiko pilotaleku zaharrean jokatu zuen. Egun hori izan zen *refeta* egin zen lehenbiziko aldia, eta Etxenike anaia Senpereko Audet anaien kontra aritu ziren. Se-

«ETXENIKEK JOKATUTAKO PARTIDAK BATZUK EZAGUN EGIN DIRA»

kulako ikusmina sortu zuen Xaretan partida horrek, eta 50.000 pezeta jokatu ziren ikusleen artean (garai hartako arras kantitate handia).

Baina harrigarriena izan zena, partida finitu gabe gelditu zela izan zen, ilundu zelako eta pilota apenas ikusten ez zelako. Tantoak luzatzea baimentzen zuten garai hartako arauak (partida 30era zen, baina 28ra berdinduz gero, 10 tanto gehiago luzatzen zen, hau da, 40era, eta 38ra berdinduz gero, bertze 10, hau da, 50era).

Partida horretan erabili zituzten pilotak herriko Karlos Marturet zapatariak eginak ziren.

Etxenike anaiek bertze partida berezi bat ere jokatu zuten, hau herritar baten kontra, Juan Etxaundiren kontra, eta berezitasuna, bi anaia besotik lotuak jokatu zutela izan zen. Partida Juan Etxaundik irabazi zuen.

## Dantxarinea ezik bertze mugak hetsi dituzte

### MARIFA ETA KORO

Berriz ere Francoren garaira itzuli gara muga kontuetan: Dantxarinea ezik, bertze bide-muga guztiak hetsi dizkigute. Kaltetuenak, Bortziri aldera joan behar dutenak dira. Izan ere, Lizuniaga eta Ibardin hetsiak direnez, Etxalarko men-

di-pista erabiltzera behartuak dira. Hortaz, 20 minutuz egiten den bidaia egiteko, orain 40 minutu gostatzen zaie.

### Mugako komertzioak

Mugako komertzioa berezia da Nafarroako legediaren arabera eta itxialdiko neurriak malgu-

tzen hasten direnean proba egiteko leku egokiak izan daitezkeela uste dute Ibardin eta Dantxarineko merkatariak, «lanaren, ekonomiaren eta gizarte-jardueraren suspertzearen bidean, ezartzen diren segurtasun-neurriak betez». Frantziatik datozen bezeroei sarbide mugatua emateko eskatu dute, «egoerak ezartzen dituen neurrien barrenean jarduerarekin segitzeko».



Kontrola Dantxarinean. ONDIKOL



Joan den urteko biltzarrean hartutako irudia.

## Sarako Biltzarra irailaren 6an eta 7an iraganen da

Hastapeneko egitarauari eusten saiatuko direla jakinarazi dute antolatzaileek

### TTIPI-TTAPA

1984az geroztik hutsik egin ez duen literaturazaleen hitzordua ere bete-betean jo du COVID-19ak. Apirilaren 13an eta 14an egitekoa zen aurten Sarako Biltzarra, baina antolatzaileek data horietan ez egitea erabaki dute.

Hala ere, biltzarra antolatzeaz arduratzen den elkarteak ez du bertan behera utzi eta 37. edizioa irailaren 6an, igandea, eta 7an, astelehena, egitea erabaki du.

### Bi egunetako ospakizuna

Azken urteotako bidetari jarraiki, aurten ere bi egunetako ospatzekoa zuten biltzarra. Alde batetik, apirilaren 13an betiko biltzarra egitekoa zuten, eta biharamunean, profesionalen eguna, *Emakumearen lekua euskal literaturan* gaia oinarritzat hartuta. 110 idaz-

lek parte hartzekoa zuten eta hainbat aurkezpen aurrekusiak zituzten. Biltzarreko sariak, berriz, Marie-Jose Basurko eta Koldo Ameztoiri ematekoak zizkieten.

Profesionalen egunean, bertzalde, bertzeak bertze, *Emakume ahotsak euskal literaturan* mintzaldia antolatua zuten Iratxe Retolaza Gutierrezekin. Horrez gain, kritika feminista trukaketa ere aurreikusia zuten hainbat argitaletxetako ordezkariak eta *Euskal idazle eta emazte Ipar Euskal Herrian, zein bizipen?* gaiaren inguruan mahai-ingurua ere egitekoa zuten Maialen Hegi-Luku, Marikita Tambourin, Maddi Ane Txoperena eta Maddi Zubeldiarekin.

Antolatzaileek ahal den neurrian hastapeneko egitarau horri eutsiko diotela jakinarazi dute.

## Herri bozen irakurketa gazi-goza egin du Har Hitza taldeak

### TTIPI-TTAPA

«Duela sei urte hartu genuen bidea zentzuz betea dela frogatzen dute». Halaxe adierazi du Har Hitza taldeak martxo-ko bozetako emaitzen kariatara zabaldu duen idatzian.

Duela sei urte lehen aldikoz aurkeztu zirenean, «Saran abertzale gisa aurkeztea berria» zela oroitarazi dute, baina «aldi honetan ez du eztabaidarik sortu». Azken sei urteotan bi hautetsi ukan dituzte eta haiek «sekulako lana» egin dutela goraipatu dute, «bide bat ireki dugu, zango bat ezarri Herriko etxean».

Gainerakoan, 2020ko bozetara «ahulduak» aurkeztu diren arren, egoerari itzulia eman diotela diote eta aldi berean, emaitzak gazi-goza izan direla onartu dute, batez ere bertze herrietan abertzaleek

lortutako emaitzekin konparatuz: «baina horiek eskuin frantsesa dute parean, ezker eta ekologistekin elkartuak dira eta aspaldiko urteetako lanaren fruitua biltzen ari dira. Gu bertze etapa batean gara».

Hasierako helburua hirugarren hautetsia lortzea zela eta hori lortu dutela azpimarratu dute Har Hitzakoek. Horrekin batera, «programa sendoa egin» izana, «lantalde berri eta dinamikoa sortu» izana, «parekoak gure gaitara hurbildu» izana eta «sinesgarritasuna eta eragiteko ahalmena irabazi» izana nabarmendu dituzte.

«Orain gure taldeak hiru aste bederen baditu bere lan dinamika gogoetatzeko, herriko kontseilua maiatz erdira arte ez baita osatuko konfinamenduarengatik».

## Maiatzaren 11ra arte luzatu dute erabateko konfinamendua

### TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 11tik aitzinera industria, merkataritza eta zerbitzuak martxan jarriko dira Ipar Euskal Herrian. Haur eskolak, lehen mailako ikastetxeak, kolegioak eta lizeoak egun horretan hasiko dira atean irekitzen, hori bai, arau berriekin. Unibertsitateak, ordea, udan zabalduko dituzte, oraindik zehaztu ez duten egunean. Jatetxeak, ostatuak, hotelek eta antzokiek itxita segituko dute. Hala jakinarazi zuen apirilaren 13an Emmanuel Macron Frantziako presiden-

teak. Jaialdiak eta ikuskizun handiak gutienez uztailearen erdialdera arte debekatuta izanen dira. Horrekin batera, zenbait tokitan maskarak erabiltzea derrigorrezkoa izanen da, hala nola, garraio publikoan, eta maiatzaren 11 baino lehen herritar guztien eskura paratuko omen dituzte.

Gainerakoan, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako mugak itxita segituko dutela ohartarazi zuen apirilaren 13ko agerraldian Macronek, «bertze agindu bat eman arte».

**MENDIKO**  
JATETXEA

**Sagardotegia**

Ibardin-BERA | T. 00 34 948 63 03 02  
www.mendikoibardin.com

Karta ere badugu!

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**

Jarrai gaitzazu!

facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Saioa etxeko balkoian entrenamendu saioa egiten. UTZITAKOIA

## «Zaila da erritmo edo intentsitate altuan entrenatzen jarraitzea»

**SAIOA JAURENA** BAIONAKO ERRUGBI TALDEKO JOKALARIA

Asteak daramatza Saioa Jaurenak zelairik zapaldu gabe. Egoera berrira egokitu eta gogor ari da entrenatzen, orain arteko helburuei eutsi nahian

**E. IRAOLA** LEITZA

Europako txapelketa jokatu bezperan jaso zuen Saioa Jaurenak (Elizondo, 1989) alarma egoeraren berria. Geroztik, Leitzako etxebizitza gimnasio bihurtu eta mailari eusteko gogor ari da lanean..

**Zertan eragin dizu egoerak?**

Gutziz aldatu eta berrantolatu behar izan dut nire egunerokoa. Ordutegiak ongi finkatu eta eguneroko lanak nola egin behar ditudan ongi planifikatu, denbora ez galtzeko. Zelaia uzteak bertze mota bateko ariketak egitea dakar. Normalean egiten ditudanen antzekoak, baina etxean ari naizenez, gehiago egin behar dira. Etxean egon beharrak

badu alde ona ere, gorputza ongi deskantsatzen ari da. Denbora librean bideoak ere ikusten ditut, alderdi teknikoak aztertu eta zuzendu beharrekoeak ikusteko eta hobekuntza non dagoen aztertzeko.

**Europako txapelketa jokatzen hastekoak zineten.**

Apirileko lehenengo bi asteetan jokatu beharreko txapelketa zen eta orain ez dakigu noiz arte atzeratuko den. Berrria jasotzea kolpea izan zen, egoera onean nintzen eta jokatzeke gogo handia nuen. Ulertzen dut egoera, baina txapelketa hau atzeratzeak gauza dezente aldatuko ditu gure egutegian. Orain ezjakintasuna da nagusi. Zaila da

erritmo berean edo intentsitate altuan entrenatzen jarraitzea noiz jokatuko duzun jakin gabe.

**Entrenatu eta mailari eustea da erronka nagusia?**

Egoera honetan sartu ginean, taldeko prestatzaile fisikoak eta selekziokoak ere segituan bidali zizkiguten plan berri eta egokituak. Esku artean plangintza bat dagoenean errexagoa da horri eutsi eta

**HELBURUETAN PENTSATZEA DA AURRERA EGITEKO GILTZA**

egunero idatzita dagoena egitea. Entrenatzeko garaian, bakoitzak etxean duen materialaren arabera da baina indar ariketa eta erresistentziakoen arteko nahasketak dira orokorrean. Zaila da mailari eustea etxetik atera gabe, batez ere zelaian egiten duzun hori egitea ezinezkoa zaigulako. Hala ere, plangintza jarraituz eta zainduz nahiko ongi mantentzen ari naizela uste dut.

**Arlo psikologikoak ere eragina izanen du.**

Bai, handia gainera. Lehen astea zaila izan zen, batez ere ezjakintasunagatik eta nola aurre eginen nion ez nekielako. Galdera aunitz etorri zitzaizkidan burura. Entrenatzailearekin eta prestatzailearekin solastu ondotik asko lasaitu nintzen. Egunero entrenatzen jarraitzeko giltza bakarra helburuetan pentsatzea da eta horietara ahalik eta egoera onenean iristeko egin beharrekoan pentsatzea. **Zer eragin izanen du honek errugbiaren munduan?**

Kirolari gehienok entrenatzen ari garela uste dut, bai beharregatik baita denbora-pasa ere. Gero, denbora tarte bat beharko dugu berriz zelaian ongi ibiltzeko baina tarte hori errespetatuko dutela uste dut. Arazo handiena klub mailan egonen dela uste dut, txapelketa edo liga aunitz bertan behera geldituko dira eta kasu batzuetan galera handiak egon daitezke esponsor edo laguntzaileen aldetik. Gainera, jokalaria fitxatuak dituzten klubek ez dakit nola eginen dieten aurre egoera honi; jokalaria horiek geldirik dituzte. Kirol arloan ere izanen du eragina. Hainbat kasutan, talde batzuk gauza handiak lortzekotan zeuden eta egoera honengatik prozesu hori gelditu eta oraingo emaitza onak jaso gabe geldituko dira. Zaila izanen da geldialdi hau eta gero inertzia berarekin jokatu eta emaitza berdinak eskuratzeko jarraitzea.

# «Gure kirola urean egiteko da, lehorrean sentimendua galtzen du»

Iker MARIEZKURRENA IMAZ SUNBILLAKO ARRAUNLARIA

Traineru-liga noiz hasiko den ziurtasunik gabe, Kontxako banderaren azken bi edizioak irabaziak dituen Iker Mariezkurrena Hondarribiko arraunlari sunbildarrak lanean segitzen du.

**AITOR AROTZENA** SUNBILLA

Egutegian aurreikusitako 19 estropadak prestatzeko entrenatzen segitzen du arraunlari sunbildarrak. Etxean, ergometroarekin eta entrenamenduak lanarekin uztartuz, denboraldia normaltasunez egiteko aukera izanen duelakoan dago.

**Nola ari zara egun hauek bizitzen?**

Etxean, denok bezala. Ahal den moduan entrenatuz eta erosketak egiteko eta lan egiteko bakarrik ateraz. Haurdun dagoen emaztearekin nago herrian. Ekainaren 23rako espero dugu, liga hasten den egunerako hain zuzen. Bera ere beldurrez bizi da eta gogorra egiten ari zaio, gehiago bere egoeran. Aste honetan zaintzan ari naiz, eta mila begi eta kontu handiz joan behar duzu etxera iristean.

**Nola moldatzen zara entrenatzeko egoera honetan?**

Duela bi urte erositako ergometroa daukat ganbaran, eta horrekin zerbait egin dezaket. Mankuerna batzuk ere erabiltzen ditut. Prestatzaileak astero entrenamendu-plan bat bidaltzen digu, entrenamenduen datuak egunero hartu eta bidaltzen dizkiogu. Baina ezin gara uretara atera eta han egon nahi genuke.

**Nolakoa da entrenamendu-plan-gintza hori?**

Igandean bidaltzen digute, eta astero antzekoa izaten da. Adibidez, astelehenean, pixka bat berotu ergometroan, eta pesak egin behar izaten ditu-



Iker Mariezkurrena etxean ergometroarekin lanean.

gu. Nik pesarik ez daukadanez, gomekin egin behar izaten ditut auto-kargako ariketak. Gero bertze saio bat ergometroan eta, nire kasuan, eliptika bat dudanez, aparteko ariketa bat egiten dut. Astearreetan atsedena ematen digute, eta asteazkenetan serie sendoak ditugu ergometroan. Ortzegunetan astelehenaren antzera egiten dugu, ortziraletan bertze serie batzuk eta larunbatetan asteko entrena-

**«ARRAUNKETARAKO KEINUA EZ DA ERGOMETROKOA BEZALAKOA»**

mendu gogorrena. Igandean, berriz ere ariketa pixka bat egiten dugu errekuaratzeko. **Etxean entrenatzea edo urean egitea ez da sentsazio bera izanen...**

Nire kasuan, ohituago nago. Lehen ere ez nuen egunero uretan entrenatzen Hondarribian, egunero klubera joaten ziren gainerako taldekideak bezala. Baina, halere, aunitz aldatzen da, bertze taldekideekin elkartzerakoan

**«ANIMO DENEI, ETXEAN GERATU ETA BUELTA EMANEN DIOGU»**

bertze giro bat izaten da. Azkenean, entrenamendua eramangarriagoa da taldekideekin zaudenean. Orain bakoitzabere ergometroarekin dago etxean, bakarrik entrenatu behar dugu eta horrek gogorrago egiten du. Egoera horretarahain ohituta ez dauden lagunak dira hori gehien sumatzen dutenak. Baina niri ere eragiten dit, etxean hiru egun entrenatzen nituen arren, bertze hiruetan Hondarribira joaten nintzen uretara.

**Egoera honek errendimenduan eragina izanen duela uste duzu?**

Seguru eraginen duela. Ez da gauza bera etxean edo uretan entrenatzea. Gure kirola uretan da, eta hor ez bazaude, sentimendua galtzen duzu: denak batera joatea, pala sartzea, ongi bukatzea. Uretara ateratzeko askatasuna ematen digutenean, hasieran nahiko gaizki pasatuko dugula uste dut, ez da hutsetik hastea bezalakoa izanen, baina, berez, arraunketarako keinua ez da ergometrokoa bezalakoa.

**Ezin jakin zenbat estropada egiterik izanen duzuen... Txapelketa ahul geldituko dela iruditzen zaizu?**

Bai, baina kirol guzietan berdintzatzen ari zaie. Dena suspentitzen ari da, eta guk zortea dugu denboraldia pixka bat beranduago hasten delako, eta horrek maniobra-aukera gehiago ematen digu. Egoera nola aldatzen den ikusi beharko dugu, ea ekainaren 28an denboraldia hasten ahal dugun eta uretan entrenatu ahal izan dugun. Nik oraindik ez dut denboraldiaren hasiera data zein izanen den pentsatu nahi. **Zertan eragiten ahal dio egoera honek traineruen etorkizunari?** Babesleei eragin diezaike batez ere. Enpresek nola irauten duten ikusi beharko da. Gure kirola ez dago ikusleen esku, estropadetan ez baita sarrerarik kobratzen, babes-enpresa horien diruaren men-de gaude. Egoera nola berre-raikitzen den ikusi beharko.

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN HARTZEKO

**ETXALAR.** Familia batek etxebizitza bat errentan hartu nahi du. ☎687 22 23 20.

#### ERRENTAN EMATEKO

**BURLATA.** Ikasle pisu batean logela bat errentan emateko apirilean, maiatzean eta ekainean. ☎659 82 66 09.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** 70 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala errentan emateko, Albistur karrikan, Onin errekaaren bazterrean. ☎948 62 75 33.

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO



**Zakurkumea** oparitzeko, Collie eta Labrador arteko nahasketa. ☎647 23 71 86.

#### SALGAI

**LEITZA.** Txerrikumeak salgai. ☎690 98 61 18.

### LANA

#### ESKARIAK

Adinekoak zaintzen bortz urteko esperientzia duen emakumezkoa lan bila. Lan egiteko gogoarekin eta prestutasun osoarekin. ☎643 49 94 03.

## IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

## BASERRIA

### BEHI-AZIENDAK

#### Aretze gizenak:

#### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,05
- 1.koa 4,93
- 2.koa 3,78

#### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,16
- 1.koa 4,02
- 2.koa 3,88

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 170,00

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

### ZALDI-AZIENDAK

#### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

### ARDI-AZIENDAK

#### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 4,75/5,35
- 8-10 kilokoak: 3,70/4,30

### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 74 €

**Zerri gizona** 1,467 €

**Zerramak** 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (apirilaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

Andiudak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Ordutegi malgua. ☎722 49 89 59.

### ESKAINTZAK

**BERA.** Berako mekanizatu tailer batean lan egiteko administraria behar dute, goizez. ☎670 42 81 43.

### MOTORRAK

#### SALGAI

**Fiat Scudo 1.9** diesel-a salgai. Lo egiteko prestatua. Mantenimendua egunean (fakturak). Ohe egitura eta koltxoarekin. Leihoentzako aislan-teak. Engantxatzeko bola. 346.000 km. 2.200 euro. ☎628 15 70 84.



**Scooter** Yamaha Slider salgai. 50cc. 2009koa. 10.000 km. Gasolina. 600 euro (kaskoa opari). ☎618 96 27 30.

### DENETARIK

#### SALEROSKETAK



**Haritz egurrarekin eginiko logela** salgai (bi mesanotxe eta 1,35 m-ko ohea, somierra, koltxoirik ez). Egoera onean. 300 euro. ☎685 76 44 00.

# ATERA TTIPI TXARTELA eta erabili

pegatina hau ikusten  
duzun denda eta zerbitzuetan



*Aprobetxatu aukera!*



ttipi-ttapa



HERIOTZAK

- **Maria Luisa Morales Roca**, Elizondokoa, martxoaren 30ean, 83 urte zituela.
- **Maire Julie Lefevre**, Sarakoa, apirilaren 1ean, 108 urte zituela.
- **Yvonne Marthe Caze**, Sarakoa, apirilaren 4an, 97 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Josefa Idiart Mendikoa**, Gartaingoa, apirilaren 7an, 81 urte zituela.
- **Andresa Elizetxe Ainzia**, Gartaingoa, apirilaren 9an, 94 urte zituela.
- **Juan Carlos Gorosterrazu Elizalde**, Iturengoa, apirilaren 9an, 58 urte zituela.
- **Fernando Iturralde Arratxe**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 9an, 92 urte zituela.
- **Mirentxu Zabaleta Urkizu**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 10ean, 86 urte zituela.
- **Benito Jaimerena Igoa**, Elizondokoa, apirilaren 10ean, 88 urte zituela.
- **Mamerta Elizagoien**, Sarakoa, apirilaren 10ean, 98 urte zituela.
- **Maria Jesus Iturbide Zelaieta**, Igantzikoa, apirilaren 11n, 82 urte zituela.
- **Beatriz Etxarte Irazoki**, Elbetekoa, apirilaren 11n, 86 urte zituela.
- **Francisco Mariezkurrena Mutuberria**, Elizondokoa, apirilaren 12an, 91 urte zituela.
- **Manuela Ibarrola Telletxea**, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 12an, 101 urte zituela.
- **Juan Pedro Orrantia Barriocanal**, Elizondokoa, apirilaren 13an, 81 urte zituela.
- **Maxima Urteaga Iaben**, Elizondokoa, apirilaren 13an, 88 urte zituela.
- **Rosa Gortari Mendiburu**, Elizondokoa, apirilaren 13an, 87 urte zituela.
- **Alfonso Ziaurriz Vicente**, Elizondokoa, apirilaren 14an, 77 urte zituela.
- **Adelaide Arluna**, Sarakoa, apirilaren 15ean, 94 urte zituela.
- **Benita Irigoien Goia**, Gartaingoa, apirilaren 15ean, 83 urte zituela.
- **Manuel Etxeberria Goizueta**, Goizuetakoa, apirilaren 15ean, 98 urte zituela.
- **Cristina Irigoien Iparragirre**, Urdazubikoa, apirilaren 18an, 89 urte zituela.
- **Patricio Elorga Etxandi**, Elbetekoa, apirilaren 18an, 81 urte zituela.
- **Miguel Arrupea Plaza**, Lekarozkoa, apirilaren 18an, 87 urte zituela.
- **Joaquina Erramuzpe Oses**, Elizondokoa, apirilaren 20an, 92 urte zituela.
- **Justa Victoria Sanz Valle**, Narbartekoa, apirilaren 20an.
- **Clara Irigoien Goienetxe**, Elizondokoa, apirilaren 21ean, 62 urte zituela.


ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:  
948 63 54 58 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

OROIGARRIA

**Maria Luisa  
MORALES ROCA**

Elizondon, 2020ko martxoaren 30ean

Ama, deika duzu gure bihotza,  
ez zaitugu ahaztu  
eta handia da utzi duzun hutsunea.  
Munduarentzat ama zara  
baina guretzat mundua zara.



**Berriz elkar ikusiko dugula espero dugu. Beti zurekin!**

ZURE SEME-ALABAK

OROIGARRIA

**Juan Karlos  
GOROSTERRAZU ELIZALDE**

2020ko apirilaren 9an hil zen, 58 urte zituela

Zure zirika bakoitza  
Izan da gure bizipoz  
Behar izan dugunean  
Beti laguntzeko gogoz  
Oroitu behar zaitugu  
Bertsoz edo joareak joz  
Gurekin gelditu dira  
Zure arima zein bihotz

Zuk ereindako bidea  
Jarraitu nahi dugu pausoz  
Eman diguzun guztia  
Denok eskertzeko asmoz  
Bizitzaren zoriona  
Nahiz batzutan gelditu motz  
Ez zaitugu atzenduko  
Maite zaitugu Juan Karlos



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Joseba  
LAGUARDIA**

Eskola publiko eta euskaldunaren alde  
lan egin zuen.

ZUREKIN LANEAN ARITUTAKO MAISU-MAISTRAK



BAZTAN  
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU  
365 EGUN

948 48 95 50  
[info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*

## KONTATU KONTUAK



**Elkar hartuta Narbarten.** «Gure herria sentitzen dugulako eta herritarrak maite ditugulako eta gure barnean uste baino indar gehiago dugu» ozen erranez, Narbarteko haur, gazte, heldu eta adinduek elkartasun eta animo mezuak zabaltzeko bideo ederra egin dute itxialdian. [ERRAN.EUS](http://ERRAN.EUS) atarian duzue ikusgai.



«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,  
Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

# IRACHE

## tanatorioak


### Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztiá, 13)  
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandía, 18)


ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

## URTEBETETZEAK



**Irati Iñigo Lujanbiok** 5 urte egin ditu apirilaren 12an. Zorionak politta, ongi pasa ituren eta Goizuetako familien partetik.



Narbarteko **David Albiasuk** 24 urte bete ditu apirilaren 17an. Aunitz urtez! Hau dena pasatzean zurekin ospatzeko esperoan gaude! Zaindu eta muxu bat



Irurritako **Elaia eta Maren Arraztoa Anduezak** 5 urte bete dituzte apirilaren 23an. Zorionak eta aunitz urtez baserriko familieren partetik! Muxu haundi bana!



Zorionak **Silbia!** Apirilaren 20an 4 urte bete dituzulako musu haundi bat familieren partetik eta batez ere Gorka anaiaren partetik.



Arantzako **Mikel Barrenetxe Alzuri** gure baserriar ttikiak 3 urte beteko ditu apirilaren 28an. Zorionak pottoko! Segi beti bezain bixkor eta bihurritxo! Matte zattugu aunitz Arantzako eta Erratzuko familiak eta ea laister ospatzerik badugun!



Oizko **Eugenio eta Maria Jesusek** apirilaren 21ean 60 urte bete dituzte ezkondurik!!! Lehen egunean bezain bertze edo gehiago elkar maite dutela aitortu digute!! Zorionak eta segi orain arteko sasoia eta maitasuna izaten.

## Aunitz urtez!

Zorion itzazu zure ingurukoak!

**Internetez:** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta edo **bulegoan edota postaz** Etor zaitez ТИПИ-ТҮҮРАҒЕН bulegora edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

5 (ttikia) edo 10 euro (handia).

## SORTZEAK

- **Xan Pequignot**, Sarakoa, otsailaren 8an.
- **Aia Bascou**, Sarakoa, otsailaren 9an.
- **Luna Etxegarai**, Sarakoa, otsailaren 11n.
- **Hodei Mihura Urrutia**, Sarakoa, otsailaren 22an.
- **Elyna Ubiria-Urdanpilleta**, Sarakoa, martxoaren 13an.
- **Maialen Telletxea Martikorena**, Doneztebekoa, martxoaren 31n.
- **Mara Olaizola Anso**, Goizuetakoa, apirilaren 14an.
- **Ziara Olaizola Anso**, Goizuetakoa, apirilaren 14an.
- **Hegoa Almandoz Goikoetxea**, Lesakakoa, apirilaren 7an.
- **Beñat Fagoaga Otxoteko**, Lesakakoa, apirilaren 12an.
- **Ibai Pikabea Alberro**, Lesakakoa, apirilaren 14an.
- **Garazi Iturbide Loiarte**, Lesakakoa, apirilaren 15ean.
- **Xabat Bertiz Gastearena**, Sunbillakoa, apirilaren 21ean.

# DENBORA-PASAK

## Letra-zopak

P	O	X	A	B	L	U	Ñ	J	S
A	H	A	T	E	A	R	F	A	A
I	A	E	T	B	N	D	O	S	R
N	R	I	X	A	G	A	U	A	R
P	I	R	I	H	I	Z	A	N	A
E	T	A	S	L	L	U	D	G	S
R	Z	L	T	E	E	B	Ñ	A	A
I	A	T	U	U	A	I	L	R	G
A	P	X	F	R	K	D	A	R	A
L	A	O	M	T	A	T	S	I	R
I	L	R	N	Z	R	Z	E	M	U
S	K	O	P	A	R	I	N	K	R
M	E	A	T	U	I	B	A	B	A
O	T	A	D	I	K	Ñ	G	O	Z
A	A	S	T	O	A	E	I	Z	R


- ALTXOR
- BABA
- HARITZA
- KOPA
- INPERIALISMOA
- LEURTZA
- ASTOA
- KARRIKA
- JASANGARRI
- IZAN
- LANGILEAK
- NAGI
- AHATEA
- SAGAR
- TXISTU
- GAUA
- URDAZUBI
- ZAPALKETA
- MEATU

[www.euskal.info](http://www.euskal.info)


## Hieroglifikoak



Zertan ari da  
Asisko Urmeneta?



Non dago  
Erriberri?



Zein herri da?

## Sudokuak

1				2			4	
		8		5	7			
	2		1		5	6		
9				6			3	
		1		8	6			
	3		5	4				7
	8	7		6		2		
		4	2		8			
6			8					9

7				6		1		
		9	7	3			4	
		3	4			8		
		6						
8				9			6	
				4	2			
		5		1	4			
9			6	8	7			
	6	9						1

7	6				4	1		
		8	5					6
1						5		
		1			5		3	
9					3			5
	8					2		
		7						2
4					1	8		
		9	4				5	7

[www.sudoku.name](http://www.sudoku.name)



# Erruleta

Hitza asmatu behar dugu. Horretarako, definizioa eta hitzaren amaiera emango zaigu.

...ARA. Euskaldunon hizkuntza.  
...ARA. \_\_\_\_\_

...ERE. Baserrietako animalia.  
...ERE. \_\_\_\_\_

...IRI. Euri txiki eta geldo.  
...IRI. \_\_\_\_\_

...IRO. Poliki.  
...IRO. \_\_\_\_\_

...ERA. Zerbait jakin nahi duzunean ondokoari egiten diozuna.  
...ERA. \_\_\_\_\_

...IRE. Bere, zure, ...  
...IRE. \_\_\_\_\_

...ORI. Hegoak ebaki banizkio, ez zen gehiago izango.  
...ORI. \_\_\_\_\_

...URO. Ordu guztietan.  
...URO. \_\_\_\_\_

...IRA. Denera, orotara.  
...IRA. \_\_\_\_\_

...ORE. Nola janzen zara?  
...ORE. \_\_\_\_\_

...URI. Idatzi gabeko folio bat nola dago?  
...URI. \_\_\_\_\_

...ERU. Ekuador azpian...  
...ERU. \_\_\_\_\_

...ORA. Zerbaitekin gozaten ari zarenean, nola sentitzen zara?  
...ORA. \_\_\_\_\_

...URE. Adineko gizona.  
...URE. \_\_\_\_\_

...ARO. Pasa (zubia edo denbora, adibidez).  
...ARO. \_\_\_\_\_

...IRU. Arropa gordetzeko leku.  
...IRU. \_\_\_\_\_

...URA. Zer aztertzen dute natur zientziak?  
...URA. \_\_\_\_\_

...ARI. Bertsotan aritzen dena.  
...ARI. \_\_\_\_\_

...ERO. Negu hasieran agertzen den pertsonaia ezaguna.  
...ERO. \_\_\_\_\_

...URU. Liburutegian aurki dezakezu.  
...URU. \_\_\_\_\_

...ARE. Aurrez aurre, parez ...  
...ARE. \_\_\_\_\_



...ERI. Ohean etzan egiten zara, eta aulkian?  
...ERI. \_\_\_\_\_

...ARRA. Begietako mukia edo harroko lotsagabea.  
...ARRA. \_\_\_\_\_

[bertsoikasgela.eus](http://bertsoikasgela.eus)

## 7 desberdintasunak

Aurkitu zazpi desberdintasun irudi hauetan.




Miriam Arregi - [@haya.eus](https://www.instagram.com/haya.eus)




# ITZALA

Zein da bi lore maitemindu hauen itzal zuzena?



# SUDOKUA

Ondoko BI LOREek sudoku baterako aitzakia eman digute. Osa itzazu lauki zuriak bi hitz horiek osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (B, I, L, O, R eta E). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

**Ttipi Txartela**rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eu | erran.eu

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**756** aleko  
irabazleak >



## ZOZKETAK

**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**

M<sup>a</sup> Teresa Saldias Ezkurra | URROZ

**Buatxabal - Kamiseta bat**

Idoia Iñarrea Etxenike | ELIZONDO

**La Rhune - 2 sarrera**

Puri Leiza Petrirena | ARANTZA

**Martiko - Lote 1**

M<sup>a</sup> Carmen Zozaja Lasaga | LESAKA

**BKZ abentura - 2 sarrera**

Jon Roda Azpiroz | LEITZA

**Astizko Lezeak - 2 sarrera**

Ainhoa Mortalena Bidegain | AZPILKUETA

**Ttartalito - Liburu bat**

Isabel Lakar Migeltorena | LEGASA

**Ttartalito - Liburu bat**

Jabier Iparragirre Iturria | IRAIZOZ

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



2 sarrera

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**


[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**Galaxy Park**

[www.galaxypark.eus](http://www.galaxypark.eus)



2 sarrera

**IRRISARRI LAND**

[www.irrisarriland.com](http://www.irrisarriland.com)



2 sarrera

**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



2 sarrera

**LI  
BU  
RU  
AK**



- Xabi Solano Maiza "Bi"

- La Furia "Pecadora"

**MAUKA**  
MUSIKAGINTZA

[www.maukamusik.com](http://www.maukamusik.com)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.katxiporreta.eus](http://www.katxiporreta.eus)



[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)